Oraico egunetan ere, Pyrenesetako zembait herritan haurrac haren beldur dire. Mutico ttipi bat edo neskato ttipi bat guerthatcen denian obeditu nahi ez duenac, amac erraiten dio: Casu izak! oyhu eguiten diat Tantugouri, eta, orai berian yinen duc oyhanetic!

Instituteur: Loustalet,
34 ans, Lourdios-Ichère
Coll.: Etcheberry, Pierre

HASPARREN / HAZPARNE

(Canton d'Hasparren)

Population: 5822

Behin baciren Pyrenesetako herri gnimigno batian gizon bat eta emazteki bat arras çaharrac. Etche gnimigno bat, bahatze bat eta behi bat çuten ontasan guzitzat. Hanitz **pobriac** beharrian ciren, beinan bethi laguntzen cituzten hec baino **pobriagoac** beharragoac. Egun batez, lurra elhurrez estalia cen, horma hanitz handia ere cen. Herri hartaco yende guziac berotzen hari ciren, yatian eta edatian, aberatsak eta urusak ciren. Ilhuntziarekin, bi gizon, urrundic heldu cirenac, nahi izan çuten **arrastattu** gelditu leku hartan, ceren hotz eta gose baitciren. Yo çuten ate bat, gero bertze bat eta oraino bertze batzuc; nehoc ez cituzten sartzerat utzi nahi izan, eta nehoc ere ez cioten yaterat eman nahi izan. Leku gucietarik casatuak, çakur errabiatu batzueç **bezala** segituak, bi **estranyer** arrotz heyek ez çakiten norat yuan, noiz eta ere kausitu baitciren herri haren bertze buruan, gizon eta emazteki **pobre** beharrian ciren heyen etchearen aitzinean. **Estranyer** Arrotz heyen pleinuac aditzearekin, senarra emantzen leyhoan oyhu egiteko eta emaztea yuan cen **fit**e laster **bortaren** atearen idekitzerat. **Estranyer** Arrotz heyer galdatu gabe nor ciren sar hazi cituzten eta su bazterrean yar azi; gero **zerbitzatu** eman cioten etchean cituzten yateco guziac: esnia eta zonbait gaztena. Bainan orduan, Yainko yaunac – ceren hura baitcen yondoni Petirikin – chutitu cen, burua dirdiran zuelarik, eta erran zuen yende **pobre** behar heyer: “Zueç **pobriac** beharrac eta onac zaizte, zuen haüzooç aberatsac eta gachtoac dire, Yainkoaren yustizia eina izan bedi!”. Orduan, bet betan, lurra ikaratu zen. Yesus eta Yondoni Petiri esestatu ciren eta gizon eta emazteki **pobre** behar hec erori ciren belhaünico... Bihamun goizian yoan nahi izan çuten herrirat, yakiteco zer **pasatu** gertatu cen, ez çuten ikusi etcheric batere; etchen **plazan** lekuan cen ur handi bat, zoina ikusten baita oraino Barbazan deitzen den herriaren eta Saint-Bertrand-de-Comminges deitzen den hiriaren artean.

Malhurusac Beharrian direnac behar dire lagundu.

oOo

Tantugou da gizon çahar bat zoina gordetzen baita oyhanetan. Zaintzen ditu pentziak, nehoc ez dezan phitsic ebats. Ogiac eta belharrac pikatuac direnian, Tantugouç ez du loric eguiten ogi hek eta belhar hek sartu artio, bethi beilan dago. Ohoinak hartaz arras beldur dire. Pestua da, sinhets zazue, bainan **salbaya** basa da. Laborari bateç, zoinak baitzazkin hanitz gaüza, erraten zuen maiz bere semeri Tantugou zela segurki lurreko fruituen zaintzale hobena.

Uztailaren egun arratsalde batez, arthalde bat paüchan zagon mendian, artzaina lokartu cen: atzartziarekin ikusi zuen Tantugou **eskapatzen** lasterka yoan zela oyhaneko alderat. Ezagutua izan ere cen abere zaintzale batzueç, mendi arte puillit batean, harroka baten gainean etzana.

Orainoko egunetan ere, Pyrenesetako zombeit herrietan, **harrac** haürrac hartaz beldur dire. Noiz eta ere mutiko gnimigno bateç edo nechka gnimigno batek bere amari obeditu nahi ez duenean, amak erraiten dio: Intzac casu! Oyhu egiten diat Tantugouri eta oraï berean yinenduk oyhanetic!

Inst.: G. Guilliard, né à Espelette, le 23 septembre 1861.

Nota. – Tous les *u* se prononcent *ou*. – Tous les *e* se prononcent *é*. – *ge gi* se prononcent *gué gui*. – *en em* se prononcent *in*. – *in* se prononcent *ine*. – *s* se prononce en appuyant le bout de la langue contre le palais et en sifflant. – *z* se prononce comme l'*s* en français. – *un* se prononce *oun*.

MACAYE / MAKEA

(Canton d'Hasparren)

Population: 693

Baciren bertce orduz Pyreneco herri batean guïçon bat eta emaste bat biciki çaharrac cirenac. Ez çuten etche ttipi bat, baratce bat eta behi bat baicic. Bainan, cembat nahi pobre içanagatikan, sokoritcen cituzten bethi berac baino pobriago cirenac. Egun batez, lurra estalia cen elhurrez eta horma ari cen bortiski. Herrico yende guciac berotcen ari ciren, yanez eta edanez; aberats eta urus ciren. Ilhuncian bi pidayant heldi cirenac urrundic nahi içan ciren guelditu lekhu hartan, ceren hots eta gose baitciren; yo çuten bortha batian, guero bertce batian eta bertcetean oraino: nihorc ez cituen utci nahi içan sartcera ez deussic eman nahi içan yatera. Kassatuyac orotatic, seguituyac sakhur errabiatyuez, bi estranyerec ez çakiten norat yoan, nois eta ere khausitu baitciren herri basterrian, guïçon eta emaste pobre heyen etchiaren aiticnian. Aditciarekin heyen plainuyac senharra eman cen leyhoan heyen deitceco eta haren emastia yoan cen fite bortharen idekitzera. Galdatu gabe nor ciren, sar eraci ciusten eta yar eraci beren su basterian, guero cerbitçatu çakoten esnia eta cembait gastaina, hec ciren citusten guciac. Bainan orduyan, Yesu-Christo gure Yauna, - hura cen Yondoni Betirirekin, - chutitu cen, buruya dena distiretan eta erran çakoten: “Çuek, pobriac eta onak çarete; çuen aussoac aberatsac eta gaistoac dire. Yaincoaren yusticia eguina içan dadiela!”. Berehala lurra ikharatu cen, Yesus eta Yondoni Betiri bistatic galdu ciren eta bi çaharrac erori ciren belhaunico... Biharamun goician, nahi içan çutenian yuan herrirat, yakitera cer passatu cen, ez çuten ikhussi etcheric batere: heyen plaçan bacen ur gueldi bat edo aintzira bat, hura bera khausitcen dena oraino egun Barbazaneco herriaren eta San Bertrand-de-Commingeco hiriaren artian. Behar dire sokhoritu malurusac.

(Observation: le *u* se prononce *ou*)

oOo

Tantugou da guïçon bat gordetcen dena oyhanetan. Çaincen ditu landac eta phenciac ez deçaten deussic ebatx. Oguiac phicaturac edo belharra ebakia direnian, denac sarthuyac içan artian naussiaz, Tantugou ez da batere loac hartcen, beilatcen du bethi. Haren aguertcen ikhusteco beldurac atchikitcen ditu ohoinak. Ona da, sinhetx çaçue, bainan salbaya da. Laborari batec, çoinac baitçakien hainits gauçà, erraiten çuen mais bere semeri Tantugou cela segurki lurreco fruituen sainçaleric hoberena.

Ustaril hilabeteco arraxaldi batez, ardi arthalde bat alhatcen ari cen mendi baten gainean, artçaina loak hartu çuen; iratçartcian ikhussi çuen Tantugou oyhanerat ihessi çohala. Higual eçagutia içan cen artçainez mendiarte poillit atean, etçana harroka baten gainean. Oraino egun, Pyreneco hessi cembaitetan, haurrac haren beldurra badute. Nois eta ere muthico ttipi batec edo nescato ttipi batec ez baitu obeitu nahi bere amari, hunec erraiten daco: Guardi emac hiri! Deitcen diat Tantugou, eta istantian yinen duc oyhanetic!

Inst.: Saffores Jean, âgé de 46 ans, né à Tardets-Sorholus

Coll.: Dunat Jean, âgé de 87 ans.

MÉHARIN / MEHAINE

(Canton d'Hasparren)

Population: 534

Baziren demboraz Pirenetaco herichka batian gizon eta emazte chahar batzu. Ez zuten etche ttipi bat, baratce bat eta behi bat beïcic. Bainen hain beharrac izanic ere laguntzen zituzten bethi berac baino beharago cirenac. Egun batez lurra elhurez estalia celaric eta harrien arditic egiteco horma hari celaric, karrikaco yende guciac berotcen hari ciren, yanez eta edanez: Aberats ciren eta urus. Ilun nabarrian bi urundic heldi ciren bidayantec nahi ukan çuten gelditu toki hartan, gose eta hotz cirelakotz. Yo zuten athe bat, gero bertce bat, eta bertcek ere oraino. Nihorc ez cituzten sartcerat utzi nahi ukan eta nihorc ez cioten yaterat eman nahikatu ere. Kasatuac bazter gucietaric, persegituac chakur arrabiatu batzuez, bi arrotcec ez zakiten norat yoan, noiz eta ere kaüsitu baitziren karikaren buruyan, gizon eta emazte behar heyen etchiaren aïncinian. Heïen plainuac aditzian, senarha pharatu cen leihoan heïen deïtzeco eta haren emaztia yuan cen berehala athearen idekitcerat. Galde egin gabe nor ciren, sarrarazi cituzten eta yarrarazi beren su bazterrian: gero cerbitzatu cioten esnia eta gaztaina zombeit: cituzten guciac. Baina ordian Gure Yaunac – Hura cen Yon doni Petrirekin – chutitu cen buruya distirante eta erran cioten: “Zuec beharrac zaëte eta onac; zuen haüzoak aberatsak dire eta gaïchtoac. Yeinkoaren yusticia egin dadiela!”. Ordu berian lurra ikharatu cen, Yesus eta Yon doni Petri suntsitu ciren eta bi chaharrac belhaunka eman ciren.

Biharamun goïcean, karrikatat yuan nahi izan zutenian, cer iragan cen yakiteco, ez zuten ikusi etche bihi bat: heïen tokian putçu bat cen egungo egunian oraino Barbazaneco herriaren eta San Bernat Comintseneco hiriaren artean caüsitcen den putçu hura.

Behardire lagundu beharrac.

N.B.U se prononce *OU*. S se prononce *S*. GI se prononce *gui*. GE se prononce *gue*. Dans le vrai basque on ne met pas d'accent. Ainsi *eta* se prononce *éta*, *ere* se prononce *ére*.

oOo

Tantugou oyhanean gordetcen den chahar bat da. Zaitzen ditu landac eta pentzeac yeusic ebatse ez dezaten. Bihi lastuac pikatuac direnian eta beharrac segatuac, guciac naüsiac bilduac izan arthe, Tantugouc ez du loïc eguiten: bethi iatzarria dago. Haren aguertceco beldurac daozca ohoïnac. Ona da, sinhets zazie, bainan da salbaya. Labori hainitz gaüza zakien batec erraten zuen mais bere semeri Tantugou cela segurki lur huntaco fruituen zaintzaïleric hoberena.

Uztaileco eguerdi ondo batez, ardi tropa bat alatcen cen mendi baten gainian; artzaina lokartu cen: iyatartcian ikusi çuen Tantugou oyhan alderat ihes eguiten. Ezagoutua içan cen halaber artzainez ordokhiarte batean, harroka baten gainian etzana.

Orainon egun, Pirenetaco zombeit herritan, haurrac haren beldur dira. Noiz eta ere mutiko ttipi edo nechka ttipi batec ez baitu obeïtu nahi bere amari, erraten dio: kasu izac (edo izan) hiri! Deitzen diat (edo dinat) Tantugou eta berehala yinen da oyhanetic!

M. Jean-Marcel Etcheverry, 27 ans, né à St-Pée-sur-Nivelle (B. Pyr.)

Coll.: Ihistary, Jean, âgé de 90 ans.

MENDIONDE / LEKORNE

(Canton d'Hasparren)

Population: 1158

Barbazaneco erran çaharra

Lehenau baciën mendietaco herri batean guizon bat et emazte bat biciki çaharrac. Ez çuten etche ttipi bat, baratce bat eta behi bat baicik. Bainan hain pobreak içanik ee, bethi laüncen ciuzten berak baino pobreaüak. Eün batez lurra elhurrez estaliacen et harria arrailceco horma ai cien. Herrico yende guciac berotcen cien yaten eta edaten ai cielaik: aberatsac eta urusak cien. Ilhuncean, bi piayant urrunetik heldu cienek lekhu hartan guelditu nahi içan çuten ceren hotzak eta goseak baitcien; yo çuten borthaat, gueo berceat eta berce batçu oono: nehok ez citien nahi utci sartcea ez eta ee eman yeusik yatea. Casatuac ootaik, yarraikiak çhakhur gaichtoez bi arrotzek ez çakiten noat yoan causitu cienean herriaren basterrean guizon eta emazte pobre heen etchearen aiticnean. Heen pleinuak aitceaeikin senharra eman cen leihoan eta emaztea yuan cen fite bortharen ideitcea. Galdein gabe nor cien, sar aaci ciuzten eta yarraaci bee supasterrean; gueo cerbitçatu cacoten esnea eta combait gaztena, çuten gucia. Bainan orduan Gure Yincó Yaüna –hua cen yondoni Betiriikin –yeiki cen burua dena distiranta eta erran çacoten: “Ciek pobreak eta onak ciezte: cien auzoak abeassak eta gachtoak, Yincoen yusticia eina içan daila!”. Behaala lurra ikharatucen Yesus eta yondoni Betiri endurtu cien eta bi zaharrak eroi zien belauniko... Bihaamun goicean nahi içan çutenean yoan herrirat ce pasatu cen yakitea etçuten ikhusi batee etcheik, heen lekhuian ciphu bat; oono eüngo eünean Barbazaneco herriaen eta Saint-Bertrand-de-Commingeco heriaren artean kausitcen dena. Lagundu behar dia beharrac.

oOo

Tantugouen erran çaharra.

Tantugou da guizon çahar bat oyhanetan gordetcen dena. Landak eta phenceak çaincen ditu handik ez dezaten yeusik ebats. Belharra eta oguiac eakiak dienean, nausiak denak sarthou artio Tantugouk ez du batee lo eiten; bethi iatçartua daü. Hua aguercen ikhusteco beldurac atchikitcentu ohoinak. Ona da sinhetsacie bainan basa da. Laborari hanitz gaüza zakien batec erraten ceen ardura bere semer Tantugou cela lurreco fruituen zainçaleik hobeena.

Uztaileco arratsalde batez artalde bat alhatcencen mendi baten gainean, artçaina lokartucen: iatçarcean ikhusi cien Tantugou ihesi yoaiten oyhaneco aldeat. Berdin eçatütuya içan cen ordoki pullit batean etçana harroca baten gainean.

Eungo eunean oono mendietaco herri çombaitetan haan beldur dia Mutico ttipi batek edo nechcato ttipi batek ez tienean bere amari obeitu nahi, hunec erraiten daco: Casu eisak! Tantugou deitcen diat eta behaala yien duk oyhanetik.

Instituteur: Dibar, né à Louhossoa, le 28 8bre 1861
Coll.: Mendilahaxou J, Mme Detchessarry, M Babaquy Luc

SAINT-ESTEBEN / DONOSTIRI

(Canton d'Hasparren)

Population: 560

Bacen lehenago Pyrénétaco herri batian guizon bat eta emazte bat zoinac baitzien arras zaharrac. Etzuten etche ttipi bat, baratze bat eta behi bat baizic. Bainan nahi becen pobriac izanic ere, sokoritcen ziusten beti berac baino pobriago zienac. Egun batez lurra estalia cen elhurrez, harria arrailtzece horma haricen. Herrico yende guziac berotcen zauden, yatian eta edatian, aberatsac ziren eta urusac. Ilhunirian, bi piyayant, zoinac heldu baitziren urrunianic nahi ukan zuten guelditu leku hortan ceren eta hotz eta gose baitziren. Yo zuten borta batian guero beste batian eta bestetan oraino: nehorc etziusten sartzeat utzi nahi, ez eta ere deus yaterat eman. Casatiac orotaric seguituac chakur samurrez, bi estranyerek etzakiten norat yuan. Kausitu zienian herriaren basterrian, guizon eta emaste pobre horien etchearen aintzinian. Aitziarekin heyen arrangurac, senharra emantxen leyhuan heyen deitzece eta haren emastia yuan cen fite bortaren idekitzerat. Galde eguin gabe nor ziren sarrarazi ziusten eta yarrarazi supasterrian; guero, eman tzayoten esnia eta gatzainac, zuten gucia. Bainan ordian, gure Yauna; -hua cen Yondoni Petirikin- chutitu cen, burua dena distirant, eta erran tzakoten: "Zuec pobreac eta onac zieste; zien hauzuac aberatsac eta gaichtoac dira. Yaincoaren yustizia eguin dadiela!". Berehala lurra ikaratu cen, Jesus eta Petiri galdu zien eta bi saharrac erori zien belhaunico... Biharamun goizian nahi ukan zutenian yuan herrirat yakiteco cer pasatu cen, etuten ikusi etche bihiric: heyen lekian, bacen ur handi bat, zoina kausitcen baita oraino egun Barbazaneco herriaren eta San Bertrand de Comingeco hiriaren artean.

Behar dire malhurusac lagundu.

oOo

Tantugou da sahar bat: zoina gordetcen baita oyhanetan. Zaintcen tu landac eta pentziac deusic ez dezaten ebats handic. Oguiac pikatuac ita belharrac segatuac cienian, oro nausiaz erretiratuac izan arte, Tantugouc ez tu loric eguiten; beti beillatcen tu hua aguer dadien beldurac atchikarasten tu ohoinac. Ona da, sinhetz zazue, bainan salbaya. Hainitz gauza zakien laborari batec, erraten zioten usu bere semer Tantugou cela segurki lureco fruituen zeintzale hoberena.

Ustaillaco eguerdi ondo bates, ardi tropa bat alha cen mendi baten gainean, artzaina lokartua cen: iatzartziarekin, ohartu cen Tantugou ihes yuan cela oyhanerat. Guisa berian ezagutua izan cen artsainez mendi sola polit batian, etsana arroka baten gainian.

Orainon egun, Pyrenetaco herri batzuetan, haurrac haren beldur dira. Mutico ttipi eta neskatoce ttipi batec obeditu nahi ez dienian bere amari, erraten daco: Guardimac hiri! Deitzen diat Tantugou ita berehala, yinen duc oihanetic.

Instituteur: Hiribarren, 23 ans, né à Bidart
Coll.: Brana et Mendivil

SAINT-MARTIN / DONAMARTIRI

(Canton d'Hasparren)

Population: 540

Lehenago bazien Bachenabarreco mendietaco heri batian guizon bat eta emazte bat biziki zaharrac zienac. Etzuten etche ttipi bat, baratze bat eta behi bat baicic. Bainan nahi bezan pobriac izanic ere bethi laguntza eguiten zuten berac baino beharaguer. Egun batez lurra elhurez kukutia zen eta arailtzeco horma bat ari. Herrico yende guziac berotzen zauden yaten eta edaten ari zielaric. Aberatxac eta urrusac ziren. Ilhundirian bi piaiant, hurruntic heldu zirenac guelditu nahi izan ziren lekhu hartan ceren eta hoztiac eta gosetiac beitziren. Yo zuten bortha batian, guero beste batian eta oraino beste zombaitetan. Nihorc etziuzten sartzera uzten ez eta deus yatera emaiten. Orotaric kasatiac, sakhur samur batzuez seguitiac, bi estranyerac etzakiten norat yoan, noiz ere heriaren baztèrian khausitu beitziren guizon eta emazte probre hen etchiaren aitzinian. Hen plainiac entzunic, senhara emantzen leihuan oihu éguiteco eta emazia yoan zen fitechko bortharen idekitzera. Galdeguin gabe ere nor ziren, sar erazi ziuzten eta yar erazi suphazterrian, guero zerbitzatu zacoten esnia eta zombait gaztena, zuten guzia. Bainan ordian, gure Yincoa, hura zen yodoni Bethiriekín – chutitu zen buria dirdirantic eta eran zacoten: “Ziec pobriac zizte bainan onac, zien auzoac aberatxac dira, bainan gachtuac. Jincoaren yusticia eguina izan dadiela! Orduian berian lurra ikharatu zen, yésus eta yodoni Bethiri galdu ziren eta bi zaharrac eman ziren belaüco. Bihamun goizian, noiz ere herrirat yoan nahi izan beitziren, yakitera zer pasatu zen, etzuten etche bihiric ikhusi: hen lekhuian bazen ur handi bat egun oraino khaüsitzén dena Barbazaneco herriaren eta Saint-Bertrand de Commingeco herriaren artian. Behar dia maleusac sokhoritu.

oOo

Tantugou oihanetan gordatzen den guizon bat da. Landac, pentciac zaintzen ditu deusic ebatx ez dezaten. Noiz ere oguiac phikatiac beitira eta belhara ebakia, nausiac denac sar artio Tantugouc ez du loic eguiten, bethi zain dago. Aguer dadin beldurac atchikitzen ditu ohoinac. Pherestia da, sinhesten ahal nuzu, bainan bacha da. Hanitz gauça zakien laborari batec eraiten zin bere semer, Tantugou zela segurki lurreco fruitien zain zalerik hobena.

Uztailaco aratxalde batez, arthalde bat alhazen mendi batian eta artzaina loac hartu zen. Iatzartziarekin, ikhusi zin Tantugou ihex eguiten oihanerat. Ezagutia izan zen ere aberezain batzuez, erephea poillit batian, harroca batian etzana. En oraino, Bachenabarreco mendietaco herri batzuetan, haürrac haren beldur dira. Noiz ere mothico edo nescato ttipi batec ezbeitu nahi amari obeitu, eraiten dago: khasu eguic, oihu eguiten badagot Tantugouri, abian yinen duc oihanetic!

Instituteur: Ayphassorho, né à Gotein-Libarrenx le 16 8bre 58
Coll.: Harismendy J., Iriberry, Cadet

AYHERRE / AIHERRA

(Canton de Labastide-Clarence)

Population: 1490

Diila aspaldi, bazi-in Pyrenetaco herri batian guizon bat eta emazte bat arras zaharrac. Etche ttipi bat, baratze bat eta behi bat bezic ez zuten. Bainan launtzen zuzten berac beno pobriocoac. Eun batez, lurra elhurrez cucutia zen eta horma handi bat zen. Herrico yende guziac berotzen zi-in yatia-akin eta edatiaakin. Aberas zi-in eta urus. Eun batez, bi piayant, urrundanic heldu zi-inac, nahi izan ziin guelditu lecu hartan, zeren eta hotz eta gosiac baitzi-in. Yo zuten bortha bat, guero bertze bat, eta guero bertze zombeit. Nihorc ez zitien sar arazi nahi eta yaterat eman. Orotaic casatiac, zacurrez hersatiac, bi piayant hec ez zakiten norat yuan. Orducotz herria-an beste bazterrian zi-in, guizon eta emazte pobre heen etchia-an aitzinian. Aitzia-akin heen arrangurac, senarrac leihotic deithu ziti-in eta emaztia bortha-an idokiterat yuan zen. Galdegin gabe nor zi in, sar arazi zituzten eta su bazterrian yarrarazi. Guero eman zaccoten esnia eta gaztenac: ez zuten bertzeic. Bainan ordian, Yincoc –hura zen Yende Petiri-ikin- yaiki zen, buria dirdiran eta erran zacoten: zi-ic pobriac zi-izte eta onac; zi-in auzoac abaatsac di-i eta gachtuac. Yincua-an yusticia ina izan dadi-ila. Ordian lurra icaratu zen. Jesus eta Yendee Petiri ezeztatu zin. Guizon eta emazte zahar hura belhauncatu. Biharamun goizian, nahi izan zutenian yuan herrirat yakiteco zer guerthatuzen, ez zuten etche bihiric icusi. He-en lekian, ur batzen. Ur hua bera da, oono ere Barbazan deitzen den herria-an eta Bertrand de Comminges deitzen den hiria-an artian. Behar di-i malurusac lagundu.

oOo

Tantugou da guizon zahar bat gordetzen dena oihanian. Zaintzen ditu landac eta pentziac deus ez dezaten ebax. Ogiac edo belharrac ebakiac di-inian, nausiac oro bildu artian, Tantugou ez da locartzen. Bethi guardia do-o. Ohoinac ha-an beldur di-i. Yakin zazu ona dela bainan basa. Gauza hanitz zaki-in laborari batec erraten zi-in maiz bere semer Tantugou zela segurki lureco fruitien zainzaleric hoberena.

Uztaileco axalde batez, ardi tropa bat alha zen mendi batian; artzaina locartu zen: iatzartzia-akin, icusi zi-in Tantugou, oihanerat ihes eguiten. Ezagutu zuten ere artzain batzi-ic, zelhai eder batian, etzana harroca baten gainian.

Oono ere, Pyrenetaco herri batzi-itan, haurrac ha-an beldur di-i. Muthico edo neskato tipi batec obeditu nahi ez di-inian amari, erraten daco amac: Guardia emac! Ekarrazten diat Tantugou! Behala yi-in duc oihanetic.

Instituteur: Berterêche, Jⁿ B^{plc} - 31 ans, né à Itxassou, B.P.

Coll.: Etchecopar, 75 ans, Diron Etienne, 78ans.

BRISCOUS / BESKOITZE

(Canton de Labastide-Clairence)

Population: 1519

Barbazaneco ichtoriaua Bescoitzeco herrico lenguyan

Lehen baziutzun Pyrenetaco herribatetan gizon eta emazte bat biziki zaharrac. Etzitzien etche ttipi bat, baratze bat eta behi bat bezic. Bainan hain pobre izanaatic laguntzen zitzen bethi berac bano pobriago zienac. Egun batez lurra elhurrez estalia zuzun eta horma ari harriac erdiratzeco phunduraano. Herrico yende guziac berotzen ari ziutzun yanez eta edanez; abats ziutzun eta urus. Ilhun bazterrin, urrundanic heldu zien bi piayant nahi izan ziutzun gelditu toki hartan, zeen hotz eta gose baitzien. Yo zizien bortha bat geo bertze bat eta bertze batzu oono: nehoc etzitzien utzi nahi ukhan sartzea ez deus eman yatea. Casatuyac orotaic, segituyac chakhur borthitz batzuyez, bi arrotzec etzakizien noat yuan khausitu zielaic herriaan bazterrin gizon eta emazte pobre heyen etcheco bortha aitzinian. Aitziakin heyen plainuyac senharra yali zuzun leihoa, heyerri oiheu eitea eta emaztia yuan laster borthiaan idekitea. Galdein gabe nor zien, sarraazi zitzen eta yarraazi been suphasterrin: geo eman zacotzien esnia, zonbait gaztena, ziuzten guziac. Bainan orduyan Yinkua – hua zuzun Yondoni Petriikin- yeiki zuzun buruya arras distian eta erran zacozien: “Ziec pobre zizte eta on, zien auzuac abaats tutzu eta gaichto“. Behaala lurra ikhaatu zuzun; Yesus eta yondoni Petri itzaldu ziutzun eta bi zaharrac erori belhaunco...

Bihaamun goizin, nahi izan zienin yuan herrirat yakiteco ze phasatuzen etzitzien ikhusi etche bat ere: heyen lekhuyan bazuzun hur tulunbio handi bat. Oono egungo egunin Barbazaneco herriaan eta san-Bertran-Comminyekuaan artin khausitzen dena.

Maluusac behar die soleitu.

oOo

Tantuguren ichtoriaua

Tantugu duzu oihanetan gordetzen den gizon zahar bat. Zaintzentizu landac eta phentzic nehoc ezdezaten deusic ebats. Ogiac phikatuyac dienin edo belharra segatuya, denac nausiac barnerat eman artin, Tantuguc ezdizu batee loic eiten, bethi iatzarriic doozu. Hua agertuco delaco beldurrac zaintzentitzu ohoinac. Onauzu, sinetsazii, bainan salbaya. Anitz gauza zakiin laborari batec erten zizun maiz bere semerri, Tantugu zela seurki lurecco fruituyen zaintzaleic hobeena.

Uztaileco atsalde batez ardi tropaat alhatzen zuzun mendi baten gainin, artzaina lokhartu zuzun. Iatzartzian ohartuzuzun Tantuguc ihes eiten ziela oihaneco aldeat. Ezautuya izan zuzun oono artzain batzuyez, haran poillit batetan etzana harroca baten gainin.

Egungo egunian oono Pyrenetaco zonbait herrietan, haurrac harren beldur diutzu. Muthico ttipi batec edo nechkatoco ttipi batec ezdienin obeitu nahi bere amai, hunec erten dacozu: Khasu hiri! Oiheu eiten dacoyat Tantuguri eta ichtantin yienduc oihanetic!

Instituteur: Jauréguiberry, trente ans, né à Jaxu (B. Pyrénées)

Coll.: Dourisboure, 65 ans.

ISTURITZ / IZTURITZE

(Canton de Labastide-Clairence)

Population: 521

Barbazaneco hichtorio chaharra

Baciren demboran Pyrénétaico herri batean guição bat eta emazté bat biciki çaharrac. Ez çuten etche ttipi bat, baratcé bat eta behi bat baicic. Bainan nahi beçain pobriac içanic éré, laguntcen cituzten bethi berac baino pobréaguac. Egun batez, lurra estalia cen elhurrez eta horma ari cen carrascaz. Herri hartaco yende gucia berotcen cen yanez eta edanez; aberats ciren eta ourus. Ilhun cerratcean, bi pasayant ourroundanic heldou cirenac guelditu nahi içan ciren leku hartan, ceren gosé eta hotz baitciren; yo çuten bortha bat, guero bertce bat eta bertce çombeit oraino: nehorc etcituen utci nahi içan sartcerat, ez eta deusic eman nahi içan yatera. Orotaric casatuac, seguituac chakhur gaichtoès, bi arrotcec etcakiten norat yoan, noiz eta éré causitu baitciren herri haren basterrean, pobreac çirelaco guição eta emazte heien etchearen aiticnean. Heien plainuac ençutearekin, senharra eman cen leihoan, heien galdeguiteco eta haren emaztea yoantcen fité bortharen idokiterat. Galdeguin gabe heia nortciren sarrarasi cituzten eta yarrarasi béré suphazterréan, guéro serbitçatu ceten esnea eta çombeit gazténac çuten gucietaric. Bainan orduan Yésus Chrichto hura cen yondoni Bettirirekin, chutitu cen, buru gucia dirdiran eta erran ceten: Ciec pobreac ciezté eta onac, cien auçoac aberatsac dira eta gaichtoac Yaincoaren yusticia eguin bedi. Berehala lurra ikharatou da, Yésus eta Bettiri galtcen dira eta bi chaharrac emaiten dira belhauninco. Biharamun goicean, noiz eta éré yoan nahi içan baitciren herrirat, yakiteco ce phasatu cen ezçuten ikusi etché bihi bat heien plaçan nasa bat cen, Barbazaneco herriaren eta San-Bertrand Comminjaco hiriaren artean oraino egungo egunian causitcen dena. Behar dira malurusac lagundu.

Tantugouren historio chaharra

Tantugou guição çahar bat da oihanetan gordatcen dena. Beiratcen ditu landac eta phentceac deus ere ebats ez deçaten. Oguiac phicatuac direnean edo belharrac ebaquiuc, guçiuc nausiaz bilduac içan artean Tantugouc ez du loric batere eguiten; bethi guardian dago. Haren aguer dadin beldurrac beiratcen ditu ohoinac. Ona da sinhets atçué, bainan basa da. Laborari batec çoinac baiçakien gauça frango cion ardura bere semer Tantugou cela segurki lurreco fruituen guardiariric hoberenac.

Ouztaileco hilabethean eguerdi ondo batez, ardi tropa bat alha cen oihan batean; artçaina lokhartu cen iratçartcean ohartu cen Tantugouri coinac ihes baitçohan oihaneraco aldérat. Bardin eçagutua içan cen, behi ceinez aphaltune poillit batean etçana harroca baten gainean.

Oraino egun Pyrénéco herrichca batçuetan haurrac haren beldur dira. Muthico edo nechcato ttipi batec obeditu nahi ez duenean bere amari erraiten dio “Guardia emac deitcen diat Tantugou eta berehala yinen duc oihanetic.

Instituteur: Sallaberry, J., 26 ans, né à Ustaritz (B.P.)

Coll.: Haramboure, Pierre, propriétaire.

ASCAIN / AZKAINÉ

(Canton de Saint-Jean-de-Luz)

Population: 1225

Baciren lehenago Pyrenetaco heri batian guignon bat eta emasteki bat hanitz çaharac. Ex çuten etche tiki bat, baratce bat eta behi bat baicic. Bainan hain beharac ciren aren, laguncen citusten bethi beharagoac. Egun batex lura estalia cen elhurrez eta horma cen arailagaria. Herico yende guciac berotcen çagocin, yaten eta edaten çutelaric; aberats eta urus ciren. Ilhun nabarian, bi piayant, urundic heldu cirenak, nahi içan çuten guelditu toki hartan, ceren hotz eta gose baitciren; yo çuten athe bat, guero berce bat eta berce batçu oraino, nihorc ez cituen nahi içan sarcerat utci, ez deusic yaterat eman. Gucietaric cassatuac, chacur borthitcez seguituac bi piayant arotcec ez çakiten norat gan, noiz eta ere causitu baitciren heriaren basterian, guignon eta emaste behar horien etchiaren aiticnian. Hekien dolamenac aditciarekin, senhara athera cen leyhora oyhu eguiteco eta emastea gan cen laster athiaren idekitcera. Galdetu gabe nor ciren, sararaci citusten eta yararaci suphasterian; guero eman cioten esnia eta cembeit gastain, cuten gucia. Bainan orduan Gure Salbatçailia –hura cen Yondoni Petriekin, chutitu cen buruac disdiratcen cioelaric eta eran cioten: Çuec beharac çarete eta onac; çuen auçoac aberatxac dire eta gaistoac. Yaincoaren yusticia eguin dadiela. Berehala lura ikharatu cen, Yesus eta Yondoni Petri sunsitu ciren eta bi çaharac erori ciren belaunico. Biharamun goician, nahi içan çutenian gan herirat cer guerthatu cen yakiteco ez çuten ikusi etcheric batere. Hekien tokian cen putçu bat, çoina causitcen baita egun ere Barbazan heriaren eta Saint-Bertrand-de-Comminges heriaren artian.

Behar dire beharac lagundu.

oOo

Tantugou da çahar bat gordetcen dena oyhanian. Çaintcen ditu landac eta sorhuac, deus ex deçaten ebatz. Oguiac eta belharac phicatuac direnian, guciac nausiac sarthu arte Tantugou ez dago lo; çain dago bethi. Hura aguercen ikhusteco beldurac ohoinac atchikitcen ditu, ona da, sinhetz çaçu, bainan salbaya da. Laborari batec çoinac baitcakien hanitz gauça, eraten cion maix bere semeari Tantugou cela segurki lureco fruituen çainçale hoberena.

Ustailaco aratxalde batez ardi arthalde bat alhatcen cen mendi batean; arçaina locartu cen; atçarciarekin ikusi çuen Tantugou ihesi çoala oyhanerat. Eçagutua içan cen arçainez haran puillit batean etçana haroca baten gainean.

Oraico egunian ere, Pyreneco cembeit heritan haurec haren beldura badute. Noiz eta ere mutico tiki batec edo nechca tiki batec ez baitu nahi obeditu bere amari, eraten dio Gardia emoc! Oyhu eguiten du Tantugou eta berehala ethorico da oyhanetic.

Instituteur: Lescarbours, âgé de quarante-un ans, né à Labastide-Villefranche (Basses-Pyrénées).

Coll.: M. Berterrèche Laurent, instituteur en retraite
Observations (inutiles peut-être pour le travail demandé).

En orthographe basque le *z* répond au son du *ce* ou *s*. On a généralement renoncé au *ç*; mais le basque a un autre *s* nommé rude, que le français ne connaît pas. D'après ces principes, *Gasteluzar* est écrit d'une manière fautive attendu que les Basques prononçons *Gaztelu* et non *Gastelu*. Cette manière d'écrire pour être justifiée au point de vue étymologique *Gasteluzar* (vieux fort) formait le premier chaînon d'une ligne de défense formée par les Basques, contre les attaques des Francs et dont on a trouvé les traces jusqu'à St-Jean-Pied-de-Port (Basses-Pénées), en arrière d'obstacles naturels. Or, le mot *Gasteluzar*, vient évidemment du latin *castellum*. En un mot si *Gastelu* est mal orthographié au point de vue de la langue basque, il est régulier au point de vue étymologique (Duvoisin, capitaine des douanes en retraite).

BIDART / BIDARTE

(Canton de Saint-Jean-de-Luz)

Population: 1409

Baciren bertce orduz (demboraz) Pyrenetako herri batean guïçon eta emazte bat arras çahartuak cirenak. Ez çuten etche tiki bat beicik, baratce eta behi bat. Egun batez lurra elhurrez estalia cen, horma hari cen harriak berak arraitceco menian. Herriko yende guciak yaten, edaten eta berotcen hari ciren; urus eta aberats ciren. Ilhun nabarrean bi bidairante urhundik heldu cirenak, guelditu ciren herri hartan. Ecen gose eta egarri ciren. Athe yok ibilli ciren etchez etche. Nehork ez cituen sartceat utci nahi, nehork ez cioten yaterat eman. Egoitça gucietaik urhunduak (igorriak), çakur assaldatuez berez seguituak, bi kampotiarrak (bidairantak) ez çakiten norat gan, noiz eta ere kauusitu baitciren herriaren mugan, aiphatu ditugun guïçon eta emazte erromesen athe aintcignean. Heien errenkurak aditcearekin senharra pharatu cen leihoa eta deithu cituen eta haren emaztea gan tcen laster athearen idekitceat. Galdetu gabe nor ciren, sar-araci cituen eta yar araci. Gero eskaigni (eman) cioteiten esnea, gaztagnak eta cituzten guciak. Bagnan orduan Yesuchristo gure yauna (hura cen yondoni Petriekin) alchatu cen burua dichtiraduraz inguratua eta erran cioten: “Çuek erromesak çaizte baignan bihotz onekoak (onak). Çuen hauçoak aberatsak dire baignan bihotz gohorrekoak (tcarrak) Yainkoaren yusticia eguin dadiela! (cigorradak yauts didala)”. Bereala lurra ikaratu cen, Yesuchristo eta Yondoni Petri gorde ciren eta bi senhar emazte çaharrak belhauniko pharatu ciren.... Biharamun goicean herrirat gan nahi içan çutenean, Yakiteco cer gerthatu cen, etçuten etche bakar bat ikusi: Heien lekuan bacen ur égoitça çabal bat; oraïno egungo egunean ikus daitekena, Barbazango eta Saint-Bertrand-Commingesgo herrien artean. Behardire lagundu behardunak.

oOo

Tantugou da guïçon çahar bat oihanetan gordetcen dena. Caintcen ditu landak (ordokiak) eta sorhuak deusik ez deçaten ebats. Noiz eta ere oguiak eta belharrak pikatuak baidire nausiak hek sarthu arte, Tantugouk ez du lorik eguiten. Bethi atçarria dago. Hura ikusteco beldurrak urhuncen ditu ohoinak. Bihotz onekoa da (ona) baignan salbaiya (bicitcen ikasi gabea). Lur languille batek, gauça hanitz eçagutcen çuenak erraten çuen bere semeri, ez cela nihor Tantugou becin ontasan çaintçaille segurik.

Uztailleko arrats alde batez, ardizko arthalde bat iragaiten cen mendi gain batean. Artçaigna loharkatu cen: ihatçartu cenean, ikusi cuen Tantugou oihanari buruz ihesi çohala. Guise berean eçagutua içan tcen celaietaco artcain batcuez, etçana çagolarik harroka baten gainean.

Oraino egungo egunean, Pyrenetako cembeit herritan haurrak icitcen ditu. Noiz eta ere mutiko edo nechka tiki batek ez baitu bere amaren errana egin nahi, amak errate dio: “Kontu emak! Deithuko diat Tantugou, eta berehala ethorriko duk oihanetik.

Intituteur: Bousquet; 28 ans, né à Urrugne (B.P.)

BIRIATOU / BIRIATU

(Canton de Saint-Jean-de-Luz)

Population: 548

Bacien lehenoo Pyrenetaco herri batian guizon bat eta emastequi bat arras caharrac cienac. Ezuten etche ttiqiu bat berceic, baatce bat eta behi bat. Bagnon, hain pobre izanique, socorricen ciusten hec bago pobrio cienac. Eun batez, lurra elurrez estalia cen, eta orma eiten çuen arria arraillaceco. Herrico jende guciac berocen ai cien, jatian eta edatian, aberats eta urus cien. Ilhun aarrian, bi piaient urrundic heldu cienac, leku artan guelditu nahi izan zuten, ceren hotz eta gose baizuten; yo zuten ate bati, guero berce bati eta oogno berce bazueri: nioc etzituen utzi nai sarceat, ez deusic eman nai yateat. Casatuac gucietaic uiatuac sakur amurratuz, bi estranyerec etzaquiten noat gan, causitu cienian herriaan akanzan, guizon eta emazte pobre cien eien etchian aitzinian. Aitziaquin equien errenkurac, senarra eman cen leiuan ekien deitceco, eta arren andria gan cen laster atian idequitcea. Galdatu gabe eier nor cien; sarreci zusten eta yarraci beren supasterrian; guero cerbizatu ciozten esnetic eta castagna bazuec, zuten gucia. Bagnon orduan, Gure Jauna –ura cen Jondoni Petriquin – alchatu cen, burua dena distiranta, et erran cioten: “Zuec, pobriac zaezte eta onac; zuen auzuac abatsac die eta gaistuac. Jincuan justicia ein daiela!”. Orduan berian lurra icaratu cen, Jesus et Jondoni Petiri esestatu cien eta bi zaharrac erori cien belhaunico... Bihamun goician, herriat juanahi izatu cienian, jaquiteco zer pasatu cen, etzuten icusi etche bihic: heien plazan bacen ur bildu bat; zoina causicen baita oagno Barbazaneco herriaen eta Saint-Bertrand-de-Commingeco hiriaen tartian. Behar die laundu malusac.

oOo

Tantugou zahar bat da oihanetan gordecen dena. Zaincen tu landac eta sorhuac deusic ez tezaten an eats. Oguiac picatuac dienian edo belarra picatua, dena nausia eraman izan arte, Tantugouc ez tu bate loic eiten; beillan do beti. Beldurrac ua icustiaz aguercen achiqicen tu ohoinac. Ona da, sinhes zazue, bagnon basa da. Laborari batec zaquisquinac asco gauza erraten zuen mais bere semeri Tantugou seurqui lurreco fruituen zainzaleic obeena zela.

Uztailleco ilateco aatsalde batian, ardi tropat alha zen mendi batian; arzaina locartu cen: iarzaziaquin, aperceguitu zuen Tantugou ihes ai zoala oihaneco parteat. Ezautua izatu zen igual arzaines errepira pullit batian etzana arroca baten gainian.

Oagnic egun, Pyrenetaco zombeit erritan, haurrac arren beldur die. Muttico ttiqiu batec edo nechca ttiqiu batec eztuenian obeitu nai bere amari, erraten dio: Guardi emac iri! Deitzen diat Tantugou eta, instantian etorricouc oihanetic.

Instituteur: Bonnet, 38 ans, né à Urcuit (B. P.)

CIBOURE / ZIBURU

(Canton de Saint-Jean-de-Luz)

Population: 2314

Barbazango khondera

Bertze orduz baziren Pyrénées-tako herichka batean senaremazte batzu zaharkituak. Etche ttiki bat, baratze chume bat aldean eta behi bat ziren heikien ontasun guzia. Nahiz aurkhitzen ziren beharrak laguntza ematen zioten berak baiño beharrago zireneri. Egun batez lurra estalia zen elhurrez eta hormak, errana den bezala, arailatzen zituen harriak. Herichka huntako yende guziak berotzen zauden janez eta edanez ahal zuten guzia; aberats ziren eta zorion. Gaü haren sarreran hurrundik heldu ziren bi bñaiantek nahi izan zuten lekhu hartan trikatu hotz eta gose zutelacotz; hemen jotzen dute athe bat, haratago bertze bat eta bertze haiñitz oraiño: nehork ez zioten ideki ez eta ere deusik yaterat eman. Alde guzietarik ohilduak, zakhur tzar batzuek jaraikitzen zitzaizkotela, bi bñaiant haukiek ez zakiten norat gan, noiz eta ere khausitu baitziren hirietako hegjan, aurkitu ziren aiphatu senaremazte hekien etchiaren aitzñean. Berehala senarrak aditu zutieneko haukien hauen-miñak agertu zen leihorat haukien bere etcherat deitzeko eta emaztea ordu berean gan zen athearen idekitzerat. Bathere galdetu ere gabe nor ziren sarharazi zitusten barnerat eta yar harazi su pasterean; gero eman ziotzaten esne beroa eta zombait gaztaña, etchian ordu hartan zituzten yanarri bakharrak. Orduan Gure Yauna –ezik hura zen Jondoni Piarresekin,- chutitu zen burua iguratua dichtiradura miragarri batez eta erraten diote: “Zuek beharrak zaiste, baiñan yende onak; aldiz zuen hauzoak aberats eta tzarrak. Yainkoaren zuzentasunak egin beza bere bidea.”Ordu berean lur ikharra yauzi zen eta Yesus eta Piarres suntsitu ziren; bi zaharrak aldiz belhauniko ahuspez lurrerat erori ziren... Biharamun goizean, noiz eta ere abiatu baitziren herrirat yakitekotzat zer iragan zen, ez zuten han ikhusi gehiago etcherik eta haukien orde aurkhitzen zen intzurra handi bat, gaurko egunean aurkhitzen dena oraiño Barbazan-go herichkaren eta Saint-Bertrand-de-Cominges-co hiriaren artean.

Bethi lagundu behar dire zorigaitzezkoak.

oOo

Tantugou da gizon zahar bat oihanetan gordetzen dena. Begia atchikitzen diote landa eta sorhueri handik ez dezan nehork deusere ebats. Ogiak eta belharrak ebakiak direnean, yabeak hek denak barnean sar detzan arte, Tantugouk ez du lorik batere egiten. Bethi atzarria dago. Haren nonbeitik atheratzen ikhusteko beldurrak berak hurun atchikitzen ditu ohoiñak. Siñets azue hau, arras ona da berenaz baiñan basatiara da. Bazteretchar zahar batek, zoina baitzen yakinsunik handienekoa, maiz aski eraten zioten bere semeeri, Tantugou zela egiazki lureko fruituen zaiñtzalerik oberena.

Uztailiako aratsalde eder batez artzaiñ bat lo dorphe batek hartu zuen bere arthaldea halatua zaukan denboran mendi baten gaiñean. Betbetan atzartzen da eta horra non ikhusten duen Tantugou ihesi dohala oihaneko alderat. Alaber denbora pertsuan ezagutua izan zen bertze artaiñ batzuek zelai puillit batean aroka baten (aldean) gaiñean ertankara etziña.

Gaurko egunean ere Pyrénées-tako hirichka zombeitetan haurak haren beldur dire. Mutiko edo nechka ttiki batek ez duenean bere ama obeditu nahi, ez duenean hunek errana egin nahi eraten dio: “yakin zak haü ez bauk nik errana berehala egiten, Tantugouren deitzerat nihoak eta laster ethorriko duk hire billa oihanetik”.

Instituteur: Ahetz-Etcheber, né à S^{te} Engrace le 9 Mars 1851.

Coll.: Haramboure, Bessan, Lameur

GUÉTHARY / GETARIA

(Canton de Saint-Jean-de-Luz)

Population: 585

Barbazanco erran zaharra

Bacen bertce orduz Pyrenetaco herri batean gizon bat eta emaste bat hainitz zahartuac. Ez zuten etche ttiqui bat, baratce bat eta behi bat baicen. Bainan nahi baicen probiac izanic ere socorritcen cituzten bethi hec baino probiagio cirenac. Egung batez, lurra estalia zen elhurrez eta horma eguiten zuen harriac arraildu arte. Herrico yende guciac berotcen hari ciren, yatian eta edatian, aberatz ciren eta urus. Ilhuncian, bi piyayant heldu cirenac urrundic, nahi izan zuten guelditu toqui hortan, ceren hotz eta gose baitciren; yo zuten athe batian, guero bertce batian, eta oraino bertce batzuetan. Nihorc ezcituzten sartcerat utci nahi izatu. Casatuac orataric, chakuac gaichtoez perseguituac, ez zaquiten bi estranyerec norat gan, causitu cirenean herriaren bertce basterrean guizon eta emaste probe hoiquien etchearen aiticnean. Aditcen hoiquien plaïgnuac, senharra emancen leihuan deitceco eta haren emastea ganzen laster athiaren idequitcerat. Galdetu gabe norciren, sararaci cituzten eta yaraci beren suphasterrian; guero cerbitzatu ciozcaten esnia eta gaiztaïgnac, cituzten guciac. Bainan Gure Yauna, ceren huracen Yondoni Petrirequin, chutitcen da, burua distirantic eta erraten diote: “Zuec pobriac zaresta eta onac, çuen haüzoac aberatsac dire eta gaichtoac. Yaincoaren yusticia eguin dadila. Cuchian lurra ikaratcen da, Yesus eta Yondoni Petri desgusitcen dire eta bi zaharrac erortcen dire beelhaunico... Biharamunean, nahi izan zutenean gan herrirat yakiteco cer pasatu cen, es zuten ikusi etche bihibat: hequien plazan bacen lacua bat, egungo egunian hatchematen dena oraino, Barbazaneco herriaren eta San-Bertrand-Commingeco hiriaren artean. Malurusac, behar dire lagundu.

Tantuguco erran zaharra

Tantugu zen guizon sahar bat, oyhanetan gordetcen cena. Zaintcen cituen landac eta sorhuac, deusic ebatz ez cezaten. Oguiac edo belharrac phicatuac direnean, handic eta nagusiac denac alchatu arte, Tantugic ez dou loric eguiten, bethi atzarria dago. Tantiguren ikustearen beldurra atchiquitcen du ohoïnac. Ona da, zinets zazue, bainan salbaiya. Laborari hainitz gauza zakien batec, erraten zuen mais bere zemeru Tantugu cela segurki lurreco fruituen gardariric hoberena.

Uztailleko hilabetean, bascal ondo batez, ardi tropa bat mendiaren gainean alha cen; artzaina lokarcen da: artzarcean, ohartcen da Tantugu ihesi zohala oyhaneco alderat. Izancen higal ezagutua hazienda zain zales celhai puillit batean etzana harroca baten gainean.

Oraino egungo egunean zombeit herri Pirenetacotan haurrac beldur dire harentzat muthico ttiqui batec edo nechca ttiqui batec nahi ez dunean obeditu bere amari, harc erraten dio: Contu emac hiri! Oyhu eguiten cioyat Tantuguri, ichtant berean, ethorrico duc oyhanetic.

Instituteur: Payzan, 35 ans né à Livron

HENDAYE / HENDAIA

(Canton de Saint-Jean-de-Luz)

Population: 1979

Bacénn léhénago Pirénéétaco herri batiann guisson bat éta émastéqui bat çoïnac baïcirénac arras saharac. Ez çoutenn etché ttiqoui bat, baratcé bat, éta béhi bat baïcic. Bainann cémbat nahi pobré içann citénn, lagountcénn çouténn bëti hec bainonn pobréago cirénac. Egoun batéz lurra elhourrèz est'aliacéna, éta horma haï çouenn harriac arrailatcéco guïçann. Hérrico géndi gouçiac bérotcénn hari ciréna, jaténn éta édatenn çoutélaric; abératz éta hourous cirénn. Hiloun habarriänn, bi piyayantec hourroundic heldou ciréneç nahi içann çouténn guelditou lékhou hartann goce éta hotz çoutélacotz; tjo çutenn ate batiann, guéro bertcé batiann, éta oraïno bertcétann: nihorc ez citouenn sartcérat houtsi, ez éta héré tjatérat hémann. Egorriac toqui gouciétaric séguitouac sakhour fouriosés, bi estranyérrec ez çaquiténn norat jouann, noiz éta héré kaüsitou baïcirenn herriarénn bourouann pobre cire guïçonn éta émastéqui éhiénn etchéarenn aïcinéann. Aditcéaréquinn équiegn plagnouac, cennharra émann cénn leihouann éhiénn déitcéco éta harenn anndréa juatcénn laster atéa idéquitcérat. Galdétou gabé nor cirénn, çar haraci citousténn éta jar haraci çoucalde basterriänn; guéro cerbitçatou cioténn esnéa éta çémbéit gastagna çoutén goucia. Bainann ordouann, gouré jaüna –hura cenn Tjondoni Petrirequin, alchatou cénn, bouroua déna distiranta éta erraténn dioté: Çuèc pobréaç çaište éta onac; çouénn haöuçoac abératçac dire éta gaïstouac. Tjinnoöarénn tjousticia éguina içann dadiéla! Béréala lourra ikaracénn da, Tjéçous éta Tjonndoni Pétri çouncitou cirénn éta bi çaharac éroriçiegn belhaoünic... Biharamoun goïcéänn, nahi içann souténiann herrirat tjouänn, tjaquitéco cér passatou cénn, ézçauténn ikhouci etchéric batéré: ekiénn toquiann bacén our guéldi bat, çoïna kaöuciténn baïta gaöur oraïno Barbasango herriaren éta sänn Begnade Commingéco hiriärénn artéänn. Lagoundou behar dire erroméçac.

oOo

Tantugou da çahar bat gordetcénn déna égourréänn. Saintcen ditou landac éta sorhouaç ez déçatenn déouçic ébatz. Oguiac picatouaç édo belharra segatoua, naöuçiac denac sartou artio Tantugou ez da loharcatcen; bëti erné dago, ogognac idoquiäc dire hora aguertcéco béldourrez. Ona da sinets çaçoué bainann salbaya da. Gaoüça frango saquiégn laborari batèc erraténn çouénn mais béré sémééri Tantugou céla ségourqui lourréco frouïtouégn sainsailéric hobéréna bascal ondo batez, oustailéco ilhabétéänn ardi tropa bat tjaténn hari cénn méndi baténn gainéann; artçaina loharquatou cénn: iharçarcéaréquinn, ikhousténn dou Tantugou escapatcen cela égourrénn aldérat. Orobat éçagoutoua içann cénn artçainèz chabaldégui pollit batéänn etcinndouä arroca baténn gainéann.

Gaöur oraïno, Pirénéétaco çombait hérritänn haöurrèc harénn beldourra doute mutil ttiqoui batèc édo netchéa ttiqoui batec obéditou nahi ez douéniänn béré amari, hounec erraténn dio gardia hemaç! Déitcénn diat Tantugou éta ichtantiann etorrice duc égourréic.

Instituteur: Choubac, 29 ans, né à Montory (B. P.)

Coll.: M. Ansoborlo, Maire

SAINT-JEAN-DE-LUZ / DONIBANE LOHIZUNE

(C. de S.J.L) Population: 3831

Barbanzako erana

Belhalaco egunetan, Pirénetaco herrichka batean, baziren senhar-emaztekoa, arras zahartuac. Hekien izate guzia zen etche chumetto bat bere baratzearekin, eta behi bat. Bainan zembat ere beharrak baitziren, laguntza ematen zioten berak baino beharrago zireneri.

Halako egun batez, lurra elhurrez estalia zen, eta hari zuen horma bat harriak arailatzen zituena. Hango yendea berotzen zagoen, ongi janez eta edanez, hekiek aberats eta zoriondun baitziren. Ilhun nabarrean, bi arrotz bideant, hurrun danic zathortzinak, nahi izan zuten toki hartan baratu zeren gosiak eta hotzak baitzauden. Yo zuten athe batean, gero bertze batean, eta bertze batzuetan oraino. Nihork ez zituen sartzera utzi nahikatu, ez eta ere fitsic yaterat eman. Alde guzietaric ohilduac, zakhur gaistoak ondotik, bi arrotzak zabiltzan ez jakinez norat gan. Hola hola heldu izan ziren heriaren burura, aiphatu senhar-emazte beharren athera. Kampoko kuintak aditzearekin, gizona ilkhi zen leihora eta emazteak laster-egin zuen athearen idikitzerat. Galdetu gabe nor ziren sararazi zituzten eta supazterrean yarrarazi; eta gero eman ziozkaten esne eta zembait gastaina, zituzten guziak. Bainan orduan, Jesus gure Jauna, ezik hura bera zen jondoni Petriekin, chutitu zen, burua distirant eta erran zioten: “Zuek, zaizte beharrak, bainan barnez onak; zuen hauzuak aberats dire, tzarrak aldiz. Jainkoaren zuzentasunak egin dezala bere bidea!”. Ordu berean lur-ikarra jautsi zen: Jesus yauna eta Yondoni Petri galdu ziren bistatik eta bi zaharrak erortzen dire belhauniko.

Biharamun goizean, herrirat gan nahi izan zutenean, yakiteko zer gerthatu othe zen, ez zuten ikusi etche bihirik eta etcheen orde zen laco bat edo aintzira bat, hura baita egungo egunean oraino ikusten dena Barbanzaco herriaren eta San Bertran Comingoaren artean.

Behar dire beharrak lagundu.

oOo

Tantügou da gizon zahar bat, oihanetan gordetzen dena. Kontutzen ditu landak eta sorhuak ez dezatentzat handik deusik ebats. Ogiak eta belharrak phikatuak direnean, yabeak hek guziak barnean sarthuak ikus bizkitart, Tantügu ez da lo arkhutzen; bethi atzarria dago. Hura nonbaitik atheratuko delako beldurrak ohoinak hurrun atchikitzen ditu. Ona dela sinhets zazue bainan salbaya (basa) ere bai. Asko gauza zakien lur languille batek maiz eraiten zioten bere semeri, Tantügu zela egiazki lureco fruituen zaintzalerik hoberena.

Uztailaco aratsalde bat zen; arthalde bat bazkatzen zagoen mendi baten gainean, artzaina lokartu zen. Atzarri eta ondoan, ikusi zuen Tantügu oihaneko alderat ihesi zuala. Halaber denbora bertsuan, bertze artzain batzuek ezagutu zuten, zelhai eder batean, haroka

baten gainean etzana zaguela.

Gaurko egunean ere, Pyrenetaco herri batzuetan, haurrak izitzen ditu. Mutiko edo neska ttiki batek ez dioenian bere amari obeditu nahi, amak eraten dio: “Emak kontu! Oihu egiten diat Tantüguri, eta kuchian oihametik ethorriko duk!”

Instituteur: Ahetz-Etcheber, Bernard, 38 ans, né à Licq-Atherey
Coll.: Deluc, Jⁿ, B^{re}.

URRUGNE / URRUÑA

(Canton de Saint-Jean-de-Luz)

Population: 3831

Bertce ordutz, Pyrénetao herri batian, baciren guizon bat eta emaztequi bat arras çaharrac. Ez çuten etche chume bat, baratce bat eta behi bat baicic. Bainan hainitz ciren arren pobre, laguntzen cituzten bethi berac baino pobriagoac. Egun batez, lurra estalia cen elhurrez, eta horma hari çuen harriac arraitatceco heineraino. Herrico yende guciac berotcen hari ciren yaten eta edaten çutelaric: aberatx eta uroz ciren. Gaubaren hastian, bi pyayetaco presuna, urrundic heldu cirenec nahi içan çuten guelditu toqui huntan, ceren hotçac eta gosiac baitciren; yo çuten athe bat, guero bertce bat eta oraino bertce cembeit: nehorc ez cituen utci nahi sartcerat, ez deus ere eman nahi yateco. Igorriac gucietaric, huyatuac chacur gaiztoez, bi campotar horiec ez çaquiten norat guan; caustu cirenian herriaren buruan guizon eta emazte heyen etchiaren aitcinian, ceinec aditcen baicituzten hequien plañuac, senarra athera cen leyorat hequien deitceco eta emaztea guan cen berehala athiaren idequitcerat eta galdetu gabe nor ciren, sar araci cituzten barneat eta yar araci sukaldian; guero eman cioten esnia eta cembeit gatzaina, horiec ciren cituzten guciac. Bainan orduan J.C gure Yauna (hura cen Yondoni Petrirequin) alchatu cen, burua arguitua, eta erran cioten: çuec pobriac eta onac çazite; çuen hauçoac aberatxac eta gaiztoac dire, Yaincoaren justicia içan dadiela eguina. Berehala lurra ikharratu cen: Yesus eta Yondoni Petri esquisatu ciren eta bi çaharrac eman ciren belhaunico. Biharamun goician noiz ere guan nahi içan baitçuten herrirat yaquiteco cer berri cen, ez çuten ikusi etcheric batere; heyen lekuan cen ur lacubat, ceina causitcen baida oraino egun Barbazango eta san-Bertrand-Comminges coaren artian.

Bethi behar dire lagundu pobriac.

oOo

Tantugou da çahar bat gordetcen dena oyhanetan. Çaintcen ditu landa eta sorhoac deusere handic ez ebasteco; eta oguiac picatuac direnian eta belharrac segatuac, guciac nausiac barnerat bildu arteraino, Tantugou ez da batere lokartcen; bethi erne dago. Haren aguercea ikusteco beldurtasunaz, ohoinac ez dire atheratcen. Ona da, sinhetx çaçu, bainan salbaya da. Laboratory batec, çaquiena hainitz gauça, erraten çuen bere semieri, Tantugou cela segurki lurreco fruituen çainçalleric hoberena.

Uztailleco hillabetian, eguberdi onduan, ardi oste bat pasatcen cen mendi baten gainian; arçaina lokartu cen eta iratçarry cenian ohartu Tantugou ihesi çohala oyhaneco aldeat. Eçagutua içan cen orobat arçainez, haran eder batian etzana çagola harroca baten gainean.

Egun oraino, Pyrenetao cembeit herritan, haurac haren beldur dire. Noiz eta ere mutico chume batec edo nesca chume batec ez baitu obeditu nahi bere amari, hunec erraten dio: Contu emac, deitcen diat Tantugou eta berehala ethorrigo da oyhanetic.

Instituteur: Espelette, 26 ans, né à Haux (canton de Tardets)

Coll.: M.M Haira et Labarière

URRUGNE (BÉHOBIÉ) / URRUÑA (PAUSU)

(C. de S.J.L)

Population: 664

Bacien lehenago Pyrenetaco herri batian, guizon bat eta emastequi bat arras zaharrac cienac. Ezuten éché ttipi bat berçeic baatce bat eta béhi bat. Bagnan hain pobre izaniqueré socorricen çitusten heyec bagno pobre cienac. Egun batez lurra élurrez estalia cen, eta orma éguitecuen arria arraitçeko. Hérrico yendé guciac bérocen ay cien, yaten et ératen, aberatz eta urus çien. Hilhun arrian bi piayazaillé urrundi heldu cienac leku artan guelditu nahi izatuzuten, çein, hotz eta gosé baizuten, yo zuten até batian guero bercian, ba eta berçe bazuetan, niok ézituzten nahi zarcen uzi, eta ez deusic yaten emannay. Egoriac dénétac eta sangatuac sakur amurratuez, bi estrandeye oriec ezakiten noat gan. Arribatun siènian erriaren akabanzat, guizon eta emastéqui pobre orien éché hanzinian, ayhuen playgnoac ayturic, senarra emanzen leiyuan, aiyeri huyu éguiteco, eta andria gançen beiyala atia irekiseat, galdetu gabé nor cien, yarraci situsten ben supasterria, guero emansioten eznia eta gastan basuec, situsten guciak. Bagnon orduan bérian Gure Yauna “ura bacen Yondoni-Petriquin”. Alsatun çuen burua dena distirantirik eta eran çioten. Zuec pobriac eta onac sasté, eta zuen ayzuac abérazac eta gastuak diré, Yincoac yusticia éguin daiyela. Démbora bérian lurra hicaratu cen, Yesus eta Yondoni-Petri gan cien eta bi zaharrac érori belhaunico. Bihamun gocian izatu nay suténia gan errirat zer pasatuzen, ezuten ikisi éché bat, ben tokietan, hein plaçan bacen ur gueldi bat zoinac orayere Barbazaneco herriaren eta Saint-Bertrand-de-Commingeco hiriaren tartia bayta.

Beardiré lagundu malhuruzac.

oOo

Tantugou da guizon zahar bat oyanetan gordecen dena, zaincen tu landac eta sorruac deusic es dezeten ébazi. Oguia picatua dénian edo belharrac picatuac nauziac isanarté denac éremanac Tantugou es tu loic iten, béti beillazen dago. Beldurez ura aguerzia achikasten tu ogognac. Onada sinhes sasuez bagnon salbayada. Laborari batec bay bayzakien gausa franko erraten çuen berri semieri, Tantugou zela lureko fruituen gardazalé onena. Uztailleco illeteco asalde batez, hardi tropa bat pazatuzen mendi bateat. Arzaina lohacartu cen iyazar ciarekin ikusi suen Tantugou iguesi zuala oyanen alderat. Ezautua izatun cen arzaines errepila pullit patian etzana arroca baten ganyia. Ora éré Pyrenetaco zombeit erritan haurrac arren beldu diré Mutil ttiqui batec eta nechca ttiqui batec estuenia nay obéditu bére ama errantendio contu emac iri deitzen dia Tantugou, eta istantian étorrikoc oyanetu.

Instituteur: Cazebonne, 26 ans, né à Espiute
Coll.: Claverie

AHETZE / AHETZE

(Canton d'Ustaritz)

Population: 549

Gure tokietako herri batean baziren denboraz guizon eta emazteki bat arraz zaharrak zirenak. Ez zuten etche ttiki bat, baratze bat eta behi bat baizik, herri hekien izaite guzia. Bainan, nahiz behar ciren, berak baino beharrago cirenak sokorritzen zituzten bethi. Egun batez, lurra estalia zen elhurrez eta horma bat hari zuen harriak berak zartarazterainokoa. Herri hartan oro beroki zaotzen su ondoan, ongui yan eta edaten zutela, aberatz eta uros ciren hek. Arrast apalean, urrundik heldu ciren bi bideantek nahi izan zuten toki hartan guelditu, ceren eta hoztuak eta gosetuak baitziren; hasi ziren athe bati yo? bertzeari yo, asko atheri haitu ziren yoka: nihork ez zituen utzi sartzen deusic ere ez zioten eman nahi yatera. Denetarik kasatuak, herriko zakhur guziak saingaz guibeletik, bi arrotzek ez zakiten norat guan, noiz eta ere aurkhitu baitziren herriaren azken mugan, guizon eta emazteki behar hekien etchearen aitzinean. Hekien oihu saminak aditzearekin, guizona badoha leyhora eta emaztekoa lasterka athearen idekitzerat.

Galdeguin gabe nor zitezkeyen, sarrarazten tuzte eta su ondoan yarrarazten; guero zituzten guziak eman ziozkaten yatera, esne eta gaztaina. Bainan orduan Yesu-Christo gure yauna, ezin hura bera zen yon doni Petriekin, chutitu zen burua argui distirant batez inguratua eta erran cioten: Zuek pobreac zaiste eta onak; zuen haüzoak aberatsak dire, bainan gaüstoak. Yainkoaren yustizia eguin bedi. Orduan berean, lurra ikharatu zen, Yesu-Christo eta yon doni Petri ezeztatu ziren eta bi zaharrak belhaüniko erori ziren. Biharamun goizean, herrirat nahi izan zutenean guan, etcherik batere ez zuten ikhusi. Hek ziren lekhu guzia estalia zen ur hil batez. Ur hil hura da oraino ikhusten Barbezan deitzen den herriaren eta Saint Bertrand de Commingeko hiriaren artean. Yende beharrak behar dire sokhorritu.

oOo

Tantugou guizon zahar bat da, oyhanetan gordetzen dena. Zaintzen ditu alhor eta pentzeak, nihork hetan ez dezan deusik ebats. Oguiak edo belharrak pikatuak direnean, Tantugouk ez du lorik batere eguiten, bethi erne dabila, naüsiak denak altchatu arterainokoa. Nondik aguertuko zaïoten Tantugou badaüde ohoinak, eta beldur horrek beiratzen tu ebastetik. Zinez, guizon ona da Tantugou, bainan guizon asprea. Asko zakien laborari batec zioten maiz bere semeeri Tantugou zela lurreko fruituen zaintzale hoberena.

Uztaileko arratsalde batez, ardi arthalde bat alan zagon mendi gain batean, artzaina lokhartu zen, iratzartzearekin ikhusi zuen Tantugou ihesi oyhanari buruz zohala. Zelhai eder batean higoal ezagutua izan zen Tantugou artzainez, harroka baten gainean etzana.

Haren beldur dire oraino haürrac gure tokietako herri zombaitetan. Muthiko batec edo nechka batec ez diotenean nahi amari obéditu, haürrari erraten ohi du amak: Goardia emac! Deitzen diat Tantugou eta, kuchean, ethorriko duc oyhanetik.

Instituteur: JB^{te} Marot, âgé de 40 ans, né à Hélette (Basses-Pyrénées)

Coll.: Dufau Salvat, Maire.

ARBONNE / ARBONA

(Canton d'Ustaritz)

Population: 800

Baciren lehenago, Pyreneko herri batian guizon eta emaste batzu arras zaharrak. Etzuten etche ttipi bat, baratce bat eta behi bat baïcik. Bainen, nahis beharrac ciren, laguntzen citusten bethi hec baino beharrago cirenak. Egun batez, lurra elhures estalia cen, eta horma hari harriac arrailtceko. Herriko yende guciak berotcen ciren, yaten eta edaten hari cirelarik; aberatx eta urus ciren. Ilhun heguian, bi piyayant, urrundic heldu cirenac, nahi izan zuten guelditu lekhu hartan, hotz eta gose cirelakotz. Yo zuten athe bat, guero bertce bat eta oraino bertce batzuec: nihoc etcitusten sartzerat utzi nahi izan, ez deüsik yaterat eman. Kasatuyac orotarik, chakhur gaisto batzu ondolik, bi bidekariac etzaquiten norat yoan, heldu cirenean herriaren bururat, beharrak ciren guizon eta emaste heyen etchiaren ondorat. Hekien errenkurak aintziarequin, senharra emantzen leihoan hekien deitceco eta emastia laster eguin zuen athiaren idekitcerat. Galdatu gabe nor ciren, sarrarazi zituzten eta yarrarazi su pasterrian; eskaini ciozkaten yaterat esnia eta cembeit gastaina, zuten guzia. Bainen orduyan Salbatzailea –hura cen Yondoni Petirekin- yequi zen, buruya distirant, eta erran zioten: “Zuek beharrak eta onac zarete; zuen haüzoac aberatxac eta gaichtoac, zuzen dena eguin bedi!”. Hainbertcenarekin, ikharatu cen lurra, Salbatzailea eta Yondoni Petri ezetatu ciren eta bi zaharrak behaüniko eori. Biharamun goizean, yoan nahi izan zirenean herrirat, cer iragan cen yakiteko, etzuten ikusi etche bihirik, heyen lekhuyan estainubat cen, egungo egunian han berian kaüsitcen dena Barbazango herriaren eta Saint Bertrand de Comminges deitcen den hiriaren artian.

Behar dire sokhorritu eskasian direnak.

oOo

Tantugou da zahar bat oihanian gordetcen dena. Zaintzen ditu landac eta sorhoac deus ez dezaten ebatx. Oguiak eta beharrac pikatuyac direnean, nausiak oro barnerat eman artio, Tantugou ez da lokhartcen; bethi atzarria dago. Hura aguertcen ikhus beldurrak daüska ohoinak. Ona da, sinhetx zazue, bainen basa da. Asko gausa zakien laborari batek bere semieri erraiten cioten maiz Tantugou cela segurki lurreko bihien zäntzaile hoberena.

Ustaileko arratxalde batez, arthalde bat alha cen mendi baten gainean; artzaïna lokhartu cen: iratzartziarekin, ikhusi cin Tantugou oihanerat ihesi zohala. Izan tzen orobat ezagutua artzaïnes, haran eder batian, etzana harroka baten gainian.

Egungo egunian oraino, Pyreneko herri cembeitetan, haurrac haren beldur dire. Muthiko edo nechka ttipi batec, bere ama obeditu nahi ez duenian, erraiten dio: Kasu emac! Oihu eguiten diat Tantugouri eta, cuchian, yinen duk oihanetik.

Instituteur: Cazebonne, 28 ans, Espiute
Coll.: Borotra, maire

HALSOU / HALTSU

(Canton d'Ustaritz)

Population: 275

M. Duleau voudra bien faire aussi le travail de Halsou, en se faisant aider par l'instituteur.

Barbazango iphunya

Pireneetaco herrichka batean baziren lehenago guizon bat eta emazte bat, zaharkituac zirenac. Etzuten etche ttipi bat baizic, baratze bat eta behi bat. Bainan, zoin nahi beharrac baitziren ere, bethi laguntzen zituzten berac baino behartsuagoac zirenac. Egun batez lurra estalia zen elhurrez, eta horma hari zen harriac arrailtzera. Herrico guziac zauden berotcen, yaten eta edaten; aberats ziren eta zorionecoac. Ilhun nabarrian, bi bidezco, urrundanic heldu zirenac, nahi izan ziren herri hartan baratu, ecen hotz zuten eta gose ziren. Yo zuten athe batian, guero bertze batian, eta bai bertze batzuitan ere: Nehorc etzituin sartcera utzi eta etzioten yatera eman nahi izan. Alde orotatic guibelat egorriac, zakhur haserretsuc ondotic zarraizcotela, bi arrotzec etzaquitzen norat equin, noiz ere aurkhitu beitziren herriaren mugan, guizon eta emazte behartsuen etchearen aintzinean. Aditziarekin heyen oihu minac, senharra athera zen leihora heyen deitcera, eta hunen emaztea yoan zen athearen idekitzera. Galdeguin gabe berei nor ziren, sarrarazi zituzten eta yarrarazi beren su bazterrian; guero eman zioten yatera esnia eta gaztena zembait, zuten guzia. Orduan Gure Yauna (ezen hura zen Yondone Petirirekin,) chutitu zen eta buruac miragarriki distirutzen zioela, erran zaien: "Zuec beharrac zirete eta onac; zuen auzoac aberatsac eta gaichtoac dira. Eguin beza Yaincoac zuzen zaiona!». Ordu berian ikharatu zen lurra, Jesus eta Yon done Petiri suntsitu ziren eta bi zaharrac erori ziren belhaunico... Biharamun goizian, nahi izan cirenian yoan herrira, yakiteco zer iragan othe zen, etzuten etcheric bat ere ikhusi: heyen tokian cen aintzira bat, zoina aurkhitzen baita gaurco egunian ere Barbazanco herriaren eta San Betran Cominyeco hiriaren bitartian. Behar dira on-beharrac lagundu.

Tantuguren iphunya

Tantugou da guizon zahar bat oihanetan gordetzen dena. Beguiratzeintu lur lanthuac eta phentziac, ez dezaten hetaric deus ere ebats. Oguiac ebaquiac direnian edo belharrac ephainac; guzia yabiac bildua izan dadin artio: Tantuguc eztu loric eguiten, bethi iratzarria dago. Hura aguertcen ikhusteco beldurrac ohoinac guibelatcen ditu. Ona da bai, sinhets zazue, bainan basa da. Hainitz gauza zakien laborari batec erraiten zioten maiz bere semei, Tantugu zela eguiazki lureco uzten beguirale hoberena.

Uztaileco hilabethian, arrats alde batez, arthalde bat alha zen mendi baten gainian; loac hartu zuen artzaina: iratzartzearekin batian, nabaritu zuen Tantugu, ihes zohala oihaneco alderat. Orobat ezagutua izan zen abere zainec haran edertto batian, harroca baten gainian lo zagola.

Gaurco egunian ere, Pireneetaco herri batzuetan, haurrac beldur dira harentzat. Noiz eta ere muthicotto edo nechca bat nahi eztenian iarri bere amaren erranera, amac

erraiten dio. Beguirauc (beguirann)! Tantugu deitzen diat (dinat) eta berehala yinen duc (dun) oihanetic.

Instituteur: Catherine Lizon, S. M. Bathildis, Ste de M., qui a transcrit la transcription faite par M. Duleau

M. Duleau, 50 ans, né à Charritte de Bas
Coll.: S^t Jean, Maire.

JATXOU / JATSU

(Canton d'Ustaritz)

Population: 376

Barbazango iphunya

Pireneetaco herrichka batian baziren lehenago guizon bat eta emaste bat, zaharkituac zirenac. Etzuten etche ttipi bat baizic, baratze bat eta behi bat. Bainan, zoin nahi beharrac baitziren ere, bethi laguntzen zituzten berac baino behartuagoac zirenac. Egun batez lurra estalia zen elhurrez, eta horma hari zen harria arrailtzera. Herrico guziac zauden berotzen, yaten eta edaten, aberats ziren eta zorionecoac. Ilhun nabarrian, bi bidezco, urrundanic heldu zirenac, nahi izan ziren herri hartan baratu, ecen hotz zuten eta gose ziren. Yo zuten athe batian, guero bertze batian, eta bai bertze batzuitan ere. Nehorc etzituen sartcera utzi, eta etzioten yatera eman nahi izan. Alde orotatic guibelat igorriac, zakhur haserretsua ondotic zarrazcotela, bi arrotzec etzaquiten norat eguin, noiz ere aurkhitu baitziren herriaren mugan, guizon eta emaste behartsuen etchearen aintzinian. Aditziarekin heyen oiho minac, senharra athera zen leihora heyen deitcera, eta hunen emaztea yoan zen athearen idekitzera. Galdeguin gabe berei nor ziren, zarrarazi zitusten eta yarrarazi beren su basterrian; guero eman zioten yatera esnia eta gastena zembait, zuten guzia. Orduan Gure Yauna (ezen hura zen Yondoni Petirirekin) chutitu zen, eta burua miragarriki distirutzen zioela, erran zaien: “Zuec beharrac zirete eta onac; zuen auzoac aberatsac eta gaichtoac dira. Eguin beza Yaincoac zuzen zaiona!”. Ordu berian ikharatu cen lurra, Jesus eta Yondoni Petiri suntsitu ziren, eta bi zaharrac erori ziren belhaunico... Biharamun goizian, nahi izan cirenian yoan herrira, yakitera zer iragan othe zen, etzuten etcheric batere ikhusi: heyen tokian cen aintzira bat, zoina aurkhitcen baita gaurco egunian ere Barbazanco herriaren eta San Betran Cominyeco hiriaren bitartian. Behar dira on-beharrac lagundu.

Tantuguren iphunya

Tantugu da guizon zahar bat oihanetan gordetzen dena. Beguiratzeintu lur lanthuac eta phentziac, ez dezaten hetaric deus ere ebats. Oguiac ebaquiac direnian edo beharrac ephainac, guzia yabiac bildua izan artio, Tantuguc eztu loric eguiten, bethi iratarria dago. Hura aguertcen ikhusteco beldurrac ohoinac guibelatcen ditu. Ona da bai, sinhets zazue, bainan basa da. Hainitz gauza zakien laborari batec erraiten zioten maiz bere semei, Tantugu zela eguiaski lurreco uzten beguirale hoberena.

Ustaleco hilabethian, arrats alde batez arthalde bat alha zen mendi baten gainian, loac hartu zuen artzaina: iratzartziarekin batian, nabaritu zuen Tantugu, ihes zohala oihaneco alderat. Orobat ezagutua izan zen abere zainec haran edertto batian, harroca baten gainian lo zagola.

Gaurco egunian ere, Pirenetaco herri batzuetan, haurrac beldur dira harentzat. Noiz eta ere muthicotto edo nechca bat nahi eztenian iarri bere amaren erranera, amac erraiten dio: “Beguirauc (beguirau)! Tantugou deitzen diat (dinat) eta berehala yinen duc (dun) oihanetic.

Instituteur: Duleau, 50 ans, né à Charritte de Bas
Coll.: Cottenx, maire.

LARRESSORE / LARRESORO

(Canton d'Ustaritz)

Population: 840

Bacien lehenago Bortu herribatean senhar emaste batçu arras çaharrac. Deusere etçuten salbu etcholabat, baratcebat eta behibat. Bainan, cembat nahi beharrac ciren, bethi laguntcen citusten berac baino beharragoac. Egumbates, elhures estalia çagoen lurra eta horma bat cen harriac erdiaraco cituena. Herrian denac su phasterrian çauden jan edanes. Aberax ciren eta dohaxu. Ilhuntebatez, urrundanic heldu ciren bi arrotz batzuec nahi izan ciren herri hartan baratu, hotz eta gosse çutelacotz. Joiten dute athe batian, bertce bi, hiruetan, nehorc ez diote ideki nahi ez jatera eman. Batetic bertcera igorriric, çakhurac jangaz ondotic bi arrotcec etzakiten norat itzul, nois eta ere khaussitcen beitira senhar emaste behar heyen athean, herriaren buru buruan. Hekien auhenac adituric, leyhoan phasatcen da senharra, sarciten erraiteco, eta berehala emastia joan cen athearen idekitcera. Nordiren ere galdeguin gabe jarrarasten tuste su phazterrian, emaiten diotelaric dituzten guciac: esne chortabat, gastena cembaitekin. Bainan orduan, gure Salbatçailea - ceen hura cen jon doni Betirirekin, jeiki cen, buruac distiratcen dioela eta erraiten diote: Çuec beharrac cieste eta bihotx onac; çuen aüçuac aldiz aberax dire eta gachto: Eguin bedi Jaincoaren cucentassunari dohacona. Betbetan lurra ikaratcenda Jesus eta joandoni Betiri galtcen dira beguietaric, eta senhar emaste çaharrac erortcen belhaunico. Biharamunian badohatci herrira jakiteco eya cer guerthatu den, exdute etcheric ikhusten, bainan heyen orde ur hil haudibat, oraino oraï ere agueri dena Barbazaneco herriaren eta San Bertran-de-Commingeco hiriaren artian. Beharrac lagun ditçagula.

Tantuguren erran çaharra

Tantugu da guiçon çaharbat oyhanetan gorderic dagoena, çaintux landac eta phentceac ohointçaric eguin estadin. Ustac eguinac direnian eta belharra ebakiric campoan oraino, Tantugu atçarria dago eta erne bethi. Hura aguertcen ikhus beldurrez urrundaüde ohoinac. Ezta gaichtoa, sinhexaçu bainan bassa da. Asco çakien laborari batec bere semei maiz erraiten cioten, Tantugu cela dudaric gabe lurrac emaiten dituen gauça gucien arthaçaleric hoberena. Ustailleco arrax aldibates ardi aldebat çagoen alhan mendibatean; artçaina lokhartcen da, eta iartçartcean ikhusten du Tantugou lasterca dohala oyhanian barna: bertce artçainec ere eçagutu cuten ibaï pullit batean harroka baten gainean cagoela etçanic. - Oraino oraï ere haurrac haren beldur dire: muthico edo nechkabatec ezduenian bere amaren errana eguiten erraiten dio: emac cassu, oiuhu eguiten beitacot Tantuguri eta berehala jinen beita oyhanetic!

Instituteur: Carresson, Jean-Baptiste, né à Espelette le 27 Mars 1856 [?].

St-PÉE-SUR-NIVELLE / SENPERE

(Canton d'Ustaritz)

Population: 2508

Bacen lehengo demboretan, Pyrénéataco herri batean, guïçon bat eta emazteki bat çoinac baitciren hainitz çahartouac. Etçouten etche ttiki bat baïcic, baratce bat eta behi bat. Egoun batez lourra elhourrez echtalia cen eta horma eguiten çouen harrien arraitceco guïchan. Herrico yende gouciac berotcen çauden, yaten eta edaten çoutelatic, aberatch eta ourouch ciren. Ilhountcean, bi piayant çoinac heldou baitciren ourroundic, guelditou nahi içan ciren toki hartan, ceren hotz eta goche baitciren: yo çouten athe bati, guero bertce bati, eta bertce achkori ere: nihorc et citouen chartcerat outci nahi, ez eta ere deouchic yaterat eman nahi içan. Toki gouciataric hatchatouac, yarraïkiac chakour gaïchtoez, bi arrotz hec et çakiten norat goan, noïz eta ere aourkitou baitciren herriaren mougan, erromech ciren guïçon eta emazteki horien aïntcinean. Aditcearekin hekien plainouac, chenharra eman cen leihoan hekien bere ganat deitceco eta haren andrea goan cen lachter athearen idekitcerat. Hekieï galdetou gabe nor ciren, chararazi citouzten eta yararaci beren chou bazterrean; guero, cerbitçatou ciozkaten echnea eta cembeit gatzain, citouzten gouciac. Bâinan ordouan, Goure Yaouna –houra cen Yondoni Petrirekinean- choutitou cen, bouroua gouciz dichtillanta çouelatic eta hekieï erran cioten: “Çouec pobreac çaitze eta bihotz onecoac; çouen hauçoac dire aberatch eta gaïchtoac. Yaincoaren youchticia eguin bedi!”. Dembora berean lourra ikharatou cen, Yechuch eta Yondoni Petri chouchitou ciren, eta bi çaharrac belhaounico erori ciren... Biharamoun goicean, goan nahi içan çoutenean herrirat yakiteco cer pachatu cen et çouten etcheric ikhouchi, hekien lekhouan, bacen ouril bat, egoun oraino Barbazango herriaren eta Saint-Bertrand-de Comminges deitcen den hiriaren artian aourkitcen den hora bera.

Behar dire lagoundou malourouchac.

oOo

Tantugou da çahar bat oihanetan gordetcen dena. Çaintcen ditou landac eta chorroac, amorea-gatic eta deouchic ez deçaten ebatch. Noïz eta ere oguiac edo belharrac pikatouac direnian, denac naouchiaz bordan chartouac içan artian, Tantugouc ez dou lo eguiten, bethi atçarria dago. Haren aguertcen ikhouchteco beldourrac guibelatcen ditou ohoinac ebachtetic. Bihotz onecoac da, chinetch-çaçoue bâinan chalbaya ere. Gaouça hainitz çakizkan laborari batec erraiten cioten maïz bere semeï Tantugou cela, seguric, loureco frouitouen çaintçaileric hoberena.

Ouztailaren ilhabeiteco arratch-alde batez, ardi arthalde batec alatcen hari cen mendi baten gainean. Artçaina lokhartou cen: atçartcearekin, ohartou cen Tantugouc ihech eguiten çouela oihanerat. Orobat, eçagoutoua içan cen acienda çaintçaillez mendi-tarte pouillit batean, etçana celaric arroca baten gainean.

Egoungou egounean oraino Pyreneetako cembeit herrietan, haourrac hartaz beldour dire. Noïz eta ere mouttico ttiki batec edo nechka ttiki batec ez dionean obeditou nahi bere amari, hunec erraiten dio: Contou egui çac hitaz! Deitcen dout Tantugou eta couchian ethortcerat doha oihanetic!

Instituteur: Darré, L., 35 ans, né à Assat, près Pau.

Coll.: Soudre, Pierre, Larralde D^{me}, Duhart.

USTARITZ / UZTARITZE

(Canton d'Ustaritz)

Population: 2453

Baciren lehenago Pyrenetaco herri batean guizon eta emazteki bat arras zaharrac. Ez tzuten etche ttipitto bat, baratce bat eta behi bat baicic. Bainan, nahiz hain beharrac ciren, socorritcen cituzten bethi hec baino beharrago cirenac. Egun batez lurra elhurrez estalia cen, eta harrien arrailatceco horma hari cen. Herri hartaco yende guciac hari ciren berotcen, yaten eta edaten; aberas eta dohatsu ciren. Ilhuntcean bi piyayant, urrundic heldu cirenac, nahi izan ciren lekhu hartan guelditu, ceren hotz eta gose baitciren; yo zuten athe bat, guero bertce bat eta oraino bertce batzuetan: nehorc ez cituzten sartcerat utci nahi izan, eta nehorc ez ahamen bat eman nahi catu. Orotaric igorriac, zakhur gaitzac ondotic, bi arrotzec ez tzakiten norat yuan, causitu cirenean herriaren ichkinean, guizon eta emazki behar hein bortan. Aditcearekin hein auhenac, senharra eman tcen leihoan deitceco, eta haren emaztea yuantcen zaluki athearen idekitcerat. Galdatu gabe nor ciren sar eta yar araci cituzten su basterrean, guero eman cioten esnea eta zombait gaztena, zuten gucia. Bainan orduan Jesus Gure-Yauna, -ecen hura cen Yondoni Petriekin- chutitu cen, burua oro dirdiran, eta erran cioten: "Zuec beharrac eta onac zarete; zuen hauzoac aldiz aberasac eta gaichtoac. Yaincoaren justicia eguin bedi!". Berehala lurra ikharatcen da, Jesus eta Yondoni Petri suntsitcen dire eta bi zaharrac emaiten belhaunico. Biharamun goicean herrirat yuan nahi izan cirenean ikhusteco cer pasatu cen, etcen guchihago etcherric batere: heien lekhuac, bacen aincira handi bat, causitcen dena oraino egun Barbazanco herriaren eta San Bertrand-Commingeco hiriaren artean.

Behar dire dohacabeac lagundu.

oOo

Tantugu da oihanetan gordetcen den zahar bat. Beiratcen ditu landac eta penciac deusic ebasterat ez uzteco. Oguiac eta belharrac picatu direnean, oro nausiac barnerat eman nahi artio, Tantugu ez da locartcen, bethi erneric dago. Hura ikhus beldurrez ohoinac urrun daude. Ona da, segurki, bainan basa. Hainitz gauza zakizcan laborari batec cion maiz bere semieri Tantugu cela segurki lurreco fruituen zainzaile hoberena.

Uztaila hilabeteco arratsalde batez ardi arthalde bat alha zagon mendi baten gainean; arzaina lokhartu cen: iatzarcearekin, ikhusi zuen Tantugu ihes zohala oihaneco alderat. Ezagutu zuten bardin zainzailec haran pullit batean, etzana zagola harroca baten gainean.

Oraino egun, Pyrenetaco herri batzuetan, haurrac haren beldur dira, mutico edo nechca batec ez duenean bere ama obeditu nahi erraten dio: Gardiemaç! Tantuguri oihu eguinen zioat!

Instituteur: Larralde Pierre, 5 X^{brc} 1827, St-Jean Pied-de-Port.
Coll.: Ibarboure, Bernard – Etcheverry, J^{rb}.

VILLEFRANQUE / MILAFRANGA

(Canton d'Ustaritz)

Population: 1395

Bazen lehenago Pyrénétaiko herri batean gizon bat eta emaztebat arras zaharrak zienak. Ez zuten etche ttipibat, baratzebat eta behi bat baizik. Bainan nahi bezen pobre izan ziten, laguntzen zizuten bethi berak bainago pobreago zirenak. Egun batez, lurra estalia zen elhurrez eta horma eguiten zuen harria erdikatzeko heguinean. Herriko jende guziak berotzen zien, jaten eta edaten zutelarik; aberatzak eta irutzak ziren. Ilhun bazterrean, bi pieyjant, urrunetik heldu zirenak nahi izan ciren arratzatu toki hartan zeren eta gotze eta hotz baitzuten. Jo zuten bortha batean, guero bertze batean eta oraino bertze batzuetan: nehok ez ziusten sartzera utzi nahi izan ez eta deusik eman jaterat. Orotarik kasatuak, chakhur furius batzuz seguituak, bi estranjerek ez zakiten norat joan, noiz eta ere kausitzen baitira herriaren azken buruan guizon eta emazte pobre heyen etchiaren aitzinean. Aditurik heyen pleynuak, senharra eman zen leyhuan ekharrarazteko eta haren emastea johan zen fite bortharen idekitzerat. Galdegin gabe nor ziren, sarrarazi ziusten eta jarrarazi beren supasterrean; guero çombait gastena eta esnia zerbitzatu zioten, zuztenak oro. Bainan, orduan Gure Jainkoa –huranzen, San Pierresekin – chutitu zen burua oro dichtiran eta erran zakoten: “Zuek pobreak zirezte eta onak; zuen auzoak aberatzak eta gaichtoak dira. Jaincoaren justizia egina izan dadin.”Ordu berian, lurra ikharatu zen, Jeuss eta San Pierres etsestatu eta bi zaharrak erori ziren belhaunika. Biharamun goizean, joan nahi izan zirenean herrirat, jakiteko zer pasatu zen ez zuten ikhusi etche bihirik: heyen tokian esteynu bat zen oraino egun kausitzen dena Barbazaneko herriaren eta San Bertrand-de-Commingeneko hiriaren artean. Lagundu behar dira malerusak.

oOo

Tantugou oyhanetan gordetzen den chahar bat da. Guardiatzen ditu landak eta pentzeak deusik ez dezaten ebats. Ogiac phikatuak direnean edo belharra ebakina oro sarthuak izan artino nausiaz, Tantugouk ez du batere loik egiten; bethi beilan dago. Hura ager dadein beldurrak atchikitzen ditu ohoinak. Ona da, sinhez zazu, bainan salbaia da. Asko gauza zakien laborari batek erraiten zuen usu bere semeri Tantugou zela, segurki, lureko frutuen guardiatzalerik hoberena.

Eriaro hilabateko aratsalde batean, ardi tropabat alhatzen zuen mendi baten gainean; arteina lokhartuzen: iratzarzean ikhusi zuen Tantugou espakatzen zela oyhanari buruz. Izantzen bardin ezagutua artzainez chola pullit batean, etzana harroka baten gainean.

Oraino egun, Pyrénétaiko herri batzuetan, haurrak horren beldur dira. Noiz eta ere muthiko ttipi batek edo neskatoko ttipi batek ez baitu nahi bere amari obeditu, amak erraiten dako: Gaurdia emak hiri! Oihu eguinen diat Tantugouri eta, ichtantian, jinen duk oyhanetik.

Instituteur: Etchevers, 27 ans, né à Briscous (Basses-Pyrénées)

Coll.: Larre, Jean – Broussain, Louis.

ARHANSUS / ARHANTSUSI

(Canton d'Iholdy)

Population: 136

Barbazaneco istoria

Bazen lehenago Pyrénées taco herri batian guison bat eta emaste bat biciki çaharrac. Ez çuten etche ttipi bat, baratze bat eta behi bat baïcik. Bena hain pobre içanikan ere zokhorritzen zousten bethi hec beno pobriago zienac. Egun batez lourra elhourez koukoutia cen eta kharrougna ari zen harrien erdiatzeco gisan.

Herrico jende gouciac berotsen ari ziren jatian eta edatian; aberatz eta irous ciren. Ilhountsian bi pidejantec, zoinac ourhountic heldu baïtciren, nahi izan zouten guelditou toki hartian, cendaco eta hotz baïtciren eta gosetiac; jo çouten bortha batian, guero bertse batian eta beste frangotan; nehorec ez citousten nahi oukhan outsi sartcera, ez eta deüze eman jatera. Orotaric casatiac, chakhurrez seguitiac, bi estranjerrak ez zakiten noat jouan, noiz eta ere khaüsitou baïtziren herrian basterian, guison eta emazte pobre hen etche aïtcinian.

Hen plegniac entzounik, zenharra jarri cen leyhouan, her oihou eguiteco eta emastia jouan cen fite bortharen zabalcera.

Galde eguin gabe nor ciren sar araci citousten eta jar arasi sou bazterrian; guero eman zeen jatea esnia eta gazteгна cembait, zouten goucia. – Bainen ordian goure Yinkoa –çoina baitcen Yondane Petriekin, - choutitou zen buria argui, arguia eta erran zeen – “Ciek pobre ciste eta hon, cin aïzouac aberats eta gaïstouac dira. Yinkouaren joustizia eguina izan dadiela. Ordu berian lourra ikharatou zen, Yésous eta Jondana Pethri galdou ciren eta bi zenhar emazte hourac eman cien belhaounico. Bihamen goïcian, noiz eta ere jouan nahi izan beïtçouten eliçatherat jakiteco cer passatou cen etzouten ikhouci etche bihi bat ere: hen lekhian bacen phoutsou handi bat, zoin khaüsitzen baïta oraino egun Barbazaneco herrian eta St Bertrand de Commingeco hirian artian.

Lagoundou behar da pobriac.

Tantougouren istoria

Tantougou da guizon zahar bat oyhanetan gordatzen dena. Zaintzen ditou alhorrac eta phensiac, deüziac ebatz ez dezaten.

Noiz eta oguiac mostiac baitire edo belharra ebakia, hec denac naousiac sar artino, Tantougou ez da loc hartzen, gouaitian dago bethi. Haren aguertzen ikhousteco atchikitzen ditou ouhougnac.

Hona da baina sabaje da.

Laborari batec zoinec beitzakien biciki gaousa, erten cin ousou bere semer Tantougou zela seourki lureco fruten zain zale hobia.

Oustarilaco atzalde bates, azinda multso bat alha zagon bortou batian; arzaina loc hartou zouen; irartzartian apercebitu sin Tantougou ezkapatzen cela oyhanerat bourous.

Giza berian ezagoutia izan cen bertze artzaines etzanic phegna batian.

Oraino egoun Pyrénées taco herri batzoutan, haourrac haren beldour dira.

Nois eta mouthico ttipi batec edo neskato ttipi batec ez baitou obéditou nahi bere amari, hounec erten dero- “Gourdia emac! oyhou eguiten doat Tantugouri eta instantian jnen duc oyhanetic.

M. Achiary, 22 ans, né à Esquiule
Coll.: Guissagais

ARMENDARITS / ARMENDARITZE

(Canton d'Iholdy)

Population: 681

Barbazaneco berrichaharra

Baçitçoun behin bortietaco herri batian guizon bat eta emazte bat biciki çaharrac. Ez cicin etche thipi bat, batce bat eta behi bat becic. Bana haïn probe içanic ere, laüncen citcin beti bera bano probiagoc. Egoun batez, lourra coucoutia çouçoun elhourrez eta hormatcen cicin harriac ourratceco heïnian. Herrico yende gouciac berotcen ari citçoun yaten eta edaten çoutelaik. Aberatsac citçoun eta ouros. Ilhounarrian, ourrounetic heldu cin bi piayyantec nahi ouhkan cicin guelditou lekhou hartan, ceren gose eta hotz baitçouten. Yo cicin bortha bati, guio beste bati, eta beste batcouer oraino: nehoc ez citcin sartcera outci nahi oukhan, ez eta ere eman yatera. Kasatiac orotan, seguitiac chacourrez, bi guionec ezçakizin noat youan, noizeta ere kausitou baitciren herriaren bourouan, probe cin guion eta emazte hen etchiaren aïtcinian. Intçoutiarekin hen arrangourac, senharra yariçouçoun leiouan, her oihou éguiteco, eta emazia youana çouçoun fite bortharen idekitcea. Yarraci citcin beren soupazterrian, galdeguin gabe nor ciren; guero eman cecin esnia eta çombeit gaztina: çoutzen gouciac. Bana ordian Goure-Yincoa –houraçouçoun Yandone Petriekin- choutitouçouçoun, bouria distirant eta erran cecin: “Cic probiac cizte eta hounac; cin aücoac abératsac ditouçou eta gaichtouac; Yaincoaren yusticia eguin daïlala.”.Behala lourra ikharatu çouçoun; Jeus eta Yandone Petri gorde citçoun eta bi çaharrac erori citouçoun belhaünic. Bihamoun goïzian, herrirat youan nahi oukhan çoutenian ikousteco cer guerthatou cen ez cicin ilhousi etcheric bate. Hen lekhan baçouçoun acekiabat, Barbazanen eta Saint-Bertrand de Commingen artian kaüsitcen den hori bera.

Behar dira sokorritu malourosac

Tantougouin berrichaharra

Tantugu douçou oyhanetan gordatcen den yende çahar bat. Béyratcen tici landac eta penceac han ez deçaten deusere ebats. Oguiac phiciatiac dinian, eta belharrac ebakiak, nagousiac gouciac etcherat bildou artino, Tantugouc ez dici lo eguiten; beilatcen dici bethi. Haïn atheratcen ikousteco beldourrac atchikiten tici ohinac. Houna douçou, sinetsacie, bana basa douçou. Laborari, anhitz gaüça çakien batec, erten cicin ardoura beré semer Tantugou cela segourki loureco fruitouen beiraçaleric hobena.

Ouztaileco egouardi ondo batez, ardi moulço bat alha çouçoun, mendi baten gainean, arcaïna lokhartou çouçoun: Yatçartcearekin, ikhousi cicin Tantugou espacatcen cela oihaneco alderat. Berdin eçagoutoua içan çouçoun artçainez mendia arte poillit batean, etçanic harroca baten gainean.

Ono egoun, Bortietaco herribatçouetan, haürrac beldour touçou haren daco. Mouthico thipi batec edo nechcato thipi batec obéditou nahi ez dinian bere amari, hounec erten dacoçou: “Kasouïçac hiri, deithatcen diat Tantugou, eta behala ynen douc oyhanetic”

1. *En s' adressant à la fille*: “Kasouïçan hiri, deithatcen dinat Tantugou eta behala ynen doun oyhanetic.”

B. Araynty, 38 ans, né à Alçay

Coll.: Marianne Barnetche, Jean Clavierie

BUNUS / BUNUZE

(Canton d'Iholdy)

Population: 224

Barbazen én historiao

Bassèn lénénago Pyrénées herri batian guïçon bat éta émazté bat çoinac bissiki sahartiac baitcírén. Etsoutén étché ttipi bat baïssic, baratcébat éta béhi bat. Bâinan bissiki pobré issanic èrè lagousen sitoustén hec baino pobrio siénac. Egoun batès, lurra coucouthia sèn éllhourrez, éta carrougna ari sèn harri én haoustéco poundourano. Herrico yéndé goussièc bérotsen sièn, yatian éta édatian; abérats sièn eta irous. Ilhousnian, bi boyajurrac, çoinac heldou beitsien ourrounétic, nahi oukhen soutèn baatou lekhou hartan, céren beitsouten gossia éta hotsa; yo soutén bortha bat, guèro bestébat éta oano bésté batsou: néhorc étsouten nahi oukhen outsi sharcèa, ez éta éré néhorc éman déouz yatéra. Orotaiç khassatiac, chacur gachtouès séguitiac, bi estranyèrrec espeïtsakiten noat youan, noïz éta éré guerthatou béitsien herri én bourian, guïçon éta émasté pobré héen étché én aitsinian. Entsoutia ékilan héen plégniac, sénharrac yarri sèn leïhouan her oihou éguitèco, éta harén émastia youan sèn fité bortha én sabaltsèra. Galdéguin gabé nor sirén sarhassi zitién éta yarrhassi sou én oundouan; guèro cherbitchatou sérén ésné eta gastagnac, sousténac oro. Bâinan ordian, Gouré yincouac – houa sèn youandéné Pétrirékin, yeïki sen, bouria arras argui éta érran zén: “Siéc, pobré sisté éta houn; sién aoussouac abérats sou éta gachtouac. Yincoua én youstissia éguin dessala!”. Mémentian lurra ikharatoussén, Yésous éta Youandéné Pétri parthitoussiren éta bi saharac érorissien belhaouñico. Bihamoun goïssian, noïz éta éré nahi ouhken beitsoutén youan hérrira, yakitèco ser passatoussén, étsissien ikhoussi étché bat èrè::héen lékhian bassén poutsoubat, çoina guerthatcen beita égounéco égounian éré Barbazanéco herriaen éta Saint-Bertrand-de-Commingéco hiria én artian. Béharta lagoundou malérousac.

Tantugou én historiao

Tantugouc saharbat da çoina gordatsen beita oïhanetan. Béguiratsen tou alhorrac éta pénsiac ébats éz dessatén déouzere. Noïz été éré oguiac pikatiac beïtura édo belharra ébakia, naïssiac goussiac éréman artino. Tantugou etsou lokhartsen, bethi gardiatsen ditou. Ohouïnac ez dira ibiltèn hac ikhous beldurres. Houna doussou, sinhetsassou, bâinan bassa doussou. Laborari batec çoinac baïtsakien hanits gaïssa erraiten sien oussou béré sémér Tantugou cèla, doudaric gabé, lurréco frouïtou béguirassalé hobéréna.

Oustailleco atsaldé bates, ardi saldo bat alhatsen sèn méndy bat en gaïgnian, arshaina lokhartou sen: iatsartsia ékilan, ikhoussissien Tantugouc youaitèn sèla oïhanéako aldéat. Berdin essagoutia issan sèn oulhaïn bates ordoki eder batian, etsanic arrocabat en gaïgnian.

Oraino égoun, Pyrénéco herri batsoutan, haürrec beldour dira haréndaco. Noïz éta éré mouthico ttipi batec edo neskato ttipi batec obéditou nahi estiénian béré amari, erraiten daco: Khassou éguissac! Ekharraassico diat Tantugou, éta bérhala yinen douc oïhanétic.

Lavie, J., 27 ans, né à Burgaronne
Coll.: Officialdéguy et Etcheberry

Commune: Bunussé (Bunus.)

Hameaux: -

Quartiers: -

Cours d'eau: Ourhaitça (Bidouze); Hosta houra (Ruisseau de Hosta). Ibarla houra (Ruisseau d'Ibarrolle). Abouns erreca (Ruisseau d'Abons). Ithurraldeco erreca (Ruisseau d'Ithurralde).

Sources: Larcochéco ithourria (Source de Larcoche). Larratéco ithourria (Source de Larrats)

Fontaines: Urrutigaraïco ithourria (Fontaine d'Urrutigaray), Larcochéco ithourria (Fontaine de Larcoche), Ibarnéatcinéco ithourria (Fontaine d'Idiart)

Collines: Bunus mendy (Colline de Bunus), Ibar mendy (Collinde d'Ibarre), Darthia (colline de l'église)

Coteaux: Gaïnsabalé (coteau sur la colline de Bunus), Haran érréca buria (coteau sur la colline de l'église).

Vallées: Bunusséco ordokia (vallée de Bunus).

Bois: Hiru haritsac (les trois chênes), Larcoche (Larcochéco oihana).

Rochers (Harrocac).

Bornes: Au nord, Larceveau; à l'ouest Juxue; à l'ouest, Ibarrolle et au sud, St-Just-Ibarre.

HÉLETTE / HELETA

(Canton d'Holdy)

Population: 1092

Basen lehenoo bortuetaco herri batian guizon eta emasteki bat biziki çaharrac ziinac. Etzuten etche tipi bat, baatzte bat eta behi bat beizic. Baïnan, haïn beharrac içanaatic ere laguntzen ziousten bethi hec beno beharrogouac ziinac. Eoun batez, lourra estalia zen elhourrez, eta horma aïzen harria arrailatzeko heïnian. Herrico yende gouziac beotzen ziin, yaten eta edaten zoutelaïc, ouros eta abaats ziin. Ilhoun dirian, bi piaiant ourroundic heldou ziinac nahi oukhan zouten guelditou toki hartan, ceen eta gose eta hotztuac beitziiin; yo zuten borthaatian, gueo bestian eta besteatzuetan oono: nehoc etzitiin sarcea outzi nahi içan ez eta ere yeous eman yatea. Ootaïc khasatuac, bortchatuac chakhourrez guibeletic, bi arrotzec etzakiten noat youan; guerthatou ziinian herriaan basterrian, guiçon eta emazte beharrac ziin heen etchiaan aitzinian. Heen souspirac aïtziakaan, senharra youan zen fite borthaahan idekitzea. Heer galdein gaa nor ziin, sarraazi ziousteten eta yarraazi souphasterrian; gueo eman tzeeten esnia eta çoïnbeit gaztena, souden goucia Baïnan orduan – Goue Yaouna, houa zen Yondoni Pétriikin- yeiki zen bourua distirant distiranta, eta erran tzeen: “Ziic, beharrac eta onac ziiizte, ziin aouzouac abaats eta gaichtouac dia.Yinkhouaan nahi eïn daïlala!”. Berheala lourra ikharatou zen, Yesous eta Yondoni Petri esdestatu ziin eta bi zaharrac belhaouco erori ziin... Bihaamoun goïzian, nahi oukhan zoutenian herriaat youan, yakiteco zer phasatou zen, etzouten ikhousi etcheic batee. Heen tokian bazen touloumio bat (our geldi handi bat) houa oono eoun khaousitzen dena Barbazaneco herriaan eta Saint-Bertrand de Commingeco hiriaan artian. Behardia lagoundou malouousac.

Note explicative pour prononcer les lettres z, s y et t

Prononcer la lettre z comme l's en français

s sans appuyer la langue sur les incisives inférieures presque comme le j

y le bout de la langue appuyé sur les incisives inférieures et détachant la langue du palais

t de *tipi* comme y fort

oOo

Tantugou da chahar bat gordatzen den oihanetan. Tzeintzen tou landac eta phentziac hetan ez dezaten yeous eats. Oguiac eta belharra eakiac diinian, naussiaz denac sarthuac içan artino, Tantugou ezdao lo; bethi iatzarriic doo. Haan aguertziaan beldourrac atchiitzen tou ohoinac. Ona da, sinhets zacii, baïnan basa da. Laborari batec zakiinac asko gaouza irten ziin ardoura bere semer Tantugou zela seourki loureco frouituen tzeintzaleïc hobeena.

Oustaileco aatsalde batez, ardi arthalde bat alhatzen zen mende baten gainian: artzaina lokhartou zen: iatzarziaakin, ohartouzen Tantugouri ihes yohan oihanaï bourouz. İçan zen ere berdin artzainez ezagoutua errephea pollit batian harroca baten gainian

Oono eoun Bortuetaco herri zoinbeïtetan haourrac haan beldour dia. Mouthico edo nechcatoco tipi batec ezdiinian obeïtou nahi bere amari, hounec erten daco: “Khasou man hire! Ekharraazten diat Tantugou eta, berheala yien douc oïhanetic

Dans la localit  le basque est prononc  comme ci-dessus mais pas orthographi  ainsi.

Gastellu, 32 ans, n    H lette

HOSTA / HOZTA

(Canton d'holdy)

Population: 313

Barbazaneco gerthacaria

Bacitzun lehenago Pyreeneco herri batian gizon bat eta emazte bat çoinac baitciren arras çahartiac. Etcicien etche ttipi bat bat, baratce bat eta behi bat baicic. Bainan, nahiz arras beharrac ciren, bethi laguntcen citcien hec beno beharrago cirenac.

Egun batez, lurra elhurrez estalia çuzun, eta kharroiña ari harriac erdiratceco phundian. Herriko yende guciac berotcen ciaudezun, yaten çutelaric eta edaten; aberatz citzun eta uros.

Ilhuntzian, bi bidayant, çoinac heldu baitciren urrunic, nahi izan citzun gelditu lekhu hartan, ceren eta hotzac eta gosiac baitciren; yo cicien bortha batian, gero beste batian eta beste askotan oraino: nehoc ere etcitzien nahi ukhan utzi sartcerat ez eta ere eman yaterat. Kasatiac orotatic, eta segituac chakhur oldartu batçuez, bi arrotzec etciakicien norat yuan, noiz eta ere khausitu baitciren, nola etzakitela, herriaren basterian, gizon eta emaste behar heien etchearen aintzinian. Entzutiarekin heien plegnuac, senharra athera çuzun leihora heier oihu eguïteco, sartciten eta haren emastia aldiz yuan çuzun laster bortharen idekhitcera. Batere galdegin gabe nor ciren, barnerat sarraraci citzien eta yarraraci beren suphasterrian; gero zutenetic eman cieciën, esnia eta çombait gastaña. Bainan ordian, Jesus Jauna – ecic hura çuzun Jondoni Petriekin - chutitu çuzun: ciec, beharrac eta hunac ciezte, cien auzuac aldiz aberatzac eta gaichtuac. Jaincoaren yusticia egindadiela!” Ordu berian lurra ikharatu çuzun. Jesus eta Jondoni Petri itzaldu citzun eta bi çaharrac erori belhaunico... Biharamun goician, nahi içan çutenian yuan herrirat, yakiteco cer pasatu cen, etcicien ikhusi etche bat ere, heien lekhan, baçuzun hur zabal geldi bat, çoina egungo egunian oraino khausitcen baita Barbazaneco herriaren eta Saint-Bertrand de Commingeco hiriaren artian. Behar dicie lagundu malhurosec eta beharrec.

Tantugouin gerthacaria

Tantugou duzu gizon çahar bat, çoina gordatzen baita oihanetan. Saintzentzi alhorrac eta phentziac amoregatic eta ez deçaten hetan deuser ebatz. Noiz eta ere ogiac phicatiac baitira edo belharra ebakia, handic eta nausiac oro barnerat sarthu artio, Tantugouc etci loik egiten; bethi zain dioçu. Ohoinac etzu menturatcen hura ager beldurrez. Huna duzu segur bainan basa. Anhitz gausa zakien laborari batec bere semer ardura erraiten ciezun Tantugou cela segurki lureco fruituen zaintzaleric hoberena.

Arraxalde batez, ustaila çuzun, ardi saldo bat alhatcen zagoelaric mendi batian, artzaina lokhartu çuzun: iratzartciarekin ohartu çuzun Tantugou lasterca sohala ihes oihanerat. Beste artzain batzuec ere ikhusi cicien mendi arte pollit batian, harroca baten gainian etzanic.

Egungo egunian oraino, Pyreneeco çombait herritan, haurrac haren beldur tutzu. Noizeta ere muthico ttipi batec edo nechcato ttipi batec ez baditu amaren maniak egin nahi, erraiten diacozu: Gogo eman gero hiri! Oihu egiten dacoat Tantugouri, eta, berheala yinen duc oihanetic!

Sagardoy, âgé de 27 ans, né à Lacarre
Cool.: Uhart et Chourrout, propriétaires

IBARROLLE / IBARROLA

(Canton d'Iholdy)

Population: 179

Barbazanen ichtorioua

Bacitzoun l'éhénoo, Pyrénétaço hérrî batian, guïçon bat éta émazté bat biciki çahar ciénac. Etcicién étché ttipi bat béciç; baatcé bat, éta béhi bat. Béna hain pobré içanaatic, sjokhorritcéen citcién bérac béno pobrio ciénac. Egoun batéz, lurra elhurrez coucoukia çouçoun, éta kharrognâ azkarki ari. Hérrico yénde gouciac berotcéen ari citçoun yaten éta édatén ari ciélaic, abéatj éta iruj citçoun. Ilhountcian, bi voyajur ejtranyer ourrounic heldou ciénac, nahi oukhan cicien lékhou hartan guélditou gosjé éta égarri ciélaçotz: yo cicien bortha batian, guéo bejte batian, eta bejte batçoutan oono. Néhoque ezciçien jartcen utci nahi oukhan éta ez deouje yatéa eman. Gucietaic kasjatiac, chakhour gaitz batzouz sjeguitiac, bi estranyerrek ezciçicien noat youan, noiz éta ére heldou baïtcien herriain bouroura guïçon éta émazté pobré héen étchiain aitzinea. Héiën plégniac intçoutian sjenharra leihoa yalqui çouçoun éta émaztia youan çouçoun fité borthain saaltcéa. Galdin gabé norcien yarraaci citcien éta yarraaci béren southonduan, guéo cerbitchatou ciécién oguiâ éta çombait gaztagna, ciouztenac oro. Béna ordian Guré Yaüna, houâ çouçoun, yandone Petriikin - yéiki çouçoun bouria argui arguia, éta érran ciéçoun: Ciéc pobriac cizté éta hounac, cién aouçouac abéatjac tçou éta gaïchtouac. Yincouain yousticia in daïla. Béhala lourra ikharatou çouçoun. Yéjus éta Yondoni Petri esjtali éta bi çaharrac belhaunico érrori bihamoun goïcian herrian cer phasjatu... ikhousjtéa, youan nahi oukhan çoutenian, étcicien ikhousji étchéic bate; hén plaçan baçouçoun phoutçou haoundi bat, égoun oono Barbazaneco herriain éta Sjan Bertran Comminjeco hiriain artian khausjicen déna. Béhar dira malérousjac laoundou.

Tantugouin ichtorioua

Tantugou guïçon çahar oihanétan gordatcéen den bat douçou. Beiratcentci alhorrac éta phentciac déousjé éz déçaten eatj. Oguiac phiciaciac edo belharrac ebakiac diénian, oro nausjiétaz érrétiatouic içan artio Tantugouc éçci loic iten. Béthi beillatcéen dioçou. Hain aguertcen ikhoujteco beldourrac atchikitcentci ohognac. Hunaouçou sjinetjacie, béna sjalbayaouçou. Laborari, anhitz gaouça çakien batec, érraiten cicin ardoura béré sjémer; Tantugou cela sjéourki lourréço fruitouen beïratcaleic hobéena. Uztaillaco-atjalde batez acinda sjaldo bat alha çouçoun mendi batian; artzagna lokhartou çouçoun. Iatçartcian, ikhousji cicin Tantugou oiheaneat bourouz ejpacatcen céla. Guija bérian éçaoutouic içan çouçoun artçagnez planada batian harroca baten gagnian etçanic. Egoun oono Pyrénétaço herri çombéïtetan haourac hain beldourtçou. Mouthico ttipi édo néçcato ttipi batec ez badou amari obéïtou nahi erraiten diacoçou: Gouardémâc hiri! Oihuiten diat Tantugouri éta béhala yiten douc oihanétic.

M. Chaho, 21 ans, né à Arhansus

U se prononce ou.

IHDOLDY / IHOLDI

Canton d'Iholdy)

Population: 827

Behin batez bacitzun Españako fonteraco (Pyrénées) herri batian, senhar-emazte batzu arras zahartiac. Etzicien etche ttipi bat, baratze bat eta behi bat beizic. Bana nahiz berac beharrac ziren, sokhorritzen zitizien bethi berac bano beharrauouac.

Egun batez, bazter guciac elhurretan zitzun eta horma bat gaitza zuzun. Nola herri hartaco jendiac ontsa aberats eta uros beitzien, beren suphazterretan ziaudezun jan eta edanez. Ilhountzian bi bidayant urhunic heldu zireneac nahi ukhan zizien herri hartan gelditu, aloyatu, zeren hotzac hila eta gose errabiatiac beitzien. Ibili zitzun bortha bat jo, beste bat jo, nehoc etzizien sartzeat utzi, ez eta ere deus jateat eman nahi ukhan. Lekhu guciataric casatiac, zakhur furiosen ondotic mehatchuz.... bi campotiar gaichuec etzakicien noat juan, causitu zienian herriaren bazterrian, aiphatu senhar emazte behar heyen etchiaren aitzinian. Heyen pleñiac entzunic, senharra jalgi zuzun leihorat oihu iteco barnerat sartziten, eta emazia juan zuzun laster bortharen idokitzeat. Galdegin gabe ez nortzien ez zertzien, sar-arazi zitzen suphazterrian jar arazi eta esne eta gaztaina jaterat: etzicien besteric.

Bainan ordian, Gure Jauna – hura zuzun Jondoni Petriekin- chutitu zuzun buria distiretan eta erran zizun: Ziec beharrac ziezte eta hounac, eta aldiz zien auzuac aberats ditzu eta gaichtuac. Jaincoaren justizia eguina izan bedi! Berehala lurra ikharatu zuzun. Jesus eta Petri bichtatic galdu zitzun eta bi zaharrac belhaunica pharatu zitzun.

Biharamun goizian nahi ukhan zizien jakin zer gerthatu zen juan ziren herrirat eta etzizien etcheric batere ikhusi: heyen lekhan osin bat zuzun, egun oraino causitzen dena Barbazeneo herriaren eta Cominseco herriaren artian.

Ichtorio horrec eracusten du behar diela malurosac lagundu.

<i>Ai</i> se prononce	ai;
<i>Au</i>	“ aou;
<i>u</i>	“ ou;
<i>e</i>	“ é;
<i>ei</i>	“ eī;
<i>oi</i> se prononce	oi;
<i>en</i>	“ ein
<i>j</i>	“ uye
<i>ll</i>	“ ill

ñ “ *gn*

s se prononce *sg*

tt, *tt* mouillé appuyer le milieu de la langue contre le palais

z se prononce *ce*

g est toujours dur en basque.

oOo

Tantugou duçu gizon zahar bat oihanetan gordatcen dena. Zaintzentzi landac eta phentziac ez dezaten deus ebats. Ogiac eta belharrac phicatiac dienian, nausiac oro barneat bildu artio, Tantugouc ez dici loric iten: bethi beilan dagozu. Haren bichtarat agertziaren beldurrac beiratzentzi ohoinac. Hunauzu, seur, bena basauzu. Hanichco gauza zakien laborari batec erraiten zizin ardura bere semer Tantugou zela seurki lurreco frutien zaintzaleik hoberena.

Uztailaco arratsalde batez, arthalde bat alha zuzun mendi baten gainian: artzaina lokhartu zuzun; iatzartziarekin ohartu zuzun Tantugou laster zuala oihaneco aldeat. Guisa berian ezagutia izantzuzun behi zaintzalez ordoki poillit batian etzana harroca baten gainian.

Orai oono fonteraco (Pyrénées) zombait herritan, haurrac haren beldurtzu. Muthico ttipi edo nechcato ttipi batec ez dienian bere ama obeitu nahi, hunec erraiten dacozu: “Guarda emac, ou kasu emac (eman, pour la fille) oihu egiten dacoat (saconat pour la fille); Tantugouri eta, ichtantian, jin duc (dun, pour la fille) oihanetic.

Miguras, 39 ans, Ahetze
Coll.: Barran, Delgue, Iriart

IRISSARRY / IRISARRI

(Canton d'Iholdy)

Population: 1278

Barbazaneco erran zaharra

Demboran Pyreneco herrichca batian bici ciren guizon eta emazte zahar zahar batzu. Ez zuten etche ttipiño bat baratze bat eta behi bat baicic. Bizkitartean hain beharrac izana gatic, bazakiten berac baino beharragoen laguntzen. Egun batez lurra elhurrez estalia cen, harri arraitzeco horma ari zen. Herrico yende guciac yaten eta edaten ari cirelaric su phazterrean berotzen zauden aberatsac eta urusac ciren. Astirian, nonbait urrundic heldu ciren bi piayantec hotzac eta gosiac zirelacotz nahi izan zuten herri hartan gelditu, yoten dute bortha bat, guero berce bat, eta oraino berce asco. Nihorc ez cituzten sartcerat uzten ez deus yaterat emaiten. Gucietaric casatuac, chakhur borthitz batzu ehausiz ondotic, ez zakiten norat yuan bi arrotzec, eta helduac ciren herriaren azken bururaino, guizon eta emazte behar haukien etche aitzineraino. Haukien intziriac entzutearekin senharra aguertu cen leihora haien sararazteco eta emaztea laster yuan zen bortharen idekitzerat. Galdeguin gabe nor sien, sar-arazten dituzte, eta su ondoan yar-arazten: guero cerbitzatzen diote esnea, gaztainac, eta ciusten gucietaric. Orduan Yesus-Christo gure yauna –ecen hura cen yon doni Petriekin- chutitu cen burua argui distirant batez inguratua eta eraiten diote: “Zuec beharrac eta onac ciezte, aldiz zuen hauzoac aberaxac eta zarrac Yaincoaren yusticia eguin dadiela!”. Hainbercenarekin lurra ikharatcen da. Yesus eta Yon done Petri eceztatzen eta bi zaharrac belhaunico erortzen dire. Biharamun goizean yuan cirenean herrirat yakiteco cer iragan cen. Ez zuten etche bihi bat ikhusi bainan heien orde aintcira handi bat (ur beltz handi bat) egun oraino Barbazaneco herriaren eta San Bertran Comminyeco hiriaren artian ikhusten dena. Dohacabeac behar dire bethi lagundu.

Tantugouren gainean erran zahar bat

Tantugou oihanetan gordetzen den guizon zahar bat da. Landac eta phentzeak beguiratzen ditu ez dezaten deus ebats. Oguiac eta beharrac picatzen direnian, nausiatic gucia sarthu arteraino Tantugouc ez du loric eguiten: bethi iatzarria dago. Beldurrez hura aguer, ohoinac urrun daude. Ona da, sinhets zazue, bainan basa. Lur lantzale hainitz gauza zakien batec erraiten zuen bere semeeri Tantugou cela segurki lurreco fruituen beguira zaileric hoberena.

Uztaileco arratsalde batez arthalde bat alhan zagon mendi batean, artzaina lokhartu cen. Yatzarcearekin ikhusi zuen Tantugou oihanerat ihesi espacatzen. Behi zainzalec oro bat ezagutu zuten celaya pollit batean, harroca baten gainean etzana.

Egungo egunean oraino, Pyreneco zembait herrietan haurrac haren beldur dira. Muthico edo nechcato batec ez dionean amari onhexi nahi “Guarda eman, erraiten dio amac, Tantugou-ri oihu eguiten dinat eta berehala oihanetic yinen dun

Chimits Pierre, 47 ans, né à Chéraute (B. Pyrénées)

Coll.: Etchevers, maire, Etchebéhère (adjoin)

JUXUE / JUTSI

(Canton d'Iholdy)

Population: 359

Barbazanen gaignian erran çaharra

Baçouçoun lehen Pyrénéetaco herri batian guïçon bat eta emazte bat çoinac biciqui çaharrac baitciren. Ez cicien etche tipi bat, baratce bat eta behi bat becic. Béna hain pobre içana gatic, lagountcen citcien bethi hec beno pobrio cienac. Egoun batez, lourra coucutia çouçoun elhourrez, eta kharroin iten cicin harria arrailtcerainocouan. Herrico yende gouciac berotcen ari citçoun, yatiaiquin eta edataiakin; aberats eta irous citçoun. Ilhoun nabarran bi bidayant, çoinac heldou baitcien ourrounic, nahi oukhan cicien baratou lekhou hartan, ceren eta gose eta hotz baitciren; yo cicien bortha batian, guero beste batian eta beste batçoutan oono: nehoc e ez citcin sartcea outci nahi oukhan, ez eta deous ere heer yatea eman. Casatiac orotatic, seguitiac chakhour fucosez, bi estranyerrec ez ciakicien norat youan, noiz eta ere khaousitu baitciren herriaren bazterrian, pobre cien emazte eta guizon heen etchiaren aiticinian. Intçoutiaiakin heen plaintak, senharra yarri çouçoun leihouan heer oihou iteco, eta hain emazia jouan çouçoun fite borthain idokitcea. Batere heer galdin gabe nor cien, sarraazi citcien eta yararaci beren soupazterrian; guero cerbitchatou ciecien esnia eta cembait gaztaïgna, ciouzten gouciac. Bena ordian Goure Yainco Yauna –houra çouçoun Yan Doni Petriekin – yeiki çouçoun buria arras arguitan, eta erran cieçoun; “Ciec pobriac eta hounac ciezte; cien aouçouac aberatsac eta gaichtouac tçou. Yaincoaren yousticia in dailela!”. Behala lurra ikharatou çouçoun, Yesous eta Yan doni Petri bichtatic galdou citçounn eta bi çaharrac erori citçoun belhaounico. . . Biharamoun goician, noiz eta ere youan nahi çoutenian herrira yakiteco cer phasatou cen, ez cicien ikhousi etche bagnore: heen plaçan, baçouçoun phoutçou handi bat çoina baita oono egoun Barbazaneco herriaren eta Saint-Bertrand-de Commingeco hiriaren artian. Behar tcie lagoundou malourosec.

Tantugouren gaignian erran çaharra

Tantugou douçou çahar bat çoina gordatcen baita oyhanetan. Beiratcen tci alhorrac eta phentciac han ez deçaten ebats deous ere. Noiz eta ere oguiac phiciatic dienian edo belharra ebakia, oro erretiratou artio naousiaz, Tantugou ez tçou lokhartcen; beillatcen dici bethi. Haren aguertciaren ikhousteco beldourrac atchikitcen tci ohoignac. Houna douçou, sinhets çacie, bena salbaya douçou. Laborari batec, çoinac baitçakien anhihco gauça, erraiten cicin ardoura bere semer Tantugou cela seourki lourreco frouitien beiraçalerik hoberena.

Ouztaillaco hilabeteco eouguerdi ondo batez, ardi tropa bat alhatcen çouçoun mendi baten gaignian; artçaïgna lokhartou çouçoun: iratçartciaikin apercebitu cicin Tantugou, çoinac ihes iten baitcien oyhaneco alderat. Içan çouçoun berdin eçagoutia cabalaçaïgnez, ordoki poillit batian, etçana arroca baten gaignian.

Oono egoun, Pyrénéetaco cembat herritan, haourrac beldour tçou hain daco. Noiz eta mouthico tipi batec edo nechcato tipi batec e dienian obeditou nahi bere amari, hounec erraiten diacoçou: “Khasou in tçac hiaouri! deitcen diat Tantougou, eta, ichtantian, yinen douc oyhanetic”!

Etchart, 42 ans, Jaxu
Coll.: Arnaud Etcheberry

LANTABAT / LANDIBARRE

(Canton d'Iholdy)

Population: 621

Baziren bestorduz Espagnaco funteraco mendier contraco herri batian gizon bat eta emazte bat çahartiac. Etzuten etche ttipi bat baratce bat eta behi bat becic. Bainan praubiac izanik ere, sokhorritzen ziuzen bethi hec beino beharraguac zirenac. Egun batez lurra estalia zen elhurrez eta kharroin bat gaitza ari zen. Herrico yende guzia berotzen zagon untsa yaten eta edaten zielaiç; aberats eta irus zien. Ilhuncian, bi bidayantec, heldu zienac urrunetic nahi ukhan zuten baratu lekhu hartan, zeren hoztiac eta gossetiac beizien; yoiten dute bortha batian, guero beste batian eta beste barnetan ere, nehorc eziuzten nahi ukhan utci sartcerat ez eta ere deussic eman yatera. Kassatiac orotaic, chakhurrez akhulatiac, bi estranyerrec etçakiten nora yuan noiz eta ere khaussitu baitziren herriaren bazterrian, erran den guizon eta emazte praube heyen etchearen ainzinian. Inzutiarekin heyen plegniac, senharra yuaiten da leihora, deithacen tu eta haren emaztia yuantzen fite bortharen zabalcera. Galdeguin gabe nor ziren, sarrasten tu eta yarrazten supazterrian, guero emaiten de esne eta zembeit gaztagna, hec ziuzenac oro. Bainan orduan Salbazaile yauna: cen hura zen Yondoni Petrikin, chutizen da, buria guzia arguiz distiratzen zuelaric eta erten dee: “Ziec, praube eta hunac ziezte; zien auzoac, aberats eta gaichtoac dira. Yaunaren justicia eguin dadila!”. Berehala lurra ikharatcen da, Yessus eta Yondoni Petri bichtatic galzen dira eta bi çaharrac yartzen dira belhaunico. Biharamun goitzian, yuan nahi ukhen zutenian herrirat, yakiteko zer phassatuic cen, etzuten ikhussi etcheric batere; heen plaçan phutzu handi bat zen, zoina khaussitzen beita oraino égun, Barbazan deitzen den herriaren eta San Bertran de Cominge deitzen den hiriaren artian. Behar dira lagundu malerussac.

oOo

Tantugou çahar bat da gordatzen dena oihanetan. Zaintzen tu alhorrac eta phenciac nehorc deus ebatsi gabe. Oguiac phikatzen direnian edo belharrac ebakiac, naussiac oro bildu artino Tantugouc ez du batere loic eguiten, bethi zain dago. Bethi noiz aguertuco den beldurraz, daude ohoinac. Huna da, sinhes zazie, baina salbaya da. Laborari yakintsun batec erten zuen ardura bere semer Tantugou zela segur lurreco fruituen zaintçaleic hoberena.

Uztaillaco axalde batez ardi tropa bat phassatzen zen mendi baten gainian; arçagna lokharzen da; irazarriakin ohartcen da Tantugou lasterca duala oihanari buruz. Içan zen berdin eçagutia arçaignez mendi zola batian, etçana arroca baten gainian.

Oraino egun bortu ondoco herri batzutan, haurrac beldur dira harendaco. Muthico ttipi batec edo nechkato batec ez dienian obeditu nahi amari, amac erten dee: Guardaman! oihu eguinen dakonat Tantugouri eta berehala jinen dun oihanetic

Paguéguy, 49 ans, né à Lantabat

LARCEVEAU-CIBITS-ARROS / LARZABALE

(Canton d'Iholdy)

Population: 199

Barbazeneco ichtoria

Bazen lehenago Pirenetaco herri batian guizon bat eta emazte bat biziki zahar zienac. Etzuten etche ttipigno bat, baratze bat eta behi bat bezic. Bena hain probiac izanaatic sokhorritzen zituzten bethi berac beno biziki probiaguac zienac. Egun batez lurra elhurrez kukutia zen, eta kharrougn bat eguiten cien harriaren erdiatzekua. Herrico yende guciac berotzen ari zien, yatiakin eta edatiakin; aberax eta irus zien. Ilhun naarran, bi bidayant urrunic heldu zienac nahi ukhan zuten lekhu hortan baratu, zeren hotz eta gose bitzien; yo zuten bortha batian, guero beste batian eta oono beste azutan: nehokee etzituzten sartzea utzi nahi ez yatea yeus eman nahi. Kasatiac orotarik, chakhur borthitzez persekeitiac, bi estranyerrec etzakiten norat yuan, noiz eta ere khausitu bitzien herri bazterrian guizon eta emazte probe zien hoiien etchiaren aitzinian. Intzutiakin heen plegniac, senharra emantzen leihuan, heen deitatceco eta emaztia yuantzen behala borthain zaaltzea. Galdiin gabe nortzien, sarraazi eta yarrazi zutzen suphazterrian; guero eman zezteen ziuzten esne eta gaztagna guziac. Bena ordian, Gure-Salbazailia, -huazen Yondoni Petriikin, -chutitu zen, buria argui arguia, eta errantzeen: "Ciec, probe ziezte eta hun; zien auzuac aberax dira eta gaichto. Yinkuain yustizia ina izan dadila!". Ordu berian lurra ikharatu zen, Yesus eta Yonboni Petri ezeztatu zien eta bi zaharrac erori zien belhaunico... Bihamoun goizian, nahi ukhan zutenian yuan herrirat, yakiteco ze phasatu zen, etzuten ikhusi etche bihi bat: heen lekhian phutzu handi batzen, egun oono khausitzen dena Barbazaneco herriain eta San-Bertrand-de-Commingeco hiriaian artian.

Sokhorritu behar dira miserabliac.

Tantugouin ichtoria

Tantugou oihanetan gordatzen den guizon zahar bat da. Beiratzen tu alhorrac eta phentziac amoreagatic eta hetan yeus ez dezaten ebax. Noiz eta ere oguiac pikhatiac beitera edo belharra ebakia, agnic eta nausiac oro sarthou artio, Tantugouc ez du loik batere eguiten; bethi guardian doo. Haren aguertzen ikhustearen beldurrac atchikitzen ditu ohognac. Huna da, sinhexazie, bena basa da. Biziki gauza zakien laborari batec erreiten zien ardura bere semer Tantugou zela segurki lurecco fruitien zaintzaleik hobeena. Uztailla hilaiteco axalde batez, arthalde bat alhantzoon mendi bizkar batian; artzagna lokhartu zen: iratzartziakin ohartu zen Tantugou ihesi zuala oihaneco aldeat. Orobat ezagutia izantzen artzagnez mendi arte pollit batian, harroca baten gagnian etzana. Egun oraino, Pirenetaco zumbeit herritan, haurrac beldur dira haindaco. Noiz eta ere muthico ttipi edo nechkato ttipi batec ez beitu nahi bere amari obeditu erraiten daco: Guardimac hiri! Oihu iten dakoat Tantugouri eta, mementian, yinen duc oihanetic

Etchégoïnberry, 21 ans, né à Beyrie-sur-Joyeuse
Coll.: Lespade et Bidegain Pierre

OSTABAT / IZURA

(Canton d'Iholdy)

Population: 396

Bacen leheno, Pyrenetaco herri batian, guiçon bat eta emazte at biciki chahar cienac. Etçuten etche ttipi bat beciç, baatce at eta behi bat. Bena combat nahi probe cien sokhoritcen çusten berac beno probio cienac. Egun batez, lurra koukoutia cen elhurrez eta kharrougn iten cien harrien zartasteco guisan. Herrico yende guciac, beotcen cien, yatiain eta edatiain; abeac cien eta irous. Ilhountcian, bi bidayant, ourrounic heldu cienac, nahi ukhan çuten baatu lekhu hartan hotz eta gose baitcien; yo çuten bortha batian, gueo beste atian eta beste batçutan oono; nehokec ere etçutzen utci nahi ukhan sartcera, ez eta ere eman deuse yatea. Casatiac gucitaic, lastercatiac chakhur coleratu batçuz, bi estranyerrec etçakiten noat yoan, noiz eta ere khausitu baitcien herri basterrian, probe cien guiçon eta emazte hen etche aitcinian. Intçutiaikin hen plegniac, senharra yari cen leihouan her oiuhu iteco eta hain emaztia yuan cen fite borthain çaaltea. Galdin gabe nor cien, saraci çuzten eta yarraci su pasterrian. Gueo cherbitchatu ceeten esne eta çombait gastagna, çuzten guciac. Bena ordian gure Yncua, - hua cen Yondoni Petriikin – chutitu cen, buria argui arguia, eta erran ceen: ‘Ciec probe eta houn cizte, cien ausuac abeacac eta gachtuac dira. Yncoain yustician in daila’. Dembora berian, lurra ikhaatu cen, Yesus eta Yondone Petri galdu cien eta bi chaharrac belhaunicatu cien. Bihamun goician, nahi ukhan çutenian yuan herrira, yakiteco cer pasatu cen, etçuten ikhousi etcheate; hen lekhan bacen phutçu bat oono hatcemaiten dutena Barbazaneco herriain eta Saint Bertrand de Comingesco hirriain artian.

Behar dira probiac laundu.

oOo

Tantugou chahar bat da gordatcen dena oihanetan. Beguiatcentci alhorrac eta phintciac ebax ez deçaten deuse. Oguiac phicatuic dienian edo belharra ebakiic, gucia bildu artio nausiatic, Tantugouc ez du bate loic iten; iratçarriik da bethi. Haren aguer beldurrac gueldic egonasten tu ohognac. Houna da sinhex cacie, bena salbaya da. Laborari batec, hanitz gauça çakienac, erten cien usu bere semer Tantugou cela segurki lurreco fruten beguirariic hobena. Ustailla axalde batez, ardi saldo bat baskatzen cen mendi batian; artçagna loc hartu cen; iatçarçiaikin, apreçebitu cien Tantugu espacatcen oihaneat. Hala hala eçautia içan cen behi çain batçuz ordoki poillit batian, etçanic harrobia batian. Egun oono, Pyrenetaco herri çonbaitetan, haurrac haen beldur dia. Mothico ttipi batec edo nechcato ttipi batec nahi ez dutenian obeditu bere amari, erten daco: “Abisa hadi; oiuhu iten diat Tantuguri, eta ichtantian ynen duc oihanetic.

Jauréguy Pierre, né en 1858 à Musculdy
Coll.: Jean Etchemendy et Aldacour Guillaume

SAINT-JUST-IBARRE / DONAIXTI-IBARRE

(Canton d'Iholdy)

Population: 364

Bacen lehenogo, Pyreneetaco herri batean guiçon bat eta emaste bat arraz çahartuac. Ez çuten etche ttipi bat baicen, baratze bat eta behi bat. Bainan, hain pobreac içana gatic ere, socoritcen çuten bethi hec baino pobreago cirenac. Egun batez, lura elhurrez estalia cen, eta harien erdirasteco karoïna eguiten cuen. Herrico jende guciac berotcen ciren, jaten eta edaten çutelaic; aberats ciren eta uros. Ilhuncian, bi bideyent hurundic heldu cirenac nahi içan ciren guelditu toqui hartan, ceren hostuac eta gosetuac baitciren; jo çuten bortha bati, guero beste bati, eta aintcina beste batçuei: nehorc ez ciusten nahi içan utci sartcerat, ez deusic eman yatera. Casatiac gucietaric, perseguitiac chacur gaitcez, bi estrangerec ez çaquiten norat juan , noiz eta khausitu baitciren heriaren basterian, guiçon eta emaste pobre heien etche aintcinean. Entçutiarequin heyen pleiniac, senhara leihoratu cen heyen deithatcera, eta haren emastiac laster eguin cuen bortharen çabaltcerat. Galdeguin gabe nor ciren, sarraraci ciusten eta jarraraci su phasterrean; guero, cerbitchatu cioten ezne eta cembait gastana, ciusten guciac. Bainan ordian, Jincoa –houra cen Jondoni Petriequin,- jeyqui cen, dena distiranta eta erran cioten: “Ciec, pobreac ciste eta onac; çuen ausuac aberatxac dire eta gaichtoac. Jincoaren justicia eguin dadiala!”. Ordu berean, lura ikharratu cen, Yesus eta Yondoni Petri galdu ciren, eta bi çaharrac erori cien belhaunica. Bihamun goicean, juan cienian herirat, jaquitera cer iragan cen, ezçuten ikhusi etcheric batere; hequien plaçan, bacen laco bat, oraino egungo egunean khausitcen dena Barbazaneco heriaen eta San-Bertrand-Commingeaco hiraren artean. Behar da lagundu malerusac.

oOo

Tantugou oihanetan gordetcen den çahar bat da. Saintcen tu alhorrac eta phentxiac deusic ebatz ez deçaten. Oguiac edo belharra ebaquitiac dienian, denac nausiac sar artino, Tantugouc ez du loric eguiten; bethi guardian dago. Haren ikhus beldurrac atchiquitcen tu ohoinac. Ona da, sinhets açué, bainan salbaya da. Laborari, hainitz gauça çaquien batec erten cien ardura segur Tantugou lureco fruituen guardinoric hobena cela.

Ustarilaco arratxalde batec, ardi saldo bat alha çagon mendi batian; artçaina loac hartuc cien; irratçarciarequin, ikhusi cien Tantugou espacatcen oihaneco alderat. İçan cen oraino eçagutia artçainez vaillea pullit batean, etçana arroca batian.

Oraino egungo egunean, Pyreneetaco cembait herritan, haurrac harendaco beldur dira. Muthico edo nechcato ttipi batec ez dienian sinhetsi nahi bere amari, erten dio: Guardia emac hiri! Jinaracico diat Tantugou, eta ichtantian, jinen duc oihanetic!

Jean Jauréguy, né à Larrau

SUHESCUN / SUHUSKUNE

(Canton d'Iholdy)

Population: 362

Barbazaneco ichtoria

Bazen lehenago Pyrénéetaco herri batian guizon bat eta emaste bat arras zahar cirenac. Ez zuten etche ttipi bat, baratce bat eta behi bat baizic. Bainan zombat nahi pobre ciren, socorritcen ciuzten bethi hec baino pobriago cirenac. Egun batez, lurra elhurrez coucoutha cen eta kharroina ari cen harriac arrailtcerainocoan. Herrico yende guciac berotcen zauden, yaten eta edaten ari cielaric; aberats ciren eta uros. Ilhun nabarran, bi piayant urrunic heldu cirenac, nahi izan ciren guelditu lekhu hartan, ceren hotçac eta gosiac baitciren: yo zuten bortha bat, guero beste bat eta bertce batçu oraino: nehore ere ez ciuzten utci nahi sartcera, ez eta ere deus eman yatera. Orotaric casatiac, chakhur fuchos batçuez seguitiac, bi estranyerrec ez zakiten norat yuan, herriaren bazterrera cirenian guizon eta emazte pobre hen bortha aiticinian. Heyen plegniac entçutiarequin, senharra leihuan eman cen heyer oihu eguiteco eta emaztia yuan cen fite bortharen zabaltcera. Galdeguin gabe nor ciren sarraraci eta yarraraci ziuzten beren supasterrian; guero cerbitçatu zeeten esnia eta çombait gaztena, ziuztenac oro. Bainan ordian, Jesus-Christo – hura cen, Yondoni Petrirequin- yeikitcen da, buria oro distirant, eta erraiten dere: “Ciec, pobre eta hun ciezte; cien aūzuac aberats eta gaichtuac dire. Yaincuaren yusticia eguina izan bedi!”. Berheala lurra ikharatu cen, Jesus eta Yondoni Petri ezetzatu ciren eta bi zaharrac belhaunico erori... Biharamun goician, nahi izan cirenian herrirat yuan yakitera cer passatu cen, ez zuten ikhusi etcheric batere: heyen lekhian ur handi gueldi bat bazen, egun oraino causitcen dena Barbazaneco herriaren eta San-Bertrand- de-Commingeco hiriaren artian.

Malhurosac lagundu behar dire.

Tantugouren ichtoria

Tantugou guizon zahar bat da oihanetan gordatcen dena. Beguiratcen tu alhorrac eta phentciac deus ebats ahal ez dezaten. Oguiac picaturic direnian eta belharrac ebakiric, nausiatic bildu artino, Tantugou ez du loric eguiten; bethi iratçarria dago. Haren ikhusteco beldurrac dauzca ohoinac. Ona da, sinhets zazu, bainan basa da. Laborari batec hanits gauza zakienac erraiten zien ardura bere semer, Tantugou cela segurki, lurreco fruituen beguiraric hobena.

Uztaileco ilhabetian eguerdi ondo batez, ardi tropa bat alha cen mendi batian: artçaina louac hartu cien; iratçartciarekin, ikhusi cien Tantugou oihanerat ihesari emaiten. Orobat ezagutia izan cen artçain batçuez baillea poillit batian, etçana harroca baten gainean.

Egun oraino Pyrénéetaco zombait herritan, haurrac haren beldur dira. Muthico ttipi batec edo nechcato ttipi batec ez dienian obeditu nahi bere amari hunec erraiten daco: Garde emac (edo eman)! Tantugouri oihu eguinen diat (edo dionat) eta berheala yinen duc (edo dun) oihanetic!

Duhalde, 46 ans, né à Suhescun.

Coll.: Etchepareborde, ancien maire, âgé de 72 ans

AINHARP / AINHARBE

(Canton de Mauleon)

Population: 292

Baçuçun lehenago, Pyrénéetaco herri batetan; guiçon bat eta emaste bat, hanitz çahar cirénac. Etcicien etche tchipi bat, baratce bat eta behi baicic. Bena, çombat nahi praübe cien, berac béno praubiago cirénac, bethi socorritcen citicien. Egun batez, lurra elhurrez gorderic çuçu, eta icigarrico kharroua ari çuçu. Herrico jentiac oro, berotcen ari çutuçu, jaten eta edaten cielaic, abératx eta irous çutuçu. Ulhuncin, bi bidayant, hurruntic jiten cirénac, nahi iça çutuçu ukhuatu lekhu hartan, ceren hotz eta gosse beiticiren. Jo cicien bortha bat, guero beste bat, eta guero bestéic orano; ihourkere etciticien nahi ukhen utci sartcéra, ez deüs éré eman jatéra. Orotaric cassaturic, hor khéchatiéç persébituric, bi bidajentec etçakicien nouat joun nouiz eta éré edireiten beitira herriaren basterrian, guiçon eta emaste praübe hayen etché aiticnian. Hayen plaintac entçutez, senharra elkhi çuçu leihoula, hayen deitceco, eta emastia joun çuçu bertan bortharen çabalcéa. Galhatu gabé nour ciren, sarréraci citicien eta jarréraci beren suthondun; guéro, cerbutchatu cieçu esne eta gastagna çombait, ciéna oro. Bena ordin, Goure Jingo Jauna – houra çuçu, Joundane Phétiriékin- jeiki çuçu, buria argui arguia, eta erran cieçu: “Ciec, praübe et houn cirié; cien aiçuac abératx eta gaisto dutuçu. Jincouaren justicia eguin bedi!”. Hambesténarekin, lurra ikharatu çuçu eta bi çaharrac erori belhaico... Bihâmun goiça, nahi iça cienin joun herrila, jakiteco cer igaran cen, etchéric batére etcicien ikhusi: heyen lekhin, baçuçu, losco bat, orano orai éré edireiten déna San Bertrand de Commingeco hiriaën eta Barbazaneco herriaren artian. Malerousec behar dicié socorritu.

oOo

Tartaroua duçu guiçon çahar bat, oyhanétan gordatcen dena. Alhorrac eta sorhouac beguiratcen ditiçu, deüsere ebatx estecen. Oguiac eta belharra ebakiric direnian, buruçaguiaic oro bilartio, Tartaroua estuçu lotcen; bethi beillatcen duçu. Haren aguertcen ikhusteco lotxac beguiratcen ditiçu ouhounnac. Houna duçu, sinhex eçaçu bena bassa duçu. Hanitz gaiça çakien laborari batec erraiten çuçu ardura bere semer lurreco fruten beguiraçaleric hobena cela Tartaroua.

Ustarila arrestiri batez, ardi saldo bat alha çuçu mendi batetan; artçagna loac hartu çuçu; iratçartcian abisatcen duçu Tartaroua baçuouela ihes, oihanilat buruz.

Ulhain eli batec ere eçaçutu cicién naba eger batetan, arroca baten gagnen, etçanic.

Egun ere orano, Pyrénéetaco herri çombaitetan, haürrac haren lotxa dutuçu. Muthico tchipi batec eta nechcatila tchipi batec amari estenian nahi obéditu, amac erraiten dioçu: Abisa hadi! Deitcen diat Tartaroua eta behala jinen duc oyhanetic.

Elissagaray, 40 ans, Saint-Michel

ARRAST-LARREBIEU/ÛRRÛSTOI-LARRABILE

(Canton de Mauléon)

Pop.: 259

Bazen lehenago Pyrénétaço herri batetan gizon bat eta emaste bat hanitz zahar zienac. Etzien etche chipi bat, baratze bat eta behi bat baisic. Bena zounbat nahi praübe isanic ere, sokhorritzen zutien bethi berac beno praübigouak. Egun batez lurra gorderic zen elhurrez eta kharrouak erdiatzen zin. Herriko jentic oro berotzen ari siren jatiarekin eta edatiarekin, aberatx eta irus ziren. Ulhuntzin, hurruntic jiten zien bi bidayant nahi izan zien arreztatu lekhu hartan seren gose eta egarri beitzien, jo zien bortha batetan, gero beste bat batetara eta orano beste bat sounbaitetan; ihourc ere etzutien nahi ukhen utzi sartzera es eta deuse eman jatea. Ohilturic bazter orotaric, jarraikiric hor malesian zien elibatez, bi arrotzek etzakien nourat jouan, nouiz eta ediren beitziren herriaren bazterin guizon eta emazte praübe harien etchiaren aitzinin. Haien plagnien entzutiari, senharra jarri sen lehoun hen deitzeko eta emastia jouan sen bertan bortharen sabaltsera. Her galthatu gabetaric nour ziren, sar errassi zutien eta jar errassi beren suthondoun, gero zerbutchatu seyen ezne eta gastigna sounbait, sutienac oro. Bena, ordin, Goure Jaüna, - houra cen Jon Joundane Phetirirekin jeiki sen buria argi argia eta erran ceren: “Ziec praube eta houn zidie, zein aizouk aberatx eta gaisto dira: Jincouaren justicia egin dadila!”. Hain sari lurra ikharatu sen, Jesus eta Joundane Phetiri galdu siren eta bi saharak erori siren belhaiko... Biharamen goizan, joun nahi izan sirenian herrila jakiteko ser igaran sen, etzien ikhoussi etcheric batere; haien lekhin basen losko handi bat souin ere edireiten beyta orano egun Barbazaneko herriaren eta Saint-Bertrand-de-Comminjeko hiriaren artin. Behar dira laguntu malerusak

oOo

Tantugou gizon zahar bat oihanetan gordatzen dena. Begiatzen tu alhorak eta sorhouak, amourekati han deuzere ebax estesen. Nouiz eta ogiak mousturik beitira edo belharrak ebakiric, oro buruzagiz sarthurik izan artio, Tantugou ezta batere lotzen, iratzarririk dago bethi. Haren ikhousteco loxak baratzen tu ouhouñak. Houn da sinhex ezazu, bena salbaje da. Gaïça hanitz sakin laborari batek erraiten zien usu bere semer, Tantugou zela segur lurreko uzten begiariric hobena.

Uztailaco arraztiri batez ardi-saldo bat alhan ari zen mindi baten gañen; artzaña lothu zen: iratzarsiareki ikhousi sin Tantugou oihanilat eskapatzen. Ezaguturik izan tzen ere behi begirazalez, arbailla ejer batetan, arroka baten gañen etzanik.

Orano egun Pyreneetaco herri zoubaitetan haürrac harren loxa dira. Nouiz ere mothiko chipi batek edo neskachou batek ezpeitu nahi obeditu bere ama hounec erraiten deyo: Kasu egin esak hiri! deitezen dut Tantugou eta hain sari jinen da oihanetik

Laplume, âgé de 45 ans, né à Moncayolle

Coll.: M. Daguerre; M. Sagardoyburu

AUSSURUCQ / ALTZÜRÜKÜ

(Canton de Mauléon)

Population: 570

Barbazaneco errankiçuna

Baçutuçun bestordus Pyrénéac deitcen dien borthien khantuco herri chipibatetan senhar emasté élibat hanitch çaharrak. Praoué çutuçun; etcicien etché chipi bat, baatcé bat eta behi bat baïcic, bena, çoumat nahi praoué içan citin, bethi beak beno praué handiagouk sokhorritcen citicien. Egun batez lurra elhurrez gorderik çuçun eta kharroua aï hain borthiski noun udui beïtcin harrik é erdiatu behar çutila. Herri chipi hartaco gentik oro been etchetan beotcen aï çutuçun, jaten eta edaten cielaïk, abéatz eta ious beïtcien. Ullhuncin, bi bidejant çougn hurrunti horra beïtcien, ekhuatu nahiçan çutuçun herri hartan, ceen gosia eta hotça sendi beïtcien. Jo cicien bortha bat eta beste hanitch oano: ihouné etciticien utci nahiçan sartera ez eta eman jatea. Ootaïk kassatuïk, cakhur borthitz élibatez jarraïkirk, bi estrangé hec etçakicien nouat joun nouiz eta herriaen basterin aguïtu beïtcien guiçon eta emasté hayen etché aïtcin. Bidejanten plaïntak entçun beçagn sarri, naousia joun çuçun leihoula hen deitcea eta ber denboan emastia borthain sabaltcea hen barneat sarrasteco, galthezin gabé nour cien. Been suthondoun jarraci citicien eta eman ezné eta gastagna ezpeïtcien deuzé besteïk. Bena ordin, Jesus Christ, ceen houa beïtcen sen Pierraeki, jeïki çuçun, alagueatuïk eta senhar emasté her erran cieçun, “Ciec praué eta houn cidé, cien aïçouk aldiz abeatz eta gaïçto: Jincouaen justicia eguinik içan dadila!”. Ber denboran lurra ikhaatu çuçun, Jesus-Christ eta sen Pierra hanti galdu eta senhar emasté çahar houk belhaïko jarri. Bihamenin, nouiz eta senhar emaste praué houk herrilat joun nahiçan beïtcien jakitea cer iğan cen, etcicien etcheïk ikhousi. Hen lekhin oro hour handi batec hartucik çuçun eta egunco egunin oano hour houa edieiten duçu Barbazaneco herriaen eta Sen Betran-de-Commingues deitcen den hiaen artin.

Feit horrec markatcen eta probatcen dikuçu maleous dienac laguntu eta sokhorritu behar diela.

Tentugouen errankiçuna

Tentugou duçu oiñanetan bici den guiçon çahar bat. Ber demboan maité diçu besten alhor eta sohoun beguiatcia, gaïski eguilen ephantchatceko deuzé ebasteti. Nouiz eta oguïk phikatuïk eta belharrak ebakik beïtira; houk naousik barneat bil artino, Tentugou eztiçu loïk eguiten, gaï eta egun beïllan duçu. Haen ikhousteco lotsak ouhounak ephantchatcen tiçu gaïski eguiteti. Guiçon houna duçu, bena salbaje duçu. Gaïça hanitch çakin laboai batek bé semer usu erraiten cieçun Tentugou cela segurki lurreco fruten beguiraïk hobena.

Ousthaïla deitcen den hilabeteco arristi batez ardi saldo bat bascatcen aï çuçun mendibatetan, hen artçagna louak hartu ciçun eta iatçartciaeïki apercebitu ciçun Tentugou oiñanilat eskapatcen cela. Besté artçagn élibatec é eçagutu cicien naba éjer batetan etçanic celaïk arroka batetan.

Egun oano Piréré deitcen dien bortu ondoko herri çoumbaïtetan, Tantugou deitcen den guiçon haen haourrak loxa tuçu: Nouiz eta é haourrek mothiko edo neskatila ican ditin, espeïtuke been amak sinhetsi nahi, hounek erraiten dieçu: “Abisa cité deithuko dut Tentugou eta behala jinen da oiñaneti.”

Elhe horrec haourrac obédient errendatcen tiçu.

P. P. Salles, 27 ans, né à Garindein (B^{ses} Pyrénées)

Coll.: Garat, Pierre

BARCUS / BARKOXE

(Canton de Mauléon)

Population: 1740

Barbazan-en ichtoria

Beste aldiz bort'ondoko herri batetan, bazutuzun gizoun bat eta emazte bat izigarri zahar zirenak. Etzizien etche tchipi bat, baratze bat eta behi bat baizik bena zoumbat nahi praube ziren, sokhorritzen zitizien bethi berak beno praubigouk. – Egun batez elhurrez lurra gorderik zuzun, eta ber denboran ari zuzun kharrou izigarri bat. – Herri hartako jentik oro, jatez eta edatez, zagotzun beren suthondoutan: aberats eta irous beitzien. – Ulhuntsin, bi bidajant, hurruntik jiten zienak, ukhuratu nahi izan zien lekhu hotan, gose eta egarri zielakotz; jo zizien bortha bat, gero beste bat, gero besterik hanitch, ihourk ere ezititizun sartzera utzi ez eta deus eman jatera. – Orotarik igorririk, hor gaitz elibatez lasterkaturik, bi estranjerek etzakizien nourat joun: nouiz herri bazterrila ondoun, gizoun eta emaste praube haien etche aitzinin agitzen beitira. Hen oihik entzunik, senharra leihoulatzen duzu hen deitzeko eta emaztik bertan bortha zabaltzen duzu.

Arainkuratu gabe nour zien, sar erazi zitizien eta jar erazi bere suthondoun; gero zerbutchatu ziezun ezne eta gaztaña zoubait: etzizien besteik.

Bena ordin, goure Jaouna, - ezi hora eta bera zuzun Joundane Phetirireki, - jeiki zuzun, argiz inguraturik eta erran ziezun: “*Zuk, praube izana gatic, jente hounak zidie, zien aizouk aberats eta gaichto tuzu; - Jinkouren justizia eginik izan dadila!*”

Hainbestereki, lurra ikharatu zuzun, Jesus eta Joundane Phetiri galdu zutuzun eta bi zaharrak belhaiko erori.

Bihamen goizan, nahi izan zienin joun herrilat, jakitera zer agitu zen, etcherik etzuzun haboro ikhouston, hen lekhin, hour handi bat (lac) egun orano edireiten dena Barbazzen-eko herriren eta Saint Bertrand de Comminges deitzen den hiriren artinBethi beharduner lagungoa eman dezegun.

Tantugou-en ichtoria

Tantugou oihanetan gordatzen den gizoun chahar bat duzu. Begiratzen tizu alhorrak eta sohok, han deus ebats eztaadin. Nouiz ere ogik mouzturik edo belharrak ebakirik beitira, oro buruzagik etcherat bil artino, Tantugou eztuzu lotzen, bethi goutan duzu. Haren lotsak etchekiten tizu ouhouñak. Houn duzu zegur, bena gaitz eta moulede gabe. Hanitch gaiza zakin laborari batek usu bere semier erraiten zie/ozun Tantugou zela segur lurreko hountarzunen begirari hobena.

Uztailako arristiri batez, ardi saldo bat alha azi zuzun mendi baten gañen: artzaña lothu zuzun. Iratzartzin ikhoussi zizun Tantugou ihes egiten oihanilat. Bardin ezagaturik izan zuzun artzañi elibatez, naba ejer batetan, etzanik arroka baten gañen.

Egun orano, bort'ondoko herri zoubaitetan, haourak haren lotsa tuzu. Mouthiko edo neskatchar batek ama ezтинin sinhetsi nahi, hounek erraiten diozu: “*Abisa hadi, deitzen diat (ou diñat) Tantugou eta mementin jinen duk (ou dun) oihanetik*”.

Touan Germain, né à Barcus le 27 avril 1853
Coll.: Etchebarne, Maihegu, Salaber Beaudeant

Barbazaneco ichtoria

Bacen lehenago Pyreneetaco herri batetan guiçoun bat eta emaste bat hanitch cahar cienac. Etcien etche chipi bat baratce bat eta behi bat baicic. Bena, çoumbat nahi praube izanagatic, sokhorritcen çutien bethi hourac beno praube ago cienac. Egun batez, lurra elhurrez tapaturic cen, eta kharrountatcen ari cen harrien erdiratceco maneran. Herrico jentiac oro berotcen ari cien jatez eta edatez, eberax eta irous cien. Ulhuntcian bi bidajant hurruntic jiten cienac nahi izan ciren ukhuatu lekhu hartan, hotz eta gosse baitziren; jo cien bortha batetan, guero beste batetan eta beste elibatetan oraino: ihourc ere ez tcutien nahi ukhan sartcera ez eta her deus eman jatera. Orotaric casaturic, perseguituric hor gaitz elibatez, bi estranjerrec etçaquien nourat jouan, nouiz eta agitu beicien herri basterrian, guizoun eta emazte praube cien hen etche aitzinian.

Entçuten çutialaric hen miseriac, senharra leihouan jarri cen hen deitceco, eta emaztia fite jouan cen bortharen çabaltcera. Galthatu gabe nour ciren, sar araci çutien eta jar eraci heen suthondouan; guero cerbitchatu ceyen ezne eta gaistagna çoumbait, cutienac oro. Bena ordian, goure Jauna –houra cen Jondane Phetiriequi,- jeiki cen, buru listreatcen cen batequi, eta erran ceren; “Ciec, praube cirie eta houn; cien aiçouac aberax dira eta gaichto. Jincouaren justicia eguin dadila!”. Hain sarri, lurra ikharatu cen, Jesus eta Jondane Phetiri galdu cien eta bi çaharrac belharrico erori cien... biharamen goician, nouiz ere jouan nahi izan baitciren herrialat jakiteco cer igaran cen, etcien ikhousi etcheric batere: hen lekhian bacen lac bat, çouin edireiten beita oraino egun Barbazaneco eta Saint-Bertrand-de-Comminges hiriaren artian.

Behar dia laguntu beharrian direnac.

Tantugouen ichtoria

Tantugou çahar bat da çouin oyhanetan gordatcen beita. Beguiatcen tizu alhorrac eta sohouac, amoreacatic eta ez decen hetan deusere ebax. Nouiz ere ogiac picaturic beitira, eta belharra ebakiric, buruçaguiaç oro bil artino, Tantugou ez ta batere lotcen; beillatcen da bethi. Haren ikhousteco loxac hurruntcen tu ouhouignac. Houn da, sinhex ezazu, bena salbaje da. Laborari gaiça hanitch caquian batec erraiten cian usu bere semer Tantugou cela segurki lurreco fruten beguiratcaleric hobena.

Uztailaco arrastiri batez, ardi tropa bat alha cen mendi batetan; artçaina lothu cen; iraçar ciarequi, apercebitu cian Tantugou lasterca jouaiten oyhanialat buruz. Eçagaturic içan cen ere artzagnez ibar ejer batetan, etçanic arroca batetan gagnen.

Egun oraino, Pyrenéetaco herri çouimbaitetan, haurrac haren loxa dira. Nouiz ere muthico tchipi batec edo nescatchun tchipi batec ezeptu nahi sinhexi bere ama, hunec erraiten deo: Gogua eman (si c'est une fille), Gogua emac (si c'est un garçon), deitzen diat (si c'est un garçon), deitcen dinat (si c'est une fille) Tantugou, eta behala jinen duc (à un garçon), jinen dun (à une fille) oyhanetic.

Jean Errécart, 26 ans, Iroulégu
Coll.: Maître de Ayçaguer, ancien maire

CHARRITTE-DE-BAS / SARRIKOTAPEA (Canton de Mauléon) Population: 363

Bacen lehenago Pirene etaco herri batetan gizon bat eta emazte bat hanitch zaharrac. Etcien etche chipi bat, baratce bat eta behi bat baicik. Bena, zoubat nahi praübe cien, sokhorritcen zutien berac beno praübigo cienac. Egun batez lurra elhurrez gordeik cen, eta kharrouc erdiatcen cin. Herrico jentik oro berotcen ari ciren, jaten eta edaten cielaic; aberatx eta irous ciren. Ulhuncin, hurrunti jiten cien bi bidejant nahi zan cien baatu lekhu hartan, ceren hotz eta gosé beiticen; jo cien bortha bat guero besteik orano: ihourc ere etzutin nahi uken utci sartcera, ez deus eman jatera. Bazter orotaric akasaturik, zakhur gaitcez jaraikirik, bi estranjeek etzakien nouat joun, nouiz édién beiticén herriaen burin, praübe cien gizon eta emazte hayen etchiaen aïtcin. Hayen plenten entzutiarekin, senharra jarri cen leyhoun, hen deiteco, eta haren emastia fite jun cen borthaen zabaltea. Galthatu gabe nour cien, sar-eaci zutien eta jar'aci beren suthondoun; gero zerbutchatu ezne eta gaztaña, hek ciena oro. Bena ordin, Goure-Jaüna – hora cen joundane Phetiri eki – jeiki cen, buria argi argia eta erran ceren, “Ciek, praübe eta houn cidie, cien aizouk aberatx eta gaïchto dira. Jincouaren justicia egin dadila!”. Haïn tsari lurra ikharatu cen, Jesus eta joundane Phetiri galdu ciren, eta bi zaharrak erori ciren belhaïko....

Bihamen goïzan, herrilat joun nahi ‘zan cienin, cer igaran cen yakiteco, etcien ikhousi etcherik batere, hayen lekhin, bacen losko handi bat, egun eano edieiten dena Barbazaneco herriaen eta Saint-Bertrand-de-Comminges-eko hiriaren artin. Behar dia laguntu malerousak.

oOo

Tantugou da gizon zahar bat zoiñ gordatzen beïta oiñanetan. Begiatcen tu alhorrak eta algatzik deus ere estecen ebatx. Ogic mouzturic eta belharrak ebakirik dienin, naüsik oro bil artino Tangugou ezta batere lotzen: bethi iratzariik dago. Haren aguertzen ikhoustecko loxak etchekitzen tu ouhouïnak. Houn da, sinhetx ezazie, bena salbaje da. Hanitchko gaïza zakin laborari batek erraiten zin usu bere semer Tantugou zela segurki lurreko fruten begirariik hobena.

Arestiri batez, ustarilaco hilabetin, ardi saldo bat alhan ari cen bortin; artzaïña lothu cen: iratzartcin apercebitu cin Tantugou ezcapatcen oiñanilat burus. Bardin ezagaturik izan cen abere begirazole batzuez, naba ejer batetan, arroka batetan etzanik.

Egun oano, Pireneetaco herri zoubaitetan, haürrak loxa dira harentaco. Nouiz ere mouthiko edo neskatchouna chipi batek ezpeitu nahi bere amari obeditu, erraiten deo: Abisa hadi hiri! Tantugou deitzen diat (*masculin*) diant (*féminin*) eta istantin jinen duk (*masculin*), dun (*féminin*) oiñanetik!

B. Malet; 44ans, né à Garindein
Coll.: Etchecopar, Lapeyre,

CHÉRAUTE / SOHÛTA

(Canton de Mauléon)

Population: 1098

Barbazaneco ichtoria

Bacen lehenago Pyreneetaco herri batetan guiçoun bat eta emazte bat hanitz cahar cienac. Etcien etche chipi bat, baratce bat eta behi bat baicic. Bena, çoumbat nahi praube içanagatic, sokhorritcen çutien bethi hourac beno praube ago cienac. Egun batez, lurra elhurrez thapaturic cen eta kharrountatcen ari cen harrien erdierazteko maneran. Herrico jentiac oro berotcen ari cien, jatez eta edatez; aberax eta irous cien. Ulhuntzian, bi bidayant hurruntic jiten cienac nahi içan ciren ukhuratú lekhu hartan, hots eta gosse baïtciren; jo cien bortha batetan, guero beste batetan eta beste elibatetan oraino; ihourc ere etçutien nahi ukhen utci sartcera, ez eta her deus eman jatera. Orotaric cassaturic, perseguituric hor gaitz elibatez, bi estrangerec etçakien norat jouan, nouiz eta aguitu beïtcien herri bazterrian, guiçoun eta emazte praube cien hen etche aïtcinian. Entçuten çutialaric hen miseriac, senharra leyhouan jarri cen hen deitceco, eta emaztia fite jouan cen bortharen çabaltcera. Galthatu gabe nour ciren, sar araci çutien eta jar araci hen suthondouan; guero cerbitchatu ceyen ezne eta gaïstagna çoumbait, çutienac oro. Bena ordian, Gure Jauna –houra cen Joundane Phetiriequi- jeiki cen, buru listreatcen cen batequi, eta erran ceren: “Ciec, praube cirie eta houn; cien aiçouac aberax dira eta gaïsto. Jincuaeren justicia eguin dadila!”

Hain sarri, lurra ikharatu cen, Jesus etea Joundane Phétiri galdu cien eta bi çaharrac belharrico jarri cien.

Biharamenian noiz eta ere jouan nahi içan nahi beïtciren herrialat, jaquiteco cer igaran cen etciren ikhousi etcheric batere; hen lekhian bacen lac bat, cein edireiten beita oraino egun Barbazaneco herriaren eta Saint-Bertrand-de-Comminges hiriaren artian.

Behar dia laguntu maleroussac.

Tantugouen ichtoria

Tantugou çahar bat çouin oyhanetan gordetcen beita. Beguiatcen tu alhorrac eta sohouc, amoreacatic eta eztezen hetan deusere ebatx. Nuiz ere oguiac picaturic beïtira eta belharra ebaquiric, buruçaguiac oro bil artino, Tantugou ez ta batere lotcen; beïllatcen da bethi. Haren ikhousteco loxac hurruntcen tu ouhouignac. Houn da, sinhex ezazu, bena salbaje da. Laborari gaiça hanitch batec çaquian erraiten cian usu bere semer Tantugou cela segurki lurecco fruten beguiraçaleric hobena.

Uztailaco arrastiri batez, ardi tropa bat alha cen mendi batetan; arçaigna lothu cen: iraçar ciarequi, apercebitu cian Tantugou lasterca jouaiten oyhanialat buruz. Eçaguturic içan cen ere artçagnez ibar eiger batetan, etçanic arroca batetan gaignen.

Egun orano, Pyreneetaco herri çoumbaïtetan, haurrac haren loxa dira. Nouiz ere mothico ttipi batec edo nescatila tchipi batec espeitu nahi sinhexi bere ama, hounec erraiten deo: Gogua emac (si c'est un garçon), Gogua eman (si c'est une fille), deitcen diat Tantugou, eta behala jinen duc oyhanetic.

J. Errécart, 26 ans né à Irouléguy
Coll.: Edole maire et Goyheneix

ESPÈS-UNDUREIN / ÜNDÜREINE

(Canton de Mauléon)

Population: 198

Bacen lehenago Piréné étaco herri batetan gizon bat éta emazte bat hanitch zaharrac. Ez cien etche chipi bat, baratce bat eta behi bat baïcik. Bena zoubat nahi praübe cien, sokhorritcen zutien beran beno praübigo cienac. Egun batez lurra elhurez gordeic zen, eta kharrouk erdiatcen cin. Herrico jentic oro berotcen ari ciren, jaten eta edaten cielaric, aberatx eta irous ciren. Ulhun –tcin hurruntic jintencien bi bidejant nahi zan ciren baratu lekhu hartan, ceren hotz eta gose beïtciren; jo cien bortha bat, guero beste bat, guero besteic eano; ihourkere etzutin nahukhen utci sartcera, ez deüs eman jatera. Baster orotaric kasaturik, zakhur gaitceaz jaraïkirik, bi estranjeek etz zakien nouat joun nouiz ere edien beïtcien herriaren burin praübe cien gizon eta emaste hayen etchiaen aïtcinin. Hayen plinten entzutiarekin senharra jarricen leyhoun hen deitceco, eta haren emaztia fite joun cen borthaen zabalcea. Galthatu gabe nour cien sar-eaci zutien eta jar aci beren suthondoun; gero zerbutchatu ezne eta gastaña, hek cieno oro. Bena ordin, Goure Yaüna, (houra cen Joundane Phetiri ekin) jeiki cen buria argi argia eta erran ceren: “Ciek praübe eta houn cidie; cien aïsouc aberatx eta gaichto dira. Jincouaren justicia egin dadila.” Hain tsari lurra ikharatu cen, Yesus eta Youndane Phetiri galdu ciren, eta bi zaharrac erori ciren belhaïco. Bihamen goïzan, herrilat joun nahi san cienin cer igaran cen jakitera; et cien ikousi etcherrik batere: hayen lekin bacen losko handi bat égun éano edieiten dena, Barbazaneko herriaren eta Saint-Bertrand-de-Comminges-eko hiriaren artin. Behar dia laguntu malerousak

oOo

Tantugou da gizon zaharbat zoin gordatzen beita oihanetan. Begiatcen tu alhorrak eta algatzik, deus ere estecen ebatx. Ogik mousturic eta belharrac ébakirik dienin, nausik oro bil artino, Tantugou esta batere lotzen, bethi iatzariik dago. Haren agertzen ikhousteko loxak etchekitzen tu ouhouiñak. Hound a, sinhetxezazie bena salbaje da. Hanitchko gaiza zakin laboraribatek eraïten zin usu bere semer: Tantugou zela zegurki lurreco frutin bégirariik hobena. Arestiri batez uztarilaco hilabetin, ardi saldo bat alhan ari cen bortin; artzaña lothu cen. Iatzartzin apercebitu zin Tantugou ezcapatcen oihanilat burus. Bardin ezaguturic izan cen abere begirazale batzuez naba eïher batetan arroka baten gagnen etzanik. Egun éano, Piréné étaco herri zoubaitetan haürrak loxa dira harentaco. Nouiz ere mouthiko edo neskat-chouna chipi batek ezpeitu nahi bere ama obeditu, erraïten deo: Abisa hadi hiri! Tantugou deitzen diat (*masculin*), diat (*féminin*) eta istantin jinen duk (*masculin*), dun (*féminin*) oihanetik

Lavie; âgé de 32 ans né à Burgaronne

GARINDEIN / GARINDAINE

(Canton de Mauléon)

Population: 380

Bazen lehenago Pyrenetaco heribatetan guizoun bat eta emazte bat hanix zahar zienak. Etzien etche tchipi bat, baratze bat eta behi bat baizik. Bena zounbat nahi eskerniouan zien urgaizten zutien bethi berak beno eskerniouago zirenak. Egun batez lura thapaturik zen elhurrez eta kharrounte zen harrien erdiazteko guizan. Heriko jentiaik oro berotzen zien jatiareki eta edatiareki; aberax eta dohaxu ziren. Ulhüntzian bi bidajant hurruntik jiten zirenak baratu izan ziren lekhu hartan, zeren hotz eta gose beitzien; jo ziren borthabati, guero bestebati eta guero bestelibati orano: ihourk ere etzutien nahi ukhen utzi sartzera, ez eta ere deuserre her eman jatera. Ohilturik orotarik, jarraikirik tchakur gaitzez, bi arrotzek etzakien nouat jouan, nouiz ere khausitu beitzien heriaren bazterian, guizoun eta emazte eskerniouan zienen etche aitzinian. Entzutiarekila haien deithuak, senharra jarri zen leihouan haien deitzeko eta harren emaztia jouan zen laster bortharen zabaltzera. Her galthequin gabe nour ziren, sar erazi zutien eta jar erazi beren sutondouan; guero eman zeien ezne eta gaztagna zounbait, zutienak oro. Bena ordian, Goure-Jaouna, - houra zen, Jondane Pethiriki, - jaiki zen buria osoki argui eta erraiten deie: "Ziek, eskerniouan zide eta houn, zien aizouak aberax eta gachto dira. Jinkouaren justizia eguinik izan dadila!" Hain sarri, lura ikharratu zen, Jesus eta Jondane Phetiri galdu ziren eta bi zaharrak erori belhariko. Biharamen goizan, nouiz ere nahi izan beitziren jouan herialat, jakiteko zer igaran zen, etzien ikhousi etcheik batere: hen lekhan bazen losko bat, egün orano edireiten dena Barbazaneko heriaren eta Saint-Bertrand-de-Cominjeiko hiriaren artian. Behar die sokhoritu dohakabek.

oOo

Tantugou da zahar bat gordatzen dena oihanetan. Beguiatzen tu alhorak eta sorhouak han deus ebax eztezen. Nouiz ere ogiak edo belharra ebakirik beitera, oro thira artino buruzagiak Tantugou ez da lotzen batere; iratzaririk da bethi. Harren agertzen ikhusteko loxak tu etchekitzen ouhognak. Houn da, sinhex ezazie, bena basa da. Laborari batek sougnek beitzakin hanix gaiza erraiten zian usu bere semer Tantugou zela segurki lureko fruten begirazalerik hobena. Uztailako arristiri batez ardi saldobat alha zen bortubatetan gagnen: artzagna lothu zen; iratzartziarekilan ikhousi zin Tantugou ezcapatzen oihamilako gaintilat. Izan tzen bardin ezaguturik artzagnetzaz naba eijer batetan etzanik botchu batetan gagnen.

Oano egün Pyrenetako heri zoumaïetan haürak loxa dia harrentako. Nouiz ere muthiko tchipi batek edo nescatchouna batez ezeitu nahi sinhexi bere ama erraiten deio: abisaïn hiri (*pour une petite fille*) abisaik hiri (*pour un petit garçon*) deitzen diant (*pour une petite fille*), deitzen diat (*pour un petit garçon*) Tantugou eta, berhala, jinen duk oihametik.

Jean Arhanegoïty, né le 26 août 1868 á Lichans.

Coll.: Pierre Etchecopar

Barbazaneco arraproua

Bacen lehenago bortuco herri batetan guiçon bat eta emazte bat hanitz çahar cienac. Etcien etche tchipi bat, baratce bat eta behi bat baicic. Bena, çombat nahi prauè cien, sokhorritcen çutien bethi beac beno beharrago cienac. Egun batez, lurra elhurrez gorderic cen eta harrien erdiatceco kharroua eguiten cian. Herrico jentiac oro beotcen cien, jaten eta edaten cielaric; abetx eta irous cien. Ulhuntcian, bi bidejant hurruntic jiten cienac ekhuatu nahi içan cien lekhu hartan, ceren hotz eta gosse beicien; jo cien bortha bat, guero bestebat, eta beste elibat orano: ihourc ere etçutian sartcera nahi ukhen utci, ez eta etceren deusere jatera eman nahi ukhen. Hurrun igorric orotatic, lastercaturic hor gaitz elibatez, bi arrotcec etçakien nouat jouan, nouiz ere aguitu beiciren herriaren bazterrian, guiçon eta emazte prauè cien hen etchiaren aicnian. Hen nahi gabèn entçutiareki, senharra jouan cen leihouala hen deitceco, eta haren emazia jouan cen bertan bortharen çabalcera. Nour cien galthatu gabe sar eraci çutien eta jar eraci ber suthondouan; guero eman ceren ezne eta gaztagna çoumbait, cienà oro. Bena ordian Jesukrist goure Jauna, -houra cen Joundan Phetirieki- jeiki cen, buria oro argui batez unguraturic, eta erran ceren: “Ciec prauè eta houn ciradie; cien aicouac abetx eta gaisto dirade. Jincouaren justicia eguin dadila!” Hain sarri lurra ikharatu cen, Jesus eta Joundane Phetiri galdu cien eta bi çaharrac jarri cien belharico.

Biharamen goician, herriala jouan nahi içan cienian, jakiteco cer iragan cen, etcien ikhoussi etcheric batere: hen lekhian bacen hour ekhuratubat, Sen-Bertran-Commingeco hiriaren eta Barbazaneco herriaren artian egun orano edireiten dena.

Beharretan dieneç sokhorritu behar die.

Tantugouen arraproua

Tantugou oihanetan gordatcen den guiçon çahar bat da. Beguiatcen tu alhorrac eta sohouac deusere han ebax eztecen. Nouiz ere oguiac ebakiric beitura edo belharra daillaturic, buruçaguiac oro sarthuric içan artino, Tantugou ezta batere lotcen; iratçarric da bethi. Haren aguertcen ikhoustiaren loxac beguiratcen tu ouhougnac. Houn da, sinhex eçacie, bena salbaje da. Hanitz gaiça çakian laborari batec erraiten cian ussu bere semer Tantugou cela segurtameneki lurreco frutien beguiraçaleric hobena.

Uztarilaren hilabeteco arristiri batez, ardi saldo bat ari alhacen bortu baten gagen; artçagna lothu cen; iratçartcian, ikhoussi cian Tantugou oihaniat ezcapatcen. Ber guisan içan cen artçagnez eçaguturic ibar ejer batetan, etçanic botchu batetan gagen.

Egun orano, bortuco herri çoumbaitetan, haurrac haren loxa dira. Nouiz ere mothico tchipi batec edo urruchouna tchipi batec ezpeitu nahi sinhexi bere ama, erraiten dero; “Abisadi hiri! Deitcen diat (*si c'est à un petit garçon qu'elle s'adresse*), dignat (*si c'est à une petite fille*) Tantugou eta, behala jinen duc (*à un garçon*), dun (*à une fille*) oihanetic!”

Garat Arnaud, né à Abense de Haut, le 6 mars 1833

Coll.: Salharanc Armand, Puchulu Jean, Uhart Jean et Etchecopar Pierre, expert

IDAUX-MENDY / IDAUZE

(Canton de Mauléon)

Population: 340

Baçuçun lehenago Pyreneetaco heri batetan guiçon bat eta emazte bat hanich çaharturic cienac. Etcicien etche tchipi bat baatcé bat eta behi bat baïcic, bena çoumbat nhai praoubé ciren sokhorritcen citicien berac beno praubiago cienac oro. Egun batez lura oro elhurez thapaturic çuçon, eta herien erdiratceco kharou bat baçuçon, herico gentiac oro beotcen çututçun jaten eta edaten cielaic, abeatx çututçun eta irous. Gaiaren hullantziareki, bi bidjant houna beicitien huruntic nahi iça çututçun ukhuatu guren hartan, ceentaco hostuic eta gosse beicitien; joiten dicie bortha batetan, guero bestebatetan eta beste çoumbaitetan ihourc ere etcititçun nahi ukhen utci sartcera, ez eta ere deusere eman jatera. Orotaric çaçaturic, tchakhur gaistoues jerraikiric bi estranjerec etçakicien nourat jouan, nouis eta ere ediren beicitien heriaren basterian, guiçon eta emazte praoube cien etchiaren aiticinian. Entçutiareki haien plagniac, senhara jari çuçon leihouan haren deitceco, eta bere emaztia jouan çuçon berhala bortharen çabaltcera. Batere galthatu gabe nour ciren sar eraci citicien eta jar eraci suthondouan; guero cerbutchatu cieçun ezne eta gaztagna inkarubat besteric gabez. Bena ordian Goure- Jauna, -houra beiccen Joundane Phetirireki, - jeiki çuçon buriac arguitcen cielaric eta erraiten dieçu: ciec praoube eta houn ciradie; cien aïcouac aberats eta gaïsto dira. Jincouaren justicia eguin bedi. Haïn sari lura ikharatu çuçon, Jesus eta Joundane Phetiri galdu çutuçu eta bi çaharac erori belharico. Biharamen goïçan, nahi iça cirenian jouan herialat, jakiteco cer igaran cen, etcicien ikhoussi etcheric batere: haien lekhian itchasso tchipibat çuçon egun den beçala Barbazan heriaren eta Joundaen-Bertrand-Commigaco heriaren artian. Behar dicie laguntu malerousec.

(heldu den testua ez da esku berak egina)

oOo

Tantugou duçu guiçon çahar bat gordatcen dena oihanetan. Beguiatcen tiçu alhorac eta sorhouac deuseren eez galtciagatic. Nouiz eta ere oguiac eta belharac ebakiric beitura, agniceta oro sarthuric iça artino Tantugou eztuçu batere lotcen, bethi beillan duçu. Haren ikhusten loxac etchekiten tiçu ouhougnac. Hun duçu sinhets eçaçu, bena salbaje duçu. Laborari hanits ikhassi cien batec eraiten ciçun bere semer Tantugou segurki lurreco frutien beguiraric hobena dela.

Uztailaco arastiribatez, ardi saldo bat alhan ciagotçun mountagnabateen alde gagnian; artçagna lothu çuçon; iatçarciareki ikhusten diçu Tantugou ezcapatcen oihanari buruz. Iça çuçon orano eçaçaturic artçain elibatez ibar ejer batetan etçanic aroca baten gagnen.

Orano egun ere Pyreneetaco heri çoumbaitetan haurac haren lotsa tuçu. Nouiz eta ere mouchico tchipi bat edo uruchouna tchipi batec ezipadu nahi obeditu bere amari eraiten dioçu: Cassu eguic! deitcen diat Tantugou, eta berhala jinen duc oyhanetic.

Harchoury, âgé de 54 ans, né à Sauguis

LHÔPITAL SAINT-BLAISE / OSPITALEPEA

(Canton de Mauléon)

Pop.: 144

Barbazanen ichtoria çaharra

Bacien, beste orduz, Pyreneetaco herri batetan, guiçoun bat eta emazte bat hainitch çaharrac. Ez cien etcholat bat, baratce bat eta behi bat baicic. Bena, çoumbat nahi prau e çanic, bethi laguntcen çutien berac beno prau e agouac. Egun batez, lurra elhurrez gorderic cen eta harrien erdiratceco kharroua. Herrico jentiac oro berotcen ari cien eta ber demboran, jaten eta edaten; aberatx eta irous cien. Ulhuntciari, hurruntic, houna cien bi bidejant, nahi içan cien lehku hartan ukhuatu, ceren eta hotç eta gosse beicic; jo cien bortha batetan, guero beste batetan eta orano beste elibatetan: ihourc ere ezçutian sartcera eitci nahi ukhen, ez eman mouchiic jatea. Orotaric igorric, tchakur gaichtouac aztaletan, bi estranjerec ez çakien nouat jouan, nouiz eta ere heldu beicic herriaen bazteriala, prau e cien guiçoun eta emazt hen etcholaen aitciniala? Hen plainietara, senharra aguertu cen leihouala hen deitcea, eta emaztia laster borthaen çabaltcea. Galthatu gabe nour cien, sar eraci çutien eta suthondouan jar eaci; guero berhala eman ceren ezne eta çoumbait gaztaiña, çutienac, oro. Bena ordian, Jesu-Christ Gure jauna (ceren houa cen Jondane Phetiri eki), jeiki cen beguithartia argui arguia eta erran ceren: “Ciec, prau e cirie eta jente hounac, cien aiçouac aldiz abeatx eta gaichto. Jincouac eraktx deçala bere justicia!” Ber mementouan, lurra ikhaatu cen, Jesus eta Jondane Phetiri galdu cien eta bi çaharrac belhaico erori... Bihamen goiçan, nahi içan cirienian jouan herriala, jakitea cer igaran cen, ez cicien etcheic haboro batere ikoussi; hen lekian, laco bat cen, orano egunco egunian agueri dena Barbazaneco herriaen eta San Bertran Commingaco hiriaen artian. Beharda heltu beharunian diener.

Tantugouen Ichtoria çaharra

Tantugou da guiçoun çahar oihanetan gordatcen den bat. Beguiatcen gu alhorrac eta sorhouac ezdadin deus ebatx ican. Oguiac phicaturic dienian edo belharra ebakiic, naussiac oro bil artio Tantugou ezda lotcen; bethi iratçarric dago. Haren aguertcen ikhoustiaen lotxac etchekitcen dutu ohoiñac. Guiçoun houna da, segur içaten ahal cirie, bena bassa. Laborari gaiça hanitch çakian batec ussu erraiten cian bere semer Tantugou cela dudaic batere gabe lureco uzten beguiaic hobeena.

Uztarilaco arristiri batez, arres saldo bat alha zen mendi batetan; louac hartu cian artçaiña: iratçartciaeki, ikhoussi cian Tantugou lasterca oihanialat buruz. Halahala, eçaguturic içan cen beste artçaiñ elibatez, ordoki ejer batetan botche baten gaiñen etçanic.

Orano egunco egunian, Pyreneetaco herri çoumbaitetan, hurrec haren lotxa badie. Ala mothico, ala nescatila, beren ama sinhexi nahi ez dienian, aski dere erraitia: Abisa hadi! Deithcen diat Tantugou eta lasterca jinen duc oihanetic!

Duleau, 26 ans, né à Etchebar
Coll.: Laurent Puyade

MAULÉON / MAULE

(Canton de Mauléon)

Population: 2251

Bacen lehen Pyrénéetaco heri batetan guïçon bat eta emaste bat, çouiñ beirciren hanitch çahar. Etcicien etche tchipi bat, baratce bat eta behi bat baicic. Bena, çoumbat nahi praübe ciren, socoritcen citicien bethi houac beno praübeago cienak. Egun batez, lurra elhurez gorderic çuçun, eta kharou eguiten ciçun harrien erdiatceco guisan. Heriko jentiac oro berotcen çutuçun, jaten eta edaten ari cielaic. Aberac çutuçun eta irous. Ulhun çartcin, bi bidejant çouiñ houna beirciren huruntic, nahi içan çutuçun ukhuatu lekhu hartan, ceren gosse eta egari beirciren. Bortha bat jo cicien, guero beste bat eta besteric orano. Nihourc etcitiçun nahi utci sartcera, es deus eman jatera.

Acassaturic orotatic, jeraikiric tchachur gaïtz eli bates, bi arrotcek etçaquicien nouat jouan, Nouis eta heldu beirciren heri basterila, guicoun eta emaste praübe cienen etché aitcinila. Hayen plagniac entçunic, senhara jari çuçun lehoun hayen deitceco, eta haren emastia fité jouan çuçun bortharen çabalcera. Galthatu gabe nour cien, sar eraci citicien eta jar eraci suthondouan: guero cerbutchatu cieçun esné eta gastagna çoumbait, çutienac oro. Bena ordian, Gouré Jaunan –houra çuçun- Joundané Phetirequi,- chutitu çuçun, buria oro arguituric eta erran cieçun: "Ciec, praübe cide eta houn; cien aisouac aberax tuçu eta gaisto. Jincouaren justicia eguin dadila!" Haiñ tsari, lura ikharatu çuçun, Jésus eta Joundané Pheti galdu çutuçun eta bi çaharrac erori belharico.

Biharamen goician, nouis éré nahi içan beirciren jouan herila jaquiteco cer igaran cen, etcicien ikhoussi etcheric batére. Hayen plaçan, baçuçun losko bat, egun orano edireiten dena Barbazaneco heriaren eta St Bertrand de Comminges hiriaren artian.

Behar dicie laguntu malerousec.

oOo

Tantugou duçu guïçon sahar bat çouin gordatcen beita oihanetan. Nouiz éré oguiac phicaturic beitira edo belharac ebaquiric, oro naüssiac sar artino, Tantugou estuçu lotcen batere: beillatcen duçu bethi. Haren ikhousteco loxac beguiratcen tiçu ouhounac. Houn duçu, sinhets eçacu, bena salbage duçu. Laborari, gaiça hanitch çakin batec, eraiten cieçun ussu béré semer Tantugou cela segur lureco frutien beguiraçaleic hobena.

Ustarila hilabeteco aristi batez, ardi tropa bat alha çuçun mendi batetan. Arçaigna louac hartu ciçun; iratçartsiarequi ikhoussi ciçun Tantugou çougnac ihessi eguiten beircian oihanialat. Içan çuçun bardin eçaguturic ulhagnetçaz naba ejer batetan, etçanic arroca baten gagnen.

Orano egun, Pyrénéetaco heri çoumbaitetan, haürrac haren beldur tuçu. Nouis ére mothico tchipi batec edo neskatila tchipi batec espeitu nahi obeditu bere amari, hounec eraiten dioçu: Abisa hadi, hi! Deitcen diat Tantugou, eta berhala ginen duk oihanetic.

Etcheberrigaray né à Alos l30 janvier 1846

Coll.: MM Larrieu, chef de bureau, Sous-préfecture, D. Elissabide, négociant

MENDITTE / MENDIKOTA

(Canton de Mauléon)

Population: 407

Barbazaneko iracourgaria

Baçuçun lehenago Pyrenetaco herri batetan giçon bat eta emazte bat couin hanitch çahar beiticien. Etcicien etche chippi bat, baratce bat eta behi bat baicik. Bena çoumbat nahi praoube içana gatik, bethi sokoritcen citicien berak beno praoubigo cirenak. Egun bathez lurra elhurrez gordeik çuçon eta karrou eguiten çiçen harrien erdiatceko puntin. Herriko jentik oro berotcen çututçuñ – jatieaeki eta edatiaeki; abeats çututçuñ eta irous. Iluntciai, bi bidajant çougnak hurruntik horra beiticien nahi içan çututçuñ baratu leku hertan, ceren eta hotz beiticien eta gose; jo cicin borta batetan, gero beste batetan eta beste hanitchetan oano: nihourkec etciticien sarcea utci nahi ukhen, ez etae jatea eman nahi ukhen. Baster orotaik kasatuik, persegituik chacur gaitzez, bi estranjeek etçakicien nouat joun, nuizee herriko beste buila heldu beiticien, praoube cielako giçon eta emazte heen etchiaen aincinila. Heen plagnien ençutiai, senharra leihoun jari çuçon heen deitceko, eta haren emaztia joun çuçon fite bortaren çabalcea. Galdegin gabe nour cien, sar aci cititicien eta sutondoun jar aci; gero cherbitchatu cieçuñ ezne eta çoumbait gaztegn, heek cieno oro. Bena ordin, Goure Salbaçalia –houra çuçu, jondane Petiriek in – jeiki çuçon buria argi argia eta erran cieçuñ “Siek praoube eta houn cide; cien aiçouk aberats eta gachto. Jinko hounaen justicia egin dadila!” Hain sari lurra ikharatu çuçon, Jésus eta Jondane Petiri galdu çututçuñ eta bi çaharrac belhaiko erori çututçuñ. Bihamun goiçan, nouizee joun nahi içan beiticien herilat, jakiteko cer igan cen, etcicien ikousi etcheik bate; heen lekin, baçuçuñ losko handi bat, Barbazaneko heriaen eta St Bertrand-de Comminjeco hiiaren artian egun oano edieiten den houa. Laguntu behar dicie malerousek.

Tartaouaen iracourgaria

Tartaroua duçu giçon çahar bat couin oihanetan gordatcen dena. Begiatçuñ titçu alhorrak eta sohok deusee hen ebats eztecen. Nouize, ogik mouzturik beitia edo belharrac ebakhik, oro buraçagik bilduik içan artino, Tartaouk eztiçu bate loik egiten; beleatz dagoçu bethi. Haen agercen ikousteko lotsak begiatcen titçu ouhoungnak Houn duçu, sinhets eçaçu, bena Salbaje duçu. Laborari batek çougnak beitçakin gaiça hanitch usu erraiten çiçuñ Tartaoua cela segurki lurreko frutien begiraçaleik hobena.

Uztailaren ilabeteco arrasti bates, ardi saldo bat alhatcen ai çuçon mendi baten gagen; arçagna lothu çuçon: iatçarciai aperbecitu ziçuñ Tartaroua ihez jouten beicen oihanilat buus. Eçaçutuik içan çuçon bergijan arçagnez arbailla ejer batetan, etçanik aroka baten gagen.

Oano egun Pyrenetako herri çoumbaitetan haourak haren lotsa tutçu. Nouize moutiko chippi batek edo neskatila chippi batek ez beitu sinhetsi nahi bere ama, erraiten dioçu: Casu egiñeçak hiri! Deitcen diat Tartaroua eta behala jinen duk oihanetik.

Goyhénèche, âgé de 20 ans, né à Artix
Coll.: Sallaber, Jean

MONCAYOLLE-LARRORY-MENDIBIEU/MITIKILE (C. de Mauléon)

Pop.: 605

Barbazaneco khountu saharra

Bazen lehenago Pyrénéetaco herri batetan gizon bat eta emazte bat hanitz sahar zienak. Etzien etché chipibat, baratze bat, eta behi bat baisik. Bena zoubat nahi praübe isanic ere sokhoritzen sutien bethi berac beno praübigouak. Egun batez, lurra gorderic sen elhurrez eta kharrouak erdiatzen zin. Herrico jentic oro berotzen ari siren jatiarekin eta edatiarekin: aberax sututsun eta irous. Ulhuntzin hurruntic jitenciren bi bidejan nahisan zien arrestatu lekhu hartan seren gosse eta égarri beitziren; jo cien borta batetan, gero beste batetan eta orano beste sumbatetan, ihourk ere etzutien nahi ukhen utzi sartzera es eta ere deuse eman jatera. Ohilturik bazter orotatic, jarraikirik hor malezian sien elibatez, bi arotzek etzakien nourat jouan nouiz eta heltu beitziren herriaren bazterrinn, gizon eta emazte praübe harien etchiaren aitzinin. Hayen plagnien entzutiari senharra jarri sen leihoun hen deitzeko eta emaztia jouantzen bertan bortharen zabaltzera. Her galthatu gabetarikk nour siren sar eaci zutien eta jar erassi bere suthondouan gero serbutchatu seyem ezne eta gastegna soumbait sutinac oro. Bena ordin Goure-Jaüna –houra cen Jundane Phetirieki- Jeiki sen buria argi argia eta erran ceyen; “Ziec praübe eta houn zidie, zien aizouk aberatx eta gaisto dira. Jincouaren justicia egin dadila!” Haïn sarri lurra ikharatu sen, Jesus eta Joundane Petiri galdu siren eta bi saharak erori siren belhaïko... Biharamun goizan joun nahi izan sirenian herrila jakiteco ser igaran cen etzien ikhoussi etcheric batere: haien lekhin basen losko handi bat sougna ere edireiten beyta orano egun Barbazaneco herriaren eta Saint-Bertrand-de Commingeco hiriaren artin, Behar dira laguntu malerouzak.

Tartaüaren khountu saharra

Tartaüa gison sahar bat da oihanetan gordatzen dena. Bégiatzentu alhorrak eta sorhouak amourekati han deusere ebatx eztezen. Nouiz ere ogiak mouzturic beitira edo belharrak ebakiric, oro naussiz sarturik içanartio Tartaüa ezta batere lotzen; iratzarririk dago bethi. Haren ikhousteko lotxac erretenizentu ouhougnak. Houn da, sinhex esasio, bena salbaje da. Gaiça hanitz sakin laboraribatec erraiten sin usu bére semer: Tartaüa sela segur lureko frutien beguiraririk hobena. Uztailako arrestiri batez ardi saldobat alhan ari zen bortu baten gagnen; artazagna lothu zen, iratzarsiarekin ikhousi cin Tartaüa oihanilat eskapatzen. Essagaturirik izantzen bergisan artzagnez arbailla ejer batetan, aroka baten gagnen etzanic.

Orano egun Pyrénéetako herri soumbaitetan haürrac haren lotsa dira. Nouiz ere mothico chipi batec, edo nescatila chipi batec ezpeitu nahi obeditu bere ama hounek erraiten deyo: Khassu egin eçak hiri! Deitzen dut Tartaüa, eta haïn sarri jiten da oihanetik.

J. Barrenne; 28 ans, Montory
Coll.: M. Laplume

MUSCULDY / MÜSKÜLDI

(Canton de Mauléon)

Population: 430

Barbazanen iztoria

Bacen lehenago Pyrenetaco heri batetan guïçonbat eta emazte bat çouin hanitz çahar beitician. Etçuten etche tchipi bat, baratce tchipi bat eta behi bat baïcic. Bena çoumbat nahi praube cien, sokhoritcen çutien bethi berac beno praubiago cienac. Egun batez, lura thapaturic cen elhurez, eta kharou eguiten cian harien erdiazteko guisan. Herico gentiac oro berotcen ari cian, jaten eta edaten cielaic; aberax eta ırous cien. Ulhuncian, bi bidejant, çouin huruntic jiten beiticiren, nahiçan cian arastatu lekhu hartan, ceren gosse eta hotz beician; joiten die bortha bat, guero beste bat eta beste elibat orano; ihourc ere etçutian utci nahi ukhen sartcera, ez eta deusere eman nahi ukhen jatera. Orotaric cassaturic, ho gaitz eli batez perseguituric, bi estranjerec etçakiten nourat jouan, noiz eta edireiten beitira heriaen bazterian, guïçon eta emazte praube hen etche aïcinian. Hen plagnien entçutiarequi, senhara jouaitenda leihoula hen deitceco, eta emaztia jouan cen fite bortharen çabaltcera. Batere galtheguïn gabe nour ciradien, sar eraci çutien eta jar eraci beren suthondouan, guero cerbutchatu ceren ezne eta gaztagna çoumbait, hec çutena oro. Bena ordian Jinco hounak, - *eci hora cen Jondane Phetiriki*, - jeiki zen buria arguituic eta eran ceren: “Ciec praube eta houn cide; cien aïçouac aberax eta gaïzto dira. Jincouaren justicia eguin dadila”. Berhala lura ikharatu cen, Jesus eta Jondane Phetiry bistatic galdu ciren; eta senhar emazte çaharac belharico erori cien. Bihamen goïcan, nahiçan cienian jouan herila jakiteco cer igan cen, etçuten ikhoussi etcheric batere: hen lekhan bacen ossin handibat, orano egun edireiten dena Barbazan eta Saint-Bertrand-de-Comminges deitcen dien bi herien artian. Behardia sokhoritu malerousac.

Tantugouen iztoria

Tantugou guïçon çahar bat da çouin gordatcen beita oihanetan. Beguiratcentu alhorac eta sohouac, han ihourcere ebax ezteçan deusere. Nouiz eta oguiac mousturic beitira edo belhara ebakiric, oro bil artino buruçaguïac, Tantugou ezta batere lotcen; iratçariric dago bethi. Haren lotxac, beguiratcen tu ouhougnac. Houn da, sinhex eçacie, bena bassa da. Laborari batec, çougneç beitçakian gaïça hanitch, eraïten cian ussu bere semer, Tantugou cela segur lureco frutien beguirariric hobena.

Uztailaco aristiri batez, ardi saldo bat alha cen bortu baten gagnen; artçagna lothu cen; iratcarciareki ikhoussi cian Tantugou escapatcen oihanilat. Içan cen ber guisan eçaguturic artçagnez naba ejer batetan, etçanic haroka batetan gagnen.

Orano egun ere, Pyrenetaco heri coumbaitetan, haurac loxa dira harentaco. Nouiz eta mothico tchipi batec edo neskatila tchipi batec, ezpeitu nahi obeditu bere amari, amac eraïten do: Abisaic; deitcen diat Tantugou; eta berhala jinen duc oihanetic.

B. Laxague, 49 ans, né à Ossas-Suhare

On n'a pas pu trouver un seul individu dans la commune en état de nous donner des renseignements de quelque importance

ORDIARP / URDIÑARBE

(Canton de Mauléon)

Population: 821

Barbazaneco kountu sahara / Barbazaneco istoria

Bacien besteorduz Pyreneetaco herribatetan guïçon eta emaztebat hanitch chararac. Etsien etchetto bat, baatsia eta behitto bat baicic. Bena, nahi bada praube, berac beno beharagouer bethi heltura eguiten cien. Behin arren, lurra elhurrez oro gorderic sen, harriaren hausteco kharoua ari sen. Herrico gentiac oro suthondouan ciren jaten eta edaten; aberatx éta irous ciren. Ulhunciari, hurrunti jiten cien bi bidajant, lekhu hartan nahi ičan ciren ostatatu, cereneta hotz eta gosse beiciren; jo ciren aren bortha bat, guero beste bat eta beste asko: nihourcek etsein nahi ukhen çabaltu ez eta ere eman jatera deuzere. Orotaric ohiltuik, chakur gaïstouez perseguituric, bi arotzek etçakien nourat utçul, nouiz eta herriaren basterila heltu beitcien, guïçon eta emazte behar haien etche ertcila. Haien deithoamenac entçunic, senhara leihoula aguertu cen haien deitceco eta emaztia laster joun seien bortharen çabalcea. Galthatu gabe nour ciren, çareraci çutien eta jareraci çuçulian (suthondouan); guero, serbutchatu ceien ezne eta gaztagnac, çutien erekeitiac. Bena ordin, Salbaçaliac, - eci houra bera cen Joundane Phetirieki- chutitu cen, buria arguidua handi batez unguratuic, eta erran ceien: "Cirec praube eta houn cidie; ciren aiçouac aberax eta gaïsto dira. Ičan bedi Jincouaren justicia!". Haen sari, lurra ikharatcen da, Jesus eta Joundane Phetiri galcen dira, eta bi chaharac belharicatzen dira. ... Bihamen goiçan, joun nahi ičan cirenin herrila, cer çabilan jakitera, etcien ikhousi etcheric batere; haien lekhian, bacen ordari losko çabalbat, egun orano edieiten dena Barbazaneco herriaren eta Saint-Bertran-Comminjeco hiriaren artin.

Horek erran nahi du beharer heltua behardela éguin.

(ou Beharda laguntu malerousac)

Tantugouren istoria

Tantugou da oiñanetan gordatcen den guïçon chaharbat. Alhorac eta sohouac beguiatcen dutu ebaxletaric. Oguiac eta belharrac ebakiric dienin, naussiac bilartio, Tantugou ezta lo; bethi iratçariric dago. Haren batceco beldurrac beguiatcen dutu ouhouñac. Guïçon houna da, bai segur, bena bassa da. Hanitch çakien laborari batec, sion ardura bere semer, Tantugou sela segur lurecco uzten beguirari hobena.

Ustailaco aristi batez, arez saldo bat alha sen mendin: artçaiña lothu sen: iratcarciaeki, Tantugou ikhousi sin ihessi jouiten oiñanilat. Beste artçain elibatec ere eçagutu cien houra sela, aroka gaïñ batetan, etçanic, ibar ejerbatetan.

Egun orano, Pyreneetaco herritto elibatetan, haren beldura badie haurec. Muthico batek edo uruchouna batec sinhetsi nahi eztienin bere ama, eraiten deo: "Abizaic! Deitcen diat Tantugou eta, berhala, jinen duc oiñanetic!

J. Bordenave, 27 ans, né à Baigts, Basses Pyrénées
Coll.: Etchebarne, Althabe, Duhalt

ROQUIAGUE / ARROKIAGA

(Canton de Mauléon)

Population: 272

Baçuçun nouizpaît goure Bortu ondo hayetaco herri batetan guiçoun bat eta emazte bat hanix çaharturic. Etcicien etche ttipibat, baratce eta behi bat baïcic. Bena, çoumbat nahi beharrac ciren; eguiten cicien bethi heltura bera beno beharretan ago cirener Egun batez, lurra elhurrez thapaturic çuçun, eta kharrountatcen ari çuçun harrien erdiratceco aski. Herrico gentic oro berotcen ari çutuçun, jatez eta edatez; aberax eta irous çutuçun. Ullhuncin, bi bidageant couiñ hurruntic horra beiciren, nahi içan çutuçun gune hartan ukhuru ceren eta egarri eta gosse beiciren; jo cicien bortha batetan, guero beste batetan, eta beste çoumbaitetan orano: ihourc ere etciticien nahi ukhen utci sartcera, ez deusere her eman jatera. Orotaric igorric, hor ehelegatu elibat ondoun jarraikirc, bi arrotzec etçakicien nourat joun, nouiz eta ediren beiciren kharrica bazerrin, guiçoun eta emazte behar hen etche aicinin. Hen plagnien entçutiareki, senharra leihoulatu çuçun her oyhu eguiteco, eta emaztia jouan çuçun bortharen çabaltcera. Galthatu gabe nour ciren, sar eraci citicien eta jar eraci su pphazerrin; guero eman ciecien ezne eta gaztagna, hec ciena oro. Bena ordin, Goure Jauna (Jesus-Crist), ecic houra çuçun, Joundane Phetirireki- chutitu çuçun, buria arguidura batec harturic, eta erran ciçun; “Ciec praube et houn ciradie; cien aiçouac aberax tuçu eta gaichto. Gincouaren justicia eguin bedi!” Haimbestereki lurra ikharatu çuçun, Jesus eta Joundane Phetiri galdu çutuçun eta bi guiçoun emazte çaharrac belharico erori çutuçun... Biharamen goiçan, nouiz eta nahi içan beiciren joun kharricala jakiteco cer igaran cen, etcicien ikoussi etcheric batere; hen lekhin baçuçun losco bat, egunco egunin orano edireiten dena, Barbazaneco herriaren eta Sen Bertrand Commingeaco hiriaren artin. Behar diçu heltura eguin malerouser.

oOo

Tantugou duçu guiçoun çahar bat couiñ gordatcen beita oyhanetan. Beguiratcen tiçu alhorrac eta sorhouc han deusere ihourc ebax eztezen. Nouiz eta oguic edo belharra ebakirc beitera, agniketa hourac oro buruçaguc barnerat bil artio, Tantugou eztuçu batere lotcen; beillatcen duçu bethi *ou bien* beilheratz egoiten duçu bethi. Haren aguertcen ikhousteco lotsac baratcen tiçu ouhougnac. Galant duçu, sinhexi behar ducie, bena bassa duçu. Laborari batec hanix gaiça çakinak erraiten cieçun ussu bere semer ecic Tantugou cela segur lurreco uzten beguiraric hobena.

Uztailako arristiri batez, ardi saldo bat alha ari çuçun mendi gaiñ batetan: artçagna louac hartu ciçun: iratçartciareki asmatu ciçun Tantugou ihessi jouten oyhanilat buruz. Guisa berin ecaguturic içan çuçun artçagnez arbailla ejer batetan, etçanic botchu batetan gagnen.

Orano egunco egunin, goure bortu ondouetaco herri coumbaitetan, haurrac harren lotsa tuçu. Nouiz eta mouthico edo nescatchou ttipi batec ezpeitu nahi obéditu bere amari, hounec erraiten diroçu: Abisa hadi! Tantugouri oyhu eguiten diouat *ou bien* diognat, eta, mementin, jinen duc *ou* dun oyhanetic

Elgoyhen, 52 ans, né à Alos-Sibas
Coll.: Lopeborde, Carriquiborde

VIODOS / BILDOZE

(Canton de Mauléon)

Population: 658

Barbazaneko khountu çaharra

Baçuçun lehenago Pyreneetaco heribatetan guiçon bat eta emazte ba hanitch çahar beytciren. Etcicien etche ttipi bat, baratce bat eta behi baycic. Bena, çoumbat nahi praube ičanagatic, sokhorritcen cititcien bethi berak beno praube ago cirenac. Egun batez, lura elhurez gorderic çuçun eta kharoua hanitch cinez ari çuçun. Heriko gentik oro berotcen çututçun gaten eta edaten ari cirelaik. Ulhun ceratcin, bi bidejant huruntic hora cienak, baratu nahi ičan çututçun lekhu hartan, ceren eta gose eta hotz beytciren; jo cicien bortha batetan, guero bestebatetan eta beste elibatetan orano: ihourk erek etcititcien sartcera utci nahi uken ez eta ere eman deusere jatera. Borthaz igoriric bazter orotatic, lasterkaturik chakhur gaitz elibatez, bi estranjerek etçakicien nourat joun nouis eta heltu beytciren heri bazterila, guiçon eta emazte praube hayen etche aiticnila. Hayen plagnien entçutiarekin, senhara leyhoula aguertu çuçun haien deyceko eta emaztia fite joun çuçun bortharen çabaltcera. Batere hayer galthatu gabe nour ciren, sar eaci cititcien eta jar eaci suthondo chokhoun; guero cerbutchatu cieçun ezne eta gaztegna çoumbait, hayek cirena oro. Bena ordin goure Gincou Jauna –houra çuçun Saint Pierra ekin- chutitu çuçun buria argui arguia eta eran cieçun: “Ciec praube eta houn cidie, ciren ayçouk aldiz aberatz eta gaychto. Gincouaren justicia eguin dadila” Hagn sari, lura ikharratu çuçun; Jesus eta Saint Pierra galdu çututçun eta bi jente çaharrak belhayko erori. Bihamen goyçan, herila joun nahi ičan cienin, jakiteko cer igaran cen, etcicien ikhousi etcherik batere: hayen lekhin baçuçun losko edo hour handi bat, egun edireyten dena orano Barbazan eko heriaren eta Saint- Bernard-de-Cominges eko hiriaren artin. Behar dia laguntu malerusak.

Tantugou en khountu çaharra

Tantugou duçu guiçon çahar bat gordatcen dena oyhanetan. Beguiratcen titçu alhorac eta sohouc, amorekatik deuzere han ebatz estecen. Nouiz ere belhara edo oguik mouzturik beytira, Tantugou eztuçu batere lotcen; buruçaguik oro elkhartino; bethi iatçaririk duçu. Haren aguertcen ikhousteko lotsak ouhougnak baratcen titçu. Houn duçu, sinhesten ahal ducie, bena salbaje duçu. Laborari, gaiça hanitch çakin batek, erayten ciçun usu bere semer Tantugou cela segurki lureko fruitiren beguiraçalarik hoberena.

Uztailako aresti batez, ardi saldo bat alhatcen ari çuçun bortu batetan; artçagna louac hartu ciçun; iratçartcin ikhousi ciçun Tantugou oyhenilat buruz ezkapatzen cela. Bergaiça eçagaturik ičan çuçun beste kabale beguiraçale elibatez arbailla eyjer batetan, aroca batetan gagnen etçanik.

Pyreneetako herri çoumbaitetan, egun orano, haurak haren tako lotsa tutçu. Nouiz ere mothiko edo neskatchouna ttipi batek espeytu nahi bere ama obeditu, erayten dioçu: “Khasu eguin eçak hiri (*ou bien si l'on parle à la fille*) khasu eguin eçan hiri! Deytcen diat (*ou bien*) deytcen dinat (*selon que l'on parle à un petit garçon ou à une petite fille*) Tantugou eta berhala ginen duk *ou* ginen dun oyhanetik

F Davant, né à Moncayolle le 8 mars 1861

Coll.: Sallaberry, S'-Jean

ANHAUX / ANHAUZE

(Canton de Baïgorry)

Population: 518

La légende Barbazan

Bacien lehenago Pyrenetaco herri batian guïçon bat eta emazte bat araz çahartiac. Ez cuten etche ttipi bat, baratce bat eta behi bat baïcic. Bâinan probe içana gatic, bethi laguntcen ciuzten berac bano probiago cirenac. Egun batez, lura estalia cen elhurrez eta horma eguiten cien harrocac erdiatceco anocoan. Herrico yende guciac berotcen cien yatian eta edatian, aberax eta uroz cien. Ilhun nabarian, bi pidayant heldu cirenac urunetic leku hartara, nahi çuten guelditu leku hartan ceren eta gosse eta egarri beïtciren, yo çuten borta batian, guero bertce batian eta bertce batcutan ere: nihorc ez ciuzten sartcera utci nahi içan ez eta deusse eman yatera. Cassatiac orotaric, seguitiac çakur garassia eguile batcuz, bi estranyerec ez çakiten norat joan , noiz eta ere caussitu beïtçuten herriaren bazterian guïçon eta emazte probe cien hen etchiaren aintcinian. Hen pleïniac aytcearekin, senhara plantatu cen leyhoan hen galdeguitco eta haren emaztea yoan cen ussu bortharen çabaltzera. Batre her galdeguin gabe nor ciren sar aci ciuzten eta yarraci ciuzten beren su pazterian; guero cerbitçatu ceeten esnia eta çombait gaztena, ciuzten guciac. Bâinan Yesu Cristo gure Yauna – hura cen Yondoni Petrikin- alchatu buria dena distirant eta eran ceen: Ciec probiac ciezte eta hunac cien aucoac aberaxac eta gaïchtoac. Yincoaren yusticia eguin bedi!” Berehala lurra ikarratu cen. Yesus eta Yondoni Petri bichtatic yoan cien eta bi çaharrac erori cien belhaûnico. Biharamun goician, noiz ere nahi içan baitcuten yoan herrirat yakiteko cer passatu cen, ez çuten ikussi etcheric batere: hen tokian (ou lekian), bacen hur gueldi handi bat, egun oraïno caussitcen dena Barbazenco eta Saint Bertrand Cominyeco hiriaren artian. Behar dira lagundu malorossac.

La légende de Tantugou

Tantugu da çahar bat gordetcen dena oyhanetan. Çaintcen tu alhorrac eta peintciac ez deçaten deus ebax. Oguiac picatiac direnian edo belharrac ebakiac, denac kendiac ican artio naussiaz, Tantuguc ez du loïc batre eguiten, goardian dago bethi. Haren aguertcen icustiac atchikitcen ditu ohoïnac. Huna da, sinhex acie, bânin salbaya da. Laborari asco gaüca cakien batec eraiten cien ardura bere semer Tantugu cela segurki lurreco fruitien beguiraçaleïc hoberena.

Uztailaco axalde batez acinda tropa bat alhan ari cen mendibaten gainian, artçaina lokartu cen, iatçartciarekin hauteman cien Tantugu ihes eguiten ciela oyhanari buruz. İçan cen igoal eçagutia artçainez celhaï pollitbatian etçana harroca baten gainian.

Oraïno egungo egunian, Pyrenetaco herri batçutan, haurec beldur dute harendaco Motico ttipi edo nechcato ttipi batec obeditu ez direnian nahi bere amari erraiten dee: Goardia emac (masc. à un petit) goardia eman (au féminin) hiri ekarazten dut Tantugu eta ichtantian yinen da oyhanetic!!

Instituteur: Biscay, âgé de 46 ans, né à Alçay

Coll.: Arrambide Gratien

ASCARAT / AZKARATE

(Canton de Baigorry)

Population: 354

Bazen lehenago Pyrenetaco herri batian guizon bat eta emazte bat biziki chaharrac zienac. Etzuten etche ttipi bat, baätze bat eta behi bat baizik. Bainan hain beharrac izanic ere, sokhorritzen ziuosten berac baino beharraouac. Egun batez lurra estaliazzen elhurrez eta kharrognarizien borthizki. Herrico yende guziac berotzen zauden, yaten eta edaten arizirelaik: aberats eta ouros ciren. Ilhuntzian, bi piayant heldu cienac urrunetik nahi ukhan zuten arrastatu lekhu hortan, ceren hotzac eta gosiak baitzien, yozuten bortha bati, guero beste bati eta oono beste batzuer: nehorc etziusten sartzerat utzi nahi izan, ez eta ere deus ere eman yaterat. Khasatiac orotai, persegitiak chakhur gaichtobatzuz, bi estranyerrec ez zakiten norat yuan, guerthatzen dielaik herriain beste burian, guizon eta emazte behar ciren heèn etchiain aitzinian. Intzutiakin heèn plegniac, senharra yartzenda leyhouan heén deitzeko, eta hain emazia yuanzen fite borthain idekitzeat. Galdin gabe nor ciren, sarraazi ciusten eta yarraazi beren subasterrian; guero cherbitzatu zuten esnia eta zombait gaztagna, ziuzten guziac. Bainan ordian, Gure Yauna – hurazen Yandone Petrikin - yeikitzen da, buria argui arguia, eta erten deè: “Ziek beharrak ziizte eta hunac; zien auzuak abeatsak eta gachtouak. Yainkouain justizia ina izandaila!” Ordian berian lurra ikharatzen da, Yesus eta Yandoné Petri ezestatzen dira, eta bi chahar hec erortzen dira belhauniko. Bihamoun goizian, nahi izan zutelaik yuan herrirat yakiteko zer phasatuzen, etzuten ikhusi etcheric batere: heèn lekhian bazen leize bat zoina kausitzen baita oono egun Barbazaneko herriain eta San-Bertrand- Commingeko hiriain artian.

Behardira sokhorritu malhurosac

Tantugouin

Tantugou da guizon chahar bat oyhanetan gordetzen dena. Zaintzentu alhorrac eta phenciac nehoc deuzen ez ebasteko. Oguiac eta belharrac pikhatiac diélaik, naoussiak erretiratu artio, Tantugou ez da lokhartzen, bethi iatzarik dago. Hain aguertzeko beldourrac atchikitzentu ohoinac. Huna da, sinétsazié, bainan bassa da. Laborari gauza anitz zakien batec ertenzen ardura bere semer Tantugou zela séourki lurreko fruitien beiratzaléik hobééna.

Uztailleko atsalde batez, ardi tropa bat alhatzen zen mendi batian, artzaina lokhartuzen: iatzarziaikin, ikhusten du Tantugou ihesi zuala oyhaneko alderat. Igual ezaoutia izantzen behi zainez erreka pollit batian, etzana harri pegna baten gainian.

Ono egun, Pyrénétaico herri zombaitetan, hurrec haren beldurra badute. Mutikho ttipibatec edo nechkato ttipibatec ez dutelaik nahi beren ama obeditu, erraiten deè hunek: Gouardimac! Oihu iten diat Tantugouri, eta ichtantian, yinen duc oyhanetic!

Sallaberry , 28 ans, né à Saint-Jean-Pied de Port.

BANCA / BANKA

(Canton de Baïgorry)

Population: 944

Bazi'en lehena'u Pyrenetaco herri batian guisom bat eta emaste bat arrajs saharac. Etche ttipi bat, baratze bat eta behi bat besic ez t'zuten. Bainan sembat êê pobriac baitsien, berac baino aphaltuac laguntzen siusten. Egun bates lurra elhures ejstalia sen, eta horma e'iten sien harriac arrailtseco pundian. Herrico jende gusiatic jaten eta edaten ari si'elay'ic, berotsen siren, abaraxac eta urojsac siren. Ilhuntzian bi piäjante urrunic jiten si'enac, herri hartan nahi isan suten guelditu hotsac eta gojsiac baitsi'en. Borta bat jo, bersia jo eta guehia'o ono, neho'cke'e ez tsitien barne'at utzi nahi isan, ez deujis eman nahi isan jate'at. Gusieta'ic cajsatiac, jseguitiac chacur gachtos, bi arrots horiec, ez tsakiten no'at juan, noiz eta 'ê, guertatu baitsiren herriaren burian, guison eta emaste pobre hen etche aintsinian. Hen pleiniac aditsearekin, senharra athera sen leihora, her oihu eguiteco, eta haren emastia fite juan sen athiaren ide'itze'a. Hec nor si'en galde'in gabe, barne'at jsara'asi siusten eta jarra'asi su basterian; guero ekharri se'eten ejsne eta gastena sombait hec siusten gusiatic. Bainan ordian Jesu-Chrichto gure jauna, - hura bera sen jondon Petri'ek'in, - chutitu sen, buria dirdirant, eta erran ze'en: "Siec pobriac siste, bainan hunac siste eta sien ausuac aberatxac eta gachtuac. Jaincoaren jujstisia eguin bedi." Be'ehala lurra ikhaatu cen, Jesus eta jondone Petri bichtatic galdu si'en (*ou bien*; itsali si'en) eta bi saharac belhau'nico jarri si'en. . . . Bihamoun goisian herrirat juan nahi isan sutelaic, ser pajsatu cen jakiteco, eztsuten ikujsi etche'ic bate'e, hen lekian basen putsu bat soina ikhujsten baita ono egungo egunian Barbazaneco herriaren eta S^t. Bertrand-de-Commingeco hiriaren artian.

Behar dire jende beharrac lagundu

Nota bene: *ikujsi (vu)*. *Le son js avec une voyelle est différent du son s accompagné d'une voyelle. Ceci est très important pour la bonne prononciation du basque.*

oOo

Tantugou da guison sahar bat oyhanetan gordetzen dena. Saintzen'tu alhorrac eta pentziac han deujis ebatjs ez desaten. Oguiac eta belharrac picatiac di'elaic (*ou bien*: di'enian) hen denac naujsias beras alchatiac isan artio, Tantugou ez da batere lo'khartcen: bethi guardian dago. Haren ikujsteco beldurrac isitsen tu ohoinac. Se'ur guison hunac dela, bainan basa da. Hanits gausa zakien laborari batec erraiten se'en ardura bere jsemer Tantugou dela se'urki lurreco fruitien sainsale'ic hobe'ena.

Ustaileco atjsalde bates ardi tropa'at (*ou bien* multso bat) alha sen mendi batian; artsaina lokhartu sen: i'atsarci'an ikhujsi sien Tantugou ihejs sohala oiha'at. Guijsa berian isan sen arrajs untxa esa'utia arsaingez selhaï pollit batian, etsana dagola harri pegna baten gainian.

Egungo egunian ere ôno Pyrenetaco sombait herri'tan haurrac haren beldur dira. Muthico ttipi batec edo nechcato ttipi batec bere ama'ri obeditu nahi ez tielaic, amac erthen daco: Guardi'emac (*et au féminin*: Guardi'eman) Tantugouri oihu eguiten dake'at (*au féminin*: dak'emat) eta ichtantian oihanetic jinen duc (*au féminin*: jinen dun).

Nota bene: Dans le pays basque, pour faire peur aux enfants, on leur dit: "Mamou!". Ce qui semble dériver de "Mameluk" en basque, "Mamelouc". En effet, les Mahométans ont visité ces parages et ont dû produire sur l'esprit vulgaire une impression peu favorable.

Jean Candau, 36 ans, né à Mendive

Coll. Etchart, Petecha, maire.

 BIDARRAY / BIDARRAI

(Canton de Baigorry)

Population: 1121

 Barbazanen historia

Baziren lehenago Pyrenetaco herri batean arras çahar ciren guizon eta emazte bat. Etzuten etche tipi bat, baratce bat eta behi bat baicic. Bainan zembat pobre izan citen, socoritzen ciuzten bethi hec baino pobregoac cirenac. Egun batez lurra elurrez gorde cen eta horma ai cen harrien erdiratzeko guisan. Herrico yende guciac berotcen ciren, yaten eta edaten ari cielaic, aberats eta urrus cien. Ilunaarian hurrundic heldu cien, bi piyayant, guelditu nahi izan ciren leku hartan, ceren eta hotz eta gose baitziren: yo zuten borta batian, guero berze batian eta berze batzutan oono: nehokee etzitin nahi izan utzi sartcera ez eta deuser yaten eman. Alderdi gucietaric casatiac, persegituac chacur coleraturz , bi estranyerec etzakiten noat youan, causitu cienian herriain basterrian, pobre cien guizon eta emazte haien [?] etchiain aitzinian. Aditzian hen plaignuac, senarra eman zen leihoan hen deitzeco eta haren emaztia youan zen fite bortain idiitzera. Her galdegin gabe nor ziren, sarrarazi eta yarrarazi ciuzten supazterrian; gero cerbitzatu zuten esnia eta zembait gazten, zuten guzia. Bainan ordian, gure Yinco Yaunac – hura zen, Yondoni Petriikin- yeiki cen, buria arras distirant eta erran zeeten: “Ziic, pobriac eta honac ziizte, ziin auzoac aberatsac eta gaichtoac dira, Yincoain yusticia ein dadiila” Ordian berian lurra icaratu cen, Yesus eta Yondoni Petri bichtatic jouan cien eta bi zaharrac belaunico erori cien.... Biharamoun goician, herrirat youan nahi izan zutenian, yakiteco ce paastu zen, etzuten icousi etcheic batre: hen ordainez: bazen hur gueldi bat St Bertrand-de-Comminges heriain eta Barbazan herriain artian causitzen dena oono egun.

Behar dira lagundu malurussac.

Tantugouin historiao

Tantugou da oihanetan gordetzen den çahar. Zaintzen tu alhorrac eta peintciac amorecatic eta deus ez dezaten ebats. Oguiac picatiac tienian edo belarra ebakia guciac barnerat sartiatic izanac artio nausiaz. Tantugouc ez du batre loic eiten; iatzarriric doo bethi. Haen icousteco beldurrac atchikitzen tu ohoinac. Hona da, sinhetsazue, bainan salbaia da. Hanitz gauza zakin laborari batec erraiten zeen ardura bere semer Tantugou zela seurki lurecco fuituen zaintzaleic hobeena.

Uztaileco ilaiteco atsalde batez, artalde bat alha zen mendi baten gainian, arzaina locartu zen: iatzartzian icousi zin Tantugou çoin ies baitzoan oihanerat buruz. Ezagutia izan zen ere arzainez ordoki pollit batian, pegna batian etzana.

Eun oono, Pyrenetaco herri zombaitetan, haurrac harendaco beldur dira. Mutico ttipi batec edo nechcato batec ez diinian obeitu nahi bere amai, haurrei erraiten daco: Casumac hiri! Deitzen diat Tantugou eta berehala, yinene duc oihanetic!

Instituteur: Carricaburu, 28 ans, né à Bayonne

IROULÉGUY / IRULEGI

(Canton de Baïgorry)

Population: 365

Barbazaneco ichtoriaoa

Baciren lehenago Pyreneetaco herri batian guïçon bat eta emazte batt arras çaharrac. Etzuten etche ttipi bat, baratzte bat eta behi bat baïcic. Bainen cembat nahi pobre içon citen, sokhorritzen ciuzten bethi hec baino pobreago cirenac. Egun batez, lurra estalia cen elhurrez eta kharroina ari cen harriac arrailatzeco guisan. Herrico yende guciac berotzen ari ciren yaten eta edaten çutelaric; aberats ciren eta uros. Ilhuntze sartzian, urrundanic heldu ciren bi bidayantec nahi ukhan çuten guelditu lekou hartan, ceren eta hotz eta gose baitzuten; yo çuten bortha batean, guero beste batean eta bertze batzuetan oraino: nihun ecin içon çuten leihorric, nihorc etzioten eman nahi içon yaterat. Orotaric khasatiac, guibeletic seguitiac chakhur oldartu batzuez, bi estranyerac etzakiten norat yohan, noiz eta ere khaüsitu baitziren herriaren bazterrean, pobre ciren guïçon haren eta emaztearen etchearen aintzinean. Heyen pleinuac entzutearequin, senharra yarri cen leihoan heyen deitzeco eta haren emaztea yuan cen fite bortharen idequitzera. Hayer galdeguin gabe nor ciren, sar araci cituzten eta jar araci beren supazterrian, guero cerbitzatu ceeten esnia eta cembait gaztaina, erran nahi baita çuten gucia. Bainen ordian Gure Yaincoa – hura cen Yondoni Petrirequin- yequi cen, burua distirant eta erran ceen: Cuec ciezte pobre bainan honac; çuen auçoac aberatsac eta gaichtoac. Yaincoaren yusticia eguin dadiela! Mement berean lurra ikharatu cen Yesus eta Yondoni Petri ezestatu ciren eta bi çaharrac erori belhaunico... Biharamoun goicean, nahi ukhan çutenean yuan herrira, yaquiteco cer pasatu içon cen, etzuten ikhusi etche bakhar bat: hayen lekhan bazen putzu bat, çoina causitzen baita oraino egun Barbazaneco herriaren eta Yondoni Beltran Comingeco hiriaren artian. Behar dira malurusac lagundu.

Tantuguren ichtoriaoa

Tantugu da guïçon çahar bat oihanetan gorderic egoitea maite duena. Beguiratzen tu landac eta pentzeac nehore han deüsic ébats ez dezan. Oguiac ébaquiatic eta belharrac pikatiatic direnian, Tantugu ez da lokhartzen ogui eta belhar hec guciac nagusiatic barnerat bildu arte. Haren aguertzen ikhusteco beldurrac guibelarazten ditu ohoïnac. Hona da, sinhest azue, bainan salbaïa da. Laborari hanitz gauça çaquien batec erraiten çuen ardura bere semeer Tantugu cela segurki lurreco fruituen çaintzaleric hoberena.

Uztailleco atsalde batez, ardi tropa bat alhatzen cen mendi baten gaïnean; artzaina lokhartu cen; itzartziarequin ikhusi çuen Tantugu oihaneco alderat ihes çuhela. Guisa berian eçagutia içon cen artzainez celhai pollit batean etzana harri peïgna baten gaïnean.

Oraino egunean, Pyrénéetaco herri cembaitetan, haürnac ikharan daüde harendaco. Noiz eta ere muthico ttipi batec edo nechcato ttipi batec ez baitu obéditu nahi bere amari, hunec erraiten daco: Guardia emac hiri! Deitzen diat Tantugu, eta ichtantian yinen duc oihanetic.

Instituteur: M. Estéot, né à Ahaxe, canton de Saint-Jean-Pied-de-Port
Coll.: J. Errécart

LASSE / LASA

(Canton de Baigorry)

Population: 623

Baciren lehenago Pyrénéetaco herri batian guizon bat eta emazte bat biciki çaharrac. Etçuten etche ttipi bat, baratce bat eta behi bat baicic. Bainan cembat nahi pobre ciren, laguntzen cituzten bethi berac baino pobriagouac. Egun batez, lurra elhurrez estalia cen eta harriaren arrailtceko kharroina ari cin. Herrico yende guciac berotcen çauden yaten eta edaten ari cirelaric; aberatsac eta urosac ciren. Ilhun nabarrian, bi pidayant urrunetic heldu cirenac, nahi içan çuten lekhu hartan guelditu, hotz eta gosé baitciren; yo çuten bortha batian, guero beste batian eta beste batçuetan oraino. Nehorkec etcitin sartcera utci nahi içan, ez eta ere deusere yatera eman. Orotaric kasaturic, seguituric chakhurrez furian, bi estranyerrek etçakiten norat yuan, noiz eta ere khausitu baitciren herri bazterrian guizon eta emazte pobre heyen etche aicinian. Heyen plegniac inçutiarekin senharra yarri cen leihuan her oihu eguiteco, eta haren emazia yuan cen çalhu bortharen idekitcera, galdeguin gabe nor ciren; sarraaci cituzten eta yarraaci su bazterrian; guero, cerbitçatu cereten esnia eta gaztaina cembait; cituzten guciac. Bainan ordian, Yainco-Yauna, - hura zen Yondoni Petirirekin - yeiki cen, buria argui arguia eta erran ceren: “Ciec pobriac eta hunac cizte, cien auçuac aberatsac eta gaichtuac dira. Yaincoaren yusticia eguin dadila!” Dembora berian lurra ikharatu cen Yesus eta Yondoni Petiri itçali ciren eta bi çaharrac erori ciren belhaunico... Biharamun goician herrirat yuan nahi içan çutelaric cer phasatu cen yakiteco, etcheric batere etçuten ikhusi: heyen plaçan laco bat cen, egun oraino khausitcen dena Barbazaneco herriaren eta Saint-Bertrand-Commingesco hiriaren artian.

oOo

Tantugou çahar bat da oyhanetan gordetcen dena. Beguiratcen tu alhorrac eta phentciac ezteçaten eta deusere ebats. Oguiac eta belharrac picaturic direlaric, denac nausiaz sarthuric içan artio. Tantugouc eztu loric batere eguiten beillatcen du bethi. Haren aguertceco beldurrac atchikitcen tu ohoinac. Huna da, sinhets çacie, bainan basa da. Hainitz gauça çakien laborari batek erraiten ceren ardura bere semer Tantugou cela seür lureco fruitiën beguiraçaleric hoberena. Uztarilaco eguerdi ondo batez, ardi tropa bat alhatcen ari cen mendi baten gainian; artçaina lokhartu cen; iratçartciarekin ikhusi cin Tantugou oihaneco aldeat ihes çuala. Balea poillit batetaco artçainez berdin eçagutia içan cen etçanic harroca baten gainian.

Egun oraino, Pyrénéetaco herri cembaitetan, haurrac harendaco beldur dira. Muthico ttipi batec edo nechcato ttipi batec obeditu nahi eztilaric amari erraiten daco: “Guardia emac hiri! Tantugou deitcen diat, eta, ichtantian, oyhanetic yinen duc.”

Quihillalt, 27 ans né à Ordiarp

LES ALDUDES / ALDUDE

(Canton de Baïgorry)

Population: 1227

La légende de Barbazan

Basen herri batean guison bat eta emaste bat arratz çaharrac. Ez souten etche ttipi bat, baratce bat eta behi bat baïsic. Bainan, çombat nahi pobre içanic ere, socorritsen citousten pobriac. Egun batez lourra elhourrez estalia sen, karroina handia sen. Herrico yende gouciac berotcen siren yaten eta edaten hari cirelaric; aberatsac eta ourousac ciren. Ilunsian bi pidayant ourroun danic heldou çirenac guelditou nahi isan souten lekhou hortan, ceren hotz eta gose baïtsiren; yo souten bortha bathi, guero bertce bati, eta bertce hainitz eri: nehorc ere ez sitouen outsi sartcerat ez eta eman yaterat. Khasatiac lekhu goucietaric, seguitiac chacourrez, bi estranyerac ez sakiten norat youan noiz eta ere heltsen baitira herriaren bourourat guison eta emaste haren etchiaren aïtcinerat. Heyen oyuac aïtouric, senarra heldou da leyorat oyou egiterat eta emastia badoa athiaren çabalcerat. Galdeguin gabe nor diren sar harasten eta yar harasten ditouste sou ondoan. Guero emaiten deezte sitousten gaousetaric, esnia eta gastaïnac. Bainan ordian goure Yaunac – houra sen Yondone Petiriek- choutitsen da, bouria arguitia eta erraiten dee: “Çouec pobriac eta honac siiste; souen haousoac gachtoac eta aberatsac. Yincoaren yusticia eguin dadiela”. Berehala lourra ikharatou sen, Yesous eta Yondoni Petiri galdou siren eta bi çaharrac yarri siren belhaunico. Biharamoun goisian, nahi isan soutelaric herrian sarthou yakiteko çer pasatou sen, ez souten ikhousi etche bihi bat; heyen plasan, poutsou handi bat, kausitsen dena egun Barbazaneco herriaren eta Yondoni Bertrand Gommingeko hiriaren artian. Behar da lagundou malhourousa.

La légende de Tantugou

Tantugou da guiçon çahar bat oyanetan gorderic dagona. Kasou eguiten dou alhorreri eta pincer ez desaten ebatz. Oguiac edo belharrac picatiac direlaric, denac barnerat sarthou artino, Tantugou ez dou loric eguiten; beilla da bethi. Haren ikousteko beldurrac atchikitsen ditou ohoinac. Hona da, sinhetss nesasou, bainan çalbaya. Laborari batec hainitz gautsa çakienac erraiten souen ardoura bere semeri Tantugou sela segourki lourreko fruitouen gardianoric hoberena.

Agorrilako atsalde batez, arthalde bat alhan sen mendi batean; artcaina lo sen. Iratsarciarekin ikousten dou Tantugou ihes eguiten oyanetarat. Esagoutia isan sen ere artçaines, celhay batian, etsana arroca baten gainian.

Oraino egun, goure mendietaco herri batsouetan haurrec beldour handia doute haren dako. Moutiko ttipi bat edo nechkato ttipi batec ez badoute amari obeditou nahi, amac erraiten dou: Kasou isac hiri! Oihu eguinen diat Tantugou, yinen douc oyanetik!

Instituteur: M. Elissagaray, né à Ciboure le 8 juillet 1863

Coll.: M. Chango, instituteur en retraite; Crespo, négociant; Monaco, garde forestier

OSSÈS / ORTZAIZE

(Canton de Baigorry)

Population: 1786

Barbazaneco erranfrena

Bacen bertze orduz Pyrenetaco herri batean guição bat eta andre bat çoinac baiciren arras çaharrac. Ez çuten etche ttipi bat, baratce bat eta behi bat baicen. Bainan hain pobriac içana gatic, laguntcen ciuzten bethi hec baino pobriago cirenac. Egun batez lurracen estalia elhurraz eta horma ari cen harrien arrailcecoa. Herrico yende gouciac berotcen ciren, yaten eta edaten çutelaric, ciren aberats eta uros. Ilhun nabarrian, bi bidayant ethortcen cirenac urrunetic nahi içan çuten guelditu toki hartan, ceren baitçuten hotz eta gose; yo çuten athe batean, guero bertce batean eta bertce batçuetan oraino: nehorc etciuzten nahi ukan utçi sartcerat, ez deusic eman nahi içan yaterat. Casatiac orotatic, seguitiac çakour oçar batçuez, bi arrotcec ez çakiten norat gan, noiz eta ere caüsitu baitciren herriaren bazterrean, guição eta andre pobre heien etchearen aintzinean. Aditcearekilan heien arrangurac, senharra eman cen leihoan heien deitceco eta haren andrea gancen laster idokitcera athearen. Galdeguin gabetaric nor ciren sarraraçi eta yarraraçi ziuzten supazterrean; guero, cerbiçatu çaioten esnea eta çenbeit gaztena, ciuzten guçiatic. Bainan, orduan Gure Yainco Yauna – houracen, San Petriekin- yeiki cen, burua oro distiratu eta erran çaioten: “Çuec çarete pobreac eta onac, çuen aüçoac dira aberatsac eta gaichtoac; Yaincoaren yusticia eguina içan dadiela!” Betbetan lurra ikharatu cen, Yesus eta San Petri iççaldu ciren eta bi çaharrac eroriciren belhaunico. Bihamun goicean, nahi ukan çutenean gan herrira, yakiteco cer pasatu cen ez çuten ikusi etcheric batere: heien tokian, bacen putzu bat çoina caüsitcen baita oraino egun Barbazaneco herriaren eta San Bertran Commingeco hiriaren artean. Lagundu behar dire yende necatuac.

Tantugunen erranfrena

